

## 54 urteren ostean, ziklo-krosa

Arrasatera bueltatuko  
da kirol proba hori | 22



1961eko bideoaren irudia. | GOIENA

Aretxabaletako agustindar mojak  
badoaz, mende bat bertan eginda | 7



Azaroan hasiko da 04/08  
sumarioari dagokion epaiketa | 2



Opera saioa, mitokondrialen  
ikerketan laguntzeko | 5



### BERGARAK JANTZIKO ZAITU

Moda desfilea egingo dute bihar Bergarako Udal Pilotalekuan, bertako dendariekin eta modeloekin | 13

Desfilean parte hartuko  
duten hainbat modelo,  
Bergarako arropekin  
'jantzeko' zain.

JAGOBA DOMINGO

# Hondakinen bilketa sistema galdeketa bidez erabakiko dute

EAJk herri galdeketa egingo du Bergaran, urtea amaitu aurretik | 11



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Argiak, kamera eta... euskara!
- Beatriz Zaballondo, Berria Taldeko presidentarekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

#### SINADURAK

|  |                             |
|--|-----------------------------|
|  | AMAGOIA LASAGABASTER   6    |
|  | 6   LEIRE KORTABARRIA       |
|  | ENEKO FERNANDEZ   9         |
|  | 14   KARLOS ETXANIZ         |
|  | JOSE LUIS MADINAGOITIA   16 |
|  | 18   DORLETA KORTAZAR       |
|  | MIKEL IRIZAR   32           |

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6  
HERRIAK 7 | KIROLA 22 | KULTURA 25  
ZURE IRAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27  
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29  
ESKELAK 29 | NON-ZER 30



943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,  
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

#### SEAT LEON ST X-PERIENCE



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



# Azaroaren 16an hasiko da 04/08 sumarioko epaiketa

Lau debagoiendar daude 39 inputatuen artean: Arantzabal, Galparsoro, Garaiondo eta Zubimendi

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Makina bat atzerapen izan ostean –azkena eta sonatuena aurtengo urtarrean, inputatuen hainbat abokatu epaiketako lehen egunean atxilotu zituztenean–, azaroaren 16an (astelehena) hasiko da 04/08 sumarioaren epaiketa. Martxoaren 7ra arte iraungo du eta Auzitegi Nazionaleko areto nagusian –San Fernando de Henares– izango dira saioak.

Sumarioko 39 inputatuetako lau debagoiendarrak dira: Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo, Aitor Arantzabal (Bergara) eta Ino Galparsoro (Arrasate).

Hain justu, Baltasar Garzon epailearen aginduz atxilotu zuten 2007an Seguran Mikel Zubimendi, eta eta lau hilabete geroago, 2008ko otsailaren 11n, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo. Azken biek bina urte eman zituzten kartzelan; bi urte eta erdi, berriz, Mikel Zubimendik.

Ingurumari hartan, ETak su-tena amaitutzat jo zuen 2007ko ekainean, eta lau hilabete geroago egin zituzten Segurako atxilotetak. Batasuna legez kanporatua zegoen Espainian –ez Frantzian– 2003az geroztik –Espainiako justiziaren eta Europako Batasunaren arabera ETaren beso politikoa izan zen Batasuna–, eta atxilotutakoak hura

berrantolatzeko nahian zebiltzan akusaziopean atxilotu zituzten.

## Talde terroristako kide

Ino Galparsoro, berriz, ANVren izenean Arrasateko alkate zela atxilotu zuten 2008ko apirilean, Arrasaten. 2008ko martxoan zentsura-mozio baten bitartez Galparsoro botatzea proposatu zuten, Isaias Carrasco zinegotzi sozialistaren hilketa ez gaitzesteagatik –2008ko martxoan hil zuen Carrasco ETak–. Zentsura-mozioa ez zen onartu, eta hilabete geroago kartzelaratu zuten Galparsoro, Garzon epailearen aginduz. Uztaile amaieran askatu zuten.

Bada, orain hasiko den epaiketaren akusazioa lau debagoiendarrendako da berbera: ETaren mesedetan lanean jardutea. Eta fiskalaren zigor eskaera ere berbera da guztientzat: hamarna urteko kartzela zigorra, talde terroristako kide izatea leporatuta.

## "Guztia da ETA"

Ezkor egin behar diote aurre epaiketari eskualdeko politikari ohiek. "Abokatuak ez dira oso itxaropentsu azaldu", jakinarazi du Arantzabalek. "Esperantza handirik ez dugu", gaineratu du Galparsorok. "Herriko tabernen auzian erabilitako argumentua bertan behera

bota dute, eta hori zen gure oinarrietako bat", esplikatu du hark.

Laburbilduz, 04/08 sumarioan inputatuta daudenetako bat bera ere ez zegoela legez kanporatutako elkarteren batean, beraz, ez zirela talde terroristako kide; horixe zen defentsaren argudio nagusia. Baina herriko tabernen auzian, "guztia da ETA" arrazoinamendua erabili zuten inputatuen argudioa atzera botatzeko.

## "Zigor gogorra"

"Inork ez zuen pentsatuko Euskal Herrian gaur egun bizi dugun egoerarekin halako epaiketa politikorik egongo zenik, eta ezta ere halako zigor gogorrik eskatuko zenik", salatu du Arantzabalek. "Neronek ere ez nuen pentsatuko kartzelara bueltatuko nintzenik, baina orain... batek daki", dio Arantzabalek.

Hori bai, fiskalaren zigor eskaera jaisteko eskatu behar dute. "Gardu bat jaisteko, ia zortzi urte atzeratu da-eta epaiketa. Eta epaiketa larregi luzatu izana bestelako kasu batzuetan aintzat hartzen da", esplikatu du Arantzabalek. 04/08 sumarioaz arduratuko den Concepcion Espejel epaileak eskaera hori onartuz gero, asko jota 3-6 urte bitarteko kartzela zigor eskaera egin dezake, eta orain, 6-12 urte bitartekoa du mahai gainean.



Lurjabeek egindako batzarretako bat, Oñatiko Uribarri auzoan. | U.M.

## Aizkorri-Aratz parkeko kudeaketa plan berria alegazioak aintzat hartuta lantzen dabilta

Inplikatu guztiei erakutsiko diete plana Jaurilaritzak eta Diputazioak

U.M. | DEBAGOIENA

Oraingo eguaztenean batzarra izan dute Aizkorri-Aratz parkeko lurjabeen, basozainen, Ehiza Federazioko, ENBA eta EHNE sindikatuak eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak. Arrazoiak izan da Aizkorri-Aratz parkeko Kontserbazio Bereziko Ere- mu izendatu ondoren, bertan aplikatuko den kudeaketa planaren hasierako dokumentua inplikaturakoei partekatzea.

Izan ere, plan horrek zuzenean eragiten du esparruaren erabileran, besteak beste, bertako hainbat animalia, zuhaitzi eta larre babestea duelako helburu, eta horrek hainbat debeku edo erabilera-arau ekarriko dituelako, erabiltzaile guztiek errespetatu beharrekoak.

## Udan, protestan

Hain justu, Aizkorri-Aratz parkeko lurjabeek udan abiarazitako protestaren lorpena da, adibidez, natura parkearen kudeaketa plana adostasunean onartzeko batzarrak egitea.

Ekainaren 12an publikatu zuten Aizkorri-Aratz natura parkeko Kontserbazio Bereziko Ere- mu izendatu eta eremu horri dagozkion kontserbatzeko neurriak onartzen dituen dekretu proiektua, eta abuztuaren 13ra arte ireki zuten alegazioetarako epea. Hori guztia egin zen, inpli-

katuekin egon barik. Eta haiek 800 sinaduraren babesarekin eragin zuten alegazio epea irailaren 30era arte luzatzea. Salatu zuten, hain justu, "belaunaldiz belaunaldi parkearen kontserbazioaz arduratu diren lurjabeekin" ez zela inor harremanetan jarri. Mozioak aurkeztu, eta onartu egin dituzte eskualdean, lurjabeak babestuta.

Kontuan hartu behar da Aizkorri-Aratz parkeko lurren %51 baino gehiago jabetza pribatukoak direla, tartean Debagoieneko herritarrena; hortik, haien aldarrikapena.

Orain, elkartea sortu dute, erakundeekin egin beharrekoak modu ofizialean egiteko: Aizkorri-Aratz parkeko lurjabe eta erabiltzaile gipuzkoarren elkar- tea, hori da izena. Oñatiko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako, Zegamako, Zeraingo eta Legazpiko lurjabeek eta Aizkorri-Aratz eremuko erabiltzaileei zuzendutakoa da, eta nahiko lukete elkarrekin horien %100 ordezkatzeko. Beraz, gonbita egin dute kide egiteko, bai lurjabe direnak zein izendapen berriaren eragina izango duten bestelako elkarteko ordezkari direnak ere: ehiztariak, basozainak, espeleologoak... Bideak bi dira: auzo alkateekin harremanetan jarri edo hona idatzi: [aizkorri-aratz@gmail.com](mailto:aizkorri-aratz@gmail.com).



Mikel Garaiondo, Aitziber Plazaola, Ino Galparsoro eta Aitor Arantzabal iazko elkartasun ekitaldietako baten. | I.S.

Jan ezazu bizitza begiekin, Variluxekin."

**P. MANSO**  
Optika

Irizar pasealekua, 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 27 86

Zure bigarren betaurreko pareak

**OPARI**

Eskaintzaren baldintzak optikan bertan kontsultatu.

**VARILUX**

Babes osoa izateko



Transitions



Crizal Prevencia



Crizal Sun UV



E-SPF: informazio gehiago: [www.espf.es](http://www.espf.es)



# Lasarte-Orian ospatuko dute aurtengo Topa Eguna, bihar, zapatua

Euskaraz bizi izatearen alderdi onak agerian ipini nahi ditu jaiak

**IDOIA DAVILA | DEBAGOIENA**  
Euskaltzaleen Topaguneak eta Ttakun elkarteak elkarlanean, Lasarte-Orian antolatu dute Topa Egunaren laugarren edizioa. Bihar, zapatua, ospatuko dute, eta herriko Euskal Jaiarekin bat egingo du.

**Egitaraua**  
Euskaltasunaren aldarria egiteko asmoz, egun osorako egitaraua antolatu dute. Diana, herri bazkaria, Irrien Lagunen ikuskizuna eta erromeria egongo dira, besteak beste. Topa Eguneko egitaraua triki-poteo eta pintxo-potearekin amaituko da.  
Herri bazkarian 300 lagunentzako tokia egongo da; txartelak jadanik salgai daude, 8 euroren truke, Topagunearen webgunean.

**Mugimenduaren bateratzea**  
Esperientzien Trukegunea izeneko ekitaldia ere izango da bihar, non euskaltzaleen mugimenduko kideen parte-hartzearekin gartzen ari diren host esperientzia ezagutu ahal izango diren zuzenean.  
Ekitaldi horiek mugimendua bateratzeko balio dute, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak dioten moduan. Jardun euskara elkartearen hitzetan, "elkarrekin urte osoan zehar euren kontura egiten dutena beste elkarte batzuekin bateratzeko balio du", informazioa trukatzeko aukera da



I. Arruti, I. Martinez de Luna, J. Mendizabal eta P. Suberbiola, Topa Egunaren bueltako mahai-inguruan, eguaztenean. | TOPAGUNEA

Topa Eguna. Lagunen artean egindako ekitaldi bat da, Goibeko elkartekoen ustez, eta helburu bera dute denek: euskara.  
Hala ere, herri txikietan mugitzen diren elkarteak hurbileko errealitatean murgiltzen dira. "Kasu txikiagoa egiten diegu horrelako ekintzei", dio Rosa Mondragonek, Txirritolatik.  
**Bailarako ekintzak**  
Hurbileko ekintza horien artean, Debagoieneko euskara elkarteek urte osoan zehar antolatutakoak

daude. Gehienak mintzapraktiketako kanpainan murgilduta daude orain, eta herrietan hainbat ekitaldi egiten dituzte.  
Arrasateko AED Osakidetza euskalduntzen ari da, eta hainbat hitzaldi ari da antolatzen. Bergarako Jardun, orde, elkartearen 25. urteurrenaren harira ekitaldiak antolatu ditu, ohiko ekintzei ere eutsita.  
Loramendik aisialdia euskaraz eskaintzen du eta azarorako euskalki ikastaroa antolatu du Aretxabaletan, baita film labur

ikastaro bat ere. Aramaion hika ikastaro bat eta San Martin egunerako ekintzak antolatu ditu Txirritolak.  
Horrez gain, hainbat elkarte eta herri elkarlanean Euskararen Eguna ari dira prestatzen abenduaren 3ari begira. Goibekok, gainera, pixkanaka martxan jarri nahi du berriro elkarte, eta *Euskarak 365* ekimena bultzatu nahi du Elgetan. Datorren urterako plangintza zehazten ere lan handia dute hainbat elkarte hila-bete hauetan.

## ESANAK

**"Herrixoetan hurbilekoan murgiltzen gara, eta ez hainbeste Topa Egunean"**

ROSA MONDRAGON | TXIRRITOLA

**"Urtean zehar bakarrik egoten gara lanean, eta elkartzeko aukera ona da"**

NEREA MENDIZABAL | JARDUN

**"Mugimenduan egiten duguna erakusten dugu, berrespenerako balio du"**

ITXARO ARTOLA | AED ELKARTEA

**"Hainbat herritan egiten dena ikusarazten da jai honetan"**

IRATI URKIA | LORAMENDI

**"Sekulakoa antolatuko dutela badakit, eta gogoz nago parte hartzeko"**

IBAN ARANTZABAL | GOIBEKO

## Aramaioko alkatea, Uemako zuzendaritza batzordeko kide

Debagoiendar bakarra izango da datozen lau urteotan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean

**MAITE TXINTXURRETA | ARAMAIO**  
Aramaioko alkate Lierni Altuna Udalerrri Euskaldunen Marnko-

munitateko zuzendaritza batzordean izango da datozen lau urteotan. EH Bildu koalizioaren zazpi

ordezkarietako bat izango da Altuna. "Gogoarekin eta ilusioarekin" hartu du "erronka" berria Aramaioko alkateak, "Euskal Herri mailan zerbait egiteko".  
Bestalde, eta Aramaioko Udalean euskarari ematen dioten garrantziari buruz galdetuta, Lierni Altunak erantzun du zeregin handia dagoela egiteko, nahiz eta, berez, dagoeneko asko egin: "Udal moduan gauza asko ditugu zuzentzeko, baina, orokorrean,

ahalegintzen gara gure jardunaren %99 euskaraz izaten. Gauza asko ditugu egiteko: enpresei fakturak euskaraz eskatu... Txikierietatik hasi eta gauza handietara gauza asko daude egiteko. Izan ere, gaztelera leku guztietan daukagu, eta borroka etengabe bat da".

**Gaur lehen bilera**  
Urriaren 3an izendatu zuten Altunarekin batera jardungo

duen lantalde berria: zazpi dira EH Bilduko ordezkariak; beste hiru EAJko ordezkariak eta bat independentea. Gaur, egubakoitz, izango dute lehenengo bilera, Zestoan. Adibidez, Uemaren azken lau urteetako lana aztertuko dute.  
Hain justu, azken lau urteetan Maren Belastegi bergararra izan da Uemako zuzendari nagusia. Haren lekua hartu du orain Josu Labaka azpeitiarrak.



NISSAN  
Innovation that excites



**NISSAN CROSSOVER GAMA BERRIA**  
3 URTEKO MANTENTZE-LANEKIN

**12.900 €\* -TIK AURRERA**

**ARABAUTO**  
Portal de Gamarra, 46 A-B - 01013 Vitoria-Gasteiz - Tel: 945 262 501 - [www.arabautocars.com](http://www.arabautocars.com)

Kontsumo mistoa: 3,8-7,3 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 99-172 g/km.

\*Salneurri gomendatua, penintsulan eta Balear uharteetan. Barne hartzen ditu: PPF, garrasoa, Nissan Asistancia, sustapen deskontua, Pive 8 plana, BEZA eta IEDMT (Espainiako merkatuan gerta daiteke zure autonomia erikidegoan aplikagarri ez izatea). Eskaintza baliagarria da eskuzko Nissan JUKE Visa 1.6i 94CV (69 kW) autoa erosten duten partikularrendako eta autonomoendako, euren izenean dagoen erabiltako auto bat entregatzen badute eta RCI Banque SAren Magic Plan-ekin finantzitzen badute, Espainiako sukurtsalean. 24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoa, gutxienez 8.000 € finantzatuta. 3 urteko mantentze-lan kontratua (kilometraje-mugarekin). Barne dauden azterketak estandarrak dira, Garantien eta Mantentze-lanen Ziurtagiriaren Liburuaren arabera. Kanpo geratzen dira flotak eta enpresak. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta baliagarria da hil bukatu arte edo Pive 8 plana bukatu arte (lehenago geratzen dena). Informazio zabalagoa, gertuen duzun kontzesionarioan. Iragarikien agertzen diren modeloa: Nissan Juke Tekna Premium, Nissan Qashqai Tekna Premium Pack S-ekin eta Nissan X-Trail Tekna berria.





# UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



## Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien XI. Goiena lehiaketako sariak. Amaia Santamaria bergararrak irabazi du lehen saria, *Bartzelona* argazkiarekin. Argazkia Bartzelonan atera zuen. Bigarren saria

Asier Atxa aretxabaletarrak eskuratu du, *Urkuluko ilunkara* argazkiari esker; Aretxabaletan egindako argazkia da. Eta hirugarrena Isabel Muñoz arrasatearrak, *Hegaz* argazkiari esker. Herritarrek euren

botoekin Garbiñe Alkorta aretxabaletarraren *Castro Urdiales* argazkia aukeratu dute. Horien artean, Oihane Lezeta oñatiarrak jaso du boto emaileentzako saria.

1



### SARI NAGUSIA

Amaia Santamaria bergararrak irabazi du sari nagusia: Nikon 3200 reflex argazki-kamera digital bikaina, Begira argazki-dendak eskainitakoa. Dendako Ane Idigorasek eman zion saria.

### 2. SARIA

Aretxabaletako Asier Atxak irabazi du bigarren saria, Arrasate Bidaiek-en eskutik Orioko AISIA hotelean bi pertsonarendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua. Arrasate Bidaiek-eko Bea Aldaik eman zion saria.

### 3. SARIA

Arrasateko Isabel Muñozek irabazi du hirugarren saria, bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. Jatetxeko Marisa Bolinagak eman zion saria.

### HERRITARREN SARIA:

Aretxabaletako Garbiñe Alkortak irabazi du herritarren saria, Kindle-a, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

### BOTO EMAILEENTZAT SARIA

Oñatiko Oihane Lezetak irabazi du boto emaileentzat saria, munduko hainbat kafe motaz osatutako otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik. Karibuko Nuria Duranek eman zion saria.



2



3



HERRITARREN SARIA



2



HERRITARREN SARIA



3



BOTO EMAILEENTZAT SARIA



ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**Begira**  
argazkilaritza

ARRASATE BIDAIAK

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

**EROSKI**  
ARRASATE

**karibu**  
munduko zaporeak  
karibumundukosaporeak.com



# Gaixotasun mitokondrialen ikerketa bultzatzen laguntzeko opera-saioa

Arrasaten izango da saioa eta sarrerak salgai daude Kutxabanken, 14 eurotan

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA  
Elkartasuna opera eran. Horixe da AEMPI elkarteak (Patologia Mitokondrialak Dituzten Gaixoen Elkarte) Arrasaten datorren zapa-turako egin duen hitzordua. De Norte A Sur taldearen eskutik, *Debla* izenburua duen opera fla-menkoa taularatuko dute Amaia Udal Antzokian, urriaren 24an, 19:30ean.

Ikuskizun horren sarreren bitartez batutako dirua gaixotasun mitokondrialen ikerketara eta gaixotasun hori duten umeen erre-gistroa egitera bideratuko dute; asmoa da erregistro horrek ahal-bidetzea ume gaixoei Europan abian dauden entsegu klinikoetan parte hartu ahal izatea, "Espainian erregistro hori barik ezinezkoa da-eta edozein entsegutan edo bestelako terapiatan parte hartzea", esplikatu dute AEMPI elkartetik.

**Antzokira joan ezean: O Fila**  
Ikuskizunerako sarrerak salgai daude 14 eurotan, eta Kutxaban-ken eskura daitezke.  
Horrez gainera, O Fila izeneko figura sortu dute antzokira bertaratu ezin direnei baina diruz lagun-du gura dutenei hori egiteko auke-ra emateko. Eta kontu korrontea



Ana Belen Martinez eta Iker Galan, umearen laugarren urtebetetzean. | MARTINEZ

zabaldu dute haiei begira: 21007992612200349049.  
Bestalde, Goiena Klubaren eta Arrasate Irratiaren bitartez ere eskura daitezke sarrerak, zozketa bitartez, AEMPI elkarteak berak emanda.

**Iker Galan bergararra**  
Debagoienean gaixotasun mito-kondrialia duen mutiko bat dago: 5 urte dituen Iker Galan bergararra. Haren ama Ana Belen Martinezen bitartez antolatu dute opera flamenko saioa Arrasaten. Talde flamenkoaren eskutik jaso

zuen Martinezek AEMPI elkar-teari laguntzeko helburuarekin dirua batzeko ikuskizuna egiteko proposamena. Dantza konpainiak Ikerri eta haren familiari dena eman dio, obra flamenkoa taula-ratu ahal izateko ahalegin handia eginda. Hala, Martinezek eskerrak helarazi gura dizkie dantza kon-painiari zein inguruko merkatariei, obra taularatu ahal izateko behar den guztia eman dutelako. Besteak beste, Ikerren amak berak ere parte hartuko du operan, 20 artis-taren laguntzarekin, pare bat dan-tzatan azalduta.



AMAGOIA LASAGABASTER

## Alternatiben Herrirako gonbita

Urriaren 24rako, Bilbon, Alternatiben Herria izenarekin bataiatu duten "mobilizazio eraikitzailea" antolatu dute Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sinatzaile diren ELA, LAB, ESK, STEILAS eta EHNE sindikatuek. Bertaratzeko deia egiteko, elkarretaratzea egin zuten herenegun, eguaztena, Debagoieneko ELAko eta LABeko ordezkariak.

## 'Bateragune' auziko inplikatuaren askatasuna eskatzeko manifestaziora joateko autobusak

Bihar, zapatua, 17:30ean Donostiako Bulebarretik aterako da *Bate-ragune* auziko kide Arnaldo Otegiaren eta Rafa Diezen askatasuna eskatzearen aldeko manifestazioa. *Arnaldo askatu, politika askatu* leloa izango du. Eta hara joateko autobusak antolatu dituzte Deba-goienetik. Hain justu ere, Oñatitik 15:30ean aterako da, Correostik -txartelak Arranon daude salgai-; eta Bergaratik, berriz, 16:00etan aterako da, bertako geltokitik -izen-ematea: Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan-.

## EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.

# Zama hegalduna

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE  
Euskarazko **#hezuntza** eta hiz-kuntzaren **#corpusa**-ren osake-ta izan ziren diktaduraren ilun-peetatik **#berpizkundea** altxatu zuten zutabeetatik bi. Pilare Baraiazarra euskal ereduak ezar-tzen eta Patxi Uribarren hiztegi-gintzan, behialako **#grina**-ri ez diote ihes egiten utzi eta **#kon-tzientzia** eta **#konpromisoa** dira bientzat, Baraiazarraren berbak hartuta, bizitan egoteko era: "Bes-te inor ez baitago nire lekuan".

**Kontzientziaren zama**  
60kotik gaur egungo azken bi hamarkadetara. Kontzientziatik, gaur egun "gehiegizko **#auto-kontzientzia**" ez ote dagoen da beldur Irati Jimenez, baina, aldi berean, temaz berrespenean, Jon Sarasuak eusten dio desafio mui-

nekoena dela "euskaltasunaren **#fluxua** transmititzen jakitea". Areago, Lorea Agirre "historiaren pisuaz" mintzo da.

**Hegalak**  
**#Zama** horren itzalpean, sor-tzaileak, nork bere borroka. Dan-tzaz dihardu Eneko Balerdik, antzerkiaz Asier Sotak eta musi-kaz Thierry Biscaryk, Kalakan taldekoak. Hiru artistek badute **#ardura** komuna: **#zertarako** sortu? Balerdientzat, pentsa-mendu **#kritikoa** garatzen da, Sotak kulturaren tresnak **#Aka-demiatikPlazara** eroan gura ditu eta Biscaryk lehenago galdetuko du zergatik, nola baino. Baina egin. Imanol Epeldek dioen beza-la, denok sortu gara sortzaile eta hegalak moztea egin daitekeen eta deliturik handiena ei da.

**Erantzun bila**  
Erpin bat baizik ez da sortzailea eta baliabideak, **#publikoa** eta erantzunak behar ditu. "Gure herrian, kultura hain fenomeno garrantzitsua den heinean", Joxe Mari Agirretxek lanerako deia egiten du. **#Biziraun** beharrak eta ezarritako **#lehia**-k, maiz onuragarriak ez diren **#prakti-kak** sustatu dituela dio Eneko Balerdik, kulturarentzat beste-lako aterpe bat eskatuz. Plazaz baliatzeko apustua egiten du Dabid Egizabal dantzariak eta Ander Lipusek azken deia: artistak berak ere **#proposatu** egin behar due-la, horregatik direlako **#sor-tzaile**.

**HITZALDI OSOA IKUSTEKO:**  
Goiena telebista | Eguena, urriak 22, 22:00.



Ander Lipus, Asier Sota, Dabid Egizabal, Eneko Balerdi, Imanol Epelde, Irati Jimenez, Jon Sarasua, Joxe Mari Agirrezabal, Lorea Agirre, Patxi Uribarren, Pilare Baraiazarra eta Thierry Biscary. | GOIENA

### Telebistako saioaren babeslea



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILETZA PLANA  
25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe

Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.





## ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER  
goiena.eus/komunitatea/



## Beharrezkoak bezain ikusezinak

Ezagutzen ditut Arrasaten, baina baita eskualdeko beste herrietan ere, isil-isilik eta profesionaltasun osoz, gizar-tearentzako ezinbesteko lana egiten duten emakumeak. Ez dira medikuak, ezta irakasleak ere. Ez dituzte ikerketa eta garapenerako proiektu erraldoiak kudeatzen.... baina horiek guztiak egin ahal izateko guztiz beharrezkoak dira. Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileez ari natzaizue. Udal guztiek azpikontratazioz kudeatzen duten zerbitzua da. Erabiltzaileek, baldintza batzuk betez gero, udaletxera jo eta berehala izaten dute etxean nagusiak edo ezinduak zaintzeko gertu dagoen emakumea.

*Ikusezinak gara* izenburupean kanpaina egiten dabilta zerbitzu horretako emakumeak azken boladan Arrasaten. Ez da erraza onartzea, baina hala sentitzen dira. Ikusezinak, gutxi baloratuak, gaizki ordainduak, eskubide gabeko langileak. Inoren etxera joan eta familia horretako eguneroko martxa eta lana ahalbideratzeko ezinbesteko jarduna egiten dute. Maitasunez eta profesionaltasunez, gainera, egin ere, horretarako burutu behar izaten baitituzte hainbat eta hainbat ikastaro.

Bizi dituzten arazoen artean lan ezegonkortasunarena da kezkagarriena. Kontratu erabiltzaileekin dute, eta, hura hil edo erresidentzian sartuz gero, akabo lana eta akabo hilabete horretako diru sarrerak. Hurrengo kontratua? Nork daki. Zaila da horrelako gorabeherekin hipoteka ordaintzea, autoa erostea, ekonomikoki bizimodu independentea eramatea.

Duintasunez lan egin eta duintasunez bizi nahi dute, baina ez da erraza. Borroka luzea egin beharko dugu oraindik beren lana behar bezala, duintasunez, errekonozitua izan dadin, inongo diskriminaziorik gabe.

Nola baloratu behar da, bada, orain arte emakumeek doan egin duten zaintza eta arreta lana?

Maribel, Elena, Karmele eutsi gogor borrokari!

**Zaila da horrelako gorabeherekin hipoteka ordaintzea, autoa erostea...**

## USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.eus

## Emakumea, baimen eske

Gizarte *berdintasunzale* honetan, oraindik harridura eta galderak pizten ditu ume bati lehenengo amaren abizena ipintzeko erabakiak. "Zergatik?", galdetzen du jendeak. Baina berdintasuna hain errotuta baldin badugu, "zergatik ez?" galdetu beharko litzatekeelakoan nago. Dena dela, nola ez harritu, lehenengo ezberdintasuna administrazioak ipintzen badu? Umeari lehenengo amaren abizena ipini nahi bazaio, agiri bat sinatu behar dute gurasoek, non esaten den *biak ados jarri direla* erabaki hori hartzeko. Beste modu batera esanda: gizonak baime-na eman behar du bere abizena bigarren jartzeko. Berdintasuna praktikara eramateko, emakumeak baimena eskatu behar du.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

### Talidomidaren hondamendia

**Josu Garitaonandia**  
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)  
Bergara

Talidomida botikak kaltetutakoen Espainiako elkartearen arabera (Avite), mundu osoan 50.000 pertsona inguru izan ziren kaltetuak.

1954an patentatu zen Espainian. Botika miragarria zen, haurdunaldiko botagurak eta ondoezak arintzen zituen.

Ume asko jaio ziren malformazioekin, eta 1961-1962 urteetan debekatu egin zuten herrialde gehienetan, frogatu eta gero Talidomidaren eta malformazioen artean zegoen lotura. Baina Espainian, betiko moduan, berandu ibili ziren, eta 1975ean oraindik ere saltzen zen botika kaltegarri hori.

Avitek eskatzen duena da Europako beste herrialde batzuetan kaltetuei eman zaien tratu bera. Hau da, kalte-ordaina, pentsio bat, mediku espezializatuak eta protesiak doan esku edo hanka

barik jaio direnentzako; laburbilduz, bizitza duina eramateko baldintzak. Espainian berandu dabilta gai horrekin, ez dute ezertxo ere ematen, eta familiak bizi dira Caritas-en edo antzeko elkarteen laguntzarekin.

### Aurkikuntza

**Aitor Biain**  
(Oñati)

Alemaniatik dator berria: arroz-ale baten tamaina izanik, 4-K teknologia duen kamera bat sortu du medikuntzako ikerlari talde batek. Horren helburua da nerbio optikoa izorratuta dutenei ikustea ahalbidetzea.

Oraingoz, ebakuntza 400.000 euro ingurukoa da, baina erakundeei eskatuko nieke ikerlari horiei laguntzeko.

Zuri-beltzean da kamera, baina etorkizun laburrean koloretan izango da. Alemaniako Altona ospitalean ari dira probatan.

Hori bai, alemanez jakin behar da, ingelesez ez dagoelako. Augenärzte Klinik Kelheim orrian duzue aukera.

### Apalaldia

**Anjel Lertxundi**  
http://goo.gl/Nl9tQj

Euskara batuak, 50 urte. Ikastolek beste hainbeste. Alfabetatze mugimenduak, halatsu. Susperraldi sekulako haren ostean izan dira lorpen berriak ere. [...]

Apalaldian gaudela zioen atzo Mikel Irizarrek, Gipuzkoako Diputazioko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak. Apalaldia uler daiteke umiltasun gisa, geure buruak ez handiestearen aldetik (psikologikoa). Uler daiteke baita beherakada moduan ere (politikoa, soziala, kulturala). Baita itsasoarena bezalako barealdi gisa ere (fisikoa). Ez dakit Irizarrek zein adiera eman nahi zion hitzari, baina euskararen inguruan detektatzen duen apalaldiaren hiru adierek sortzen dute gutxienez galdera bana: umil apatiko eta etsipen puntu batez gaude? Susperraldiaren dekadentzia bizitzen ari gara? Barealdia indar falta da, itsas zakarraren abisua, akaso?

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibako Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ulfane Madera  
**Sailletako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.850 ale  
**Difusioa:** 18.507 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## HERRIAK

## ARETXABALETA

## 100 urteren ostean, agur

- Aretxabaletako agustindar mojen elkarteak ateak itxiko ditu eta Erreenteriara joango da
- Azken meza urriaren 25ean egingo dute herritarrekin, Andre Mariaren Zeruratze parrokian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Nekane, Juana Mari, Milagros, Rosario eta Arantxa. Bataren jenioa eta bestearen garboa... Herritar askoren ezagun eta beste horrenbesteren hurbileko. Agustindar mojek 111 urte egin dituzte Aretxabaletan. Orain, baina, agur esango diete aretxabaletarrei eta debagoiendarrei. Eta ibilbide berria hasiko dute Erreenterian.

## Irteera, poliki-poliki

Bost kide daude Aretxabaletako elkartearen eta Arantxa Jaka donostiarra da gazteena. Hark ere, dagoeneko, 24 urte daramatza han. "Baina badaude 60 urte eta 70 urte egin dituztenak Aretxabaletan", dio; hortaz, erabakia ez dela "gozoa" izan onartu du: "Herritarrek, beharbada, ezustean hartu dute albistea, baina jakinik zein egoera bizi dugun, eta ez gure monasterioan bakarrik, orokorrean baizik, hartu beharreko erabakia izan da". Horren berri, baina, ez dute eman gura izan azken unera arte.

Behin erabakia hartuta, eta batez ere uda ostetik hona, hango eta hemengo kontuak lotzen dabil-tza, trasteak jasotzen, bazterrak

garbitzen eta eraman beharrekoak gertatzen. "Ez daukagu data zehatzik, poliki-poliki joango gara; batzuk hilabete bukaeran eta beste batzuk aurrerago, kontu guztiak ondo bideratuta utzi ostean". Erreenteriako komunitatearekin egingo dute bat, eta hango bost kideekin elkarte berria osatu.

## Eskolak ematen 50 urte

Urte asko egin dituzte herrian, horietako 50 inguru hezkuntza arloan. 1957an hasi ziren eskolak ematen: "Herritarrek eskatuta hasi ere, eta Elizak aukera hori eskaintzen zuen mojek bizibide duina izan zezaten", dio Arantxak; eta 2004an itxi zituzten eskolako ateak: "50 urtean aldaketa asko izan ziren. Garai batean gaueko eskolak ziren: frantsesa, gitarra, jostea... Gero, 16 urte arteko ikasketak neska eta mutilendako; gero, neskendako bakarrik... eta azken urteotan Haur Hezkuntzan jardun genuen".

## Agur-meza urriaren 25ean

Joan aurretik, baina, herritarrek agurtu gura dituzte. Eta herritarrek ere bai mojak. Urriaren 25ean, domeka, egingo dute agur-meza,



Arantxa Jaka, Aretxabaletako monasterioko lorategian. | MIRARI ALTUBE

Andre Mariaren Zeruratze parrokian, 11:30ean. "Gure eliza txiki geratuko delakoan, parrokian egingo dugu. Ordura arte, oraindik gurean esango dituzte eguneroko mezak, baina urriaren 25etik aurrera ez". Santa Ritari debozio handia diote aretxabaletarrek, eta elizan duten irudiarekin zer gertatuko den kezka dute hainbatek: "Herrian geratuko da; parrokian egingo diote lekua. Egurrarekin Miguel Igartuak eskuz eta maitasun handiarekin egindako aldarea, anboia eta sagrarioa, ostera, gurutzearekin batera, Erreenteriara eramango ditugu. Aretxabaletako zati bat eramango dugu".

## Eraikinarekin zer?

Herriaren erdi-erdian dago agustindarren monasterioa, leku ezin pribilegiatuagoan, eta horrekin zer egin negoziatzen dabil-tza. "Udalaren teitlatuan dagoela pilota orain, diot nik. Guneak kalifikazio jakina dauka eta ezin da edozer egin bat-batean"; eta gaineratu du: "Badakigu herrian hainbat behar daudela, eta guztiok irtenbide egokia topatu gura dugu. Irtenbidea guztiondako, herriarendako eta guretako, geuk ere bizi izaten segitu behar dugu eta". Alderdi politiko guztiak ados jarri eta herriarendako proiektu egokia egitea gurako lukete agustindarrek: "Jakinik zein espazio ederra den, herriarendako onena bila dezatela".

## ARANTXA JAKA | AGUSTINDAR MOJA

## "Aretxabaletarekin bizi izan dugu dena, bere hazkuntza guztia"

Ezustean hartu dute berria aretxabaletarrek, eta azken asteotan agur-mezu asko bidali dizkiete.

## Zelan hartu dute berria herritarrek?

Samin handia daukate. Erabakia ulertzen dute, baina... Astearen bertan esan dit batek: "Umezurtz uzten gaituzue". Ulertzen dut pena hori, Aretxabaletan hainbeste urte daraman elkarte izanda, herriaren erdi-erdian egon gara, gainera, fisikoki, eta baita bihotzean, otoi-tzean, beharrei erantzuten ere... Zurrumurrurik ere ez zegoen, gainera, eta derrepentean jaso dute albistea.

## Zuen ateak, gainera, beti zabalik izan dituzue...

Bai, gure etxean beti dago norbait, 24 orduetan: etxeko atea, eliza, telefonoa... beti gertu. Norbaitek hitz egin nahi badu, hemen gaudela, otoi-tz egiteko ere bai... Harremana zabalda izan da.

## Klausurakoak zarete, baina herrian ere ibiltzen zarete...

Klausura baino kontenplaziozko bizitza esatea egokiagoa dela uste dugu. Egia da itxitura batean bizi garela, normalean, gure bizitza estiloak eskatzen duelako bakar-

dadea, erretiroa eta isiltasuna; ez ihes egiten dugulako, baizik sako-nagotik bizi nahi dugulako eta horrek dinamika bat eskatzen duelako. Itxitura bat da, baina ireki-ki-egoteko herriaren bizitzari, munduaren errealtateari... Eta gestioak eta enkarguak egiteko, medikuarengana joateko irten egiten gara normaltasunez.

## Herritar askok izango dituzte gogoan zuen gaileta goxoak...

Bai, mostatxoak... Eta gero, men-brilloa, pastak... Bai, halako xehetasunak geratuko dira gogoan.

## Zer esango diezu herritarrei agurrean?

Oraindik prestatzeko daukat... Baina bai izango dela bihotzetik irten-go den zerbait. Maitasuna dago hor, pena handi bat, mina... herriarekin izan gara eta. Gure elkarteak oso herrikoak izaten dira, oso leku-koak, eta guk Aretxabaletarekin bizi izan dugu dena: herri txiki izatetik bere hazkuntza guztia. Ni naiz urte gutxien daramadana, baina beste batzuek 60 urte daramatzate, ia 70, eta hori ezin da ahaztu bat-batean. Bihotzari hitz egiten utziko diogu, maitasun handiz, eta herria gurekin etorriko da.



Bainuetxe izandako eraikina, gero agustindarren komentua. | AGUSTINDARRAK

## Bainuetxea komentu bihurtuta

Santa Apolonia egunez etorri ziren Arrasatetik Aretxabaletara agustindarrak, hamasei moja, 1904ko otsailaren 4an. Ia 400 urte egin zituzten Arrasaten; etxetxo batean lehenengo, eta gero, Zarugalde kaleko komentuan. Napoleon sartu zenean, Gasteizera joan beharra izan zuten, eta handik itzultitakoan oso egoera txarrean topatu zuten monasterioa; hortaz, Aretxabaletara jo zuten.

Oraingo Errekabarren kalean kokatutako bainuetxea erosi zuten, eta konpondu ostean etorri ziren. Egun erretiratuen egoitza dagoen lekuan egon zen monasterioa, eta orain dela 36 urte eraiki zuten egungo egoitza, Udalarekin akordioa egin eta gero.





Ordenantza fiskalen barruan, etxe hutsei aplikatzen zaien %50eko gainkargua kentzeko bozketa; EAJ eta PSE-EE alde (10) eta gainerakoak aurka (9). | J. BEREZIARTUA

# Ordenantza fiskalak eta pintaden aurkako adierazpena aurrera, gutxieneko babesarekin

- 2016rako zerga eta tasa orokorrak izoztu, eta etxe hutsen %50eko gainkargua ezabatu egingo da
- Espazio publikoa garbi mantentzeko testua ez du onartu oposizioak; gaia sakonago lantzea eskatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udal zergak eta tasa orokorrak ez dira igoko 2016an, EAJk eta PSE-EEK osatzen duten Udal Gobernuak zergak eta tasa nagusiak izoztearen alde egin zuen martitzeneko osoko bilkuran, behin behineko izaeraz. Ordenantza fiskaletan polemika eragin zuen etxebizitza erabilera duten ondasunak ohiko egoitza ez direnean orain arte aplikatzen zitzaien %50eko gainkargua kentzeko erabakiak. EAJren arabera, aurreko Udal gobernuak ezarritako neurri horrek ez zituen helburuak bete: "Gaia aztertuta eta datuak mahai gainean izanda, argi eta garbi ikusi da helburuak ez direla bete. Alokairua modu positibo baten sustatu behar da, eta ez zigorraren bidez zerga bat ekiditeko asmoz. Hausnarketa egingo dugu eta datoren urterako irtenbideren bat planteatuko dugu", esan zuen Maria Ubarretxena alkateak.

EH Bilduko bozeramaile Eneko Barberenaren ustez "atzera-pausoa" da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren barruan etxe hutsen errekarua ezabatu izana: "Politika fiskal aurrerakoa defendatzen dugu, ezberdintasun soziali aurre egingo dieten ordenantzak. Etxe hutsen errekaruak emaitzak eman dituela uste dugu eta bi urte eta erdiko epea ez da nahikoa halako arau baten bila-kaera neurtzeko. Gipuzkoako 52 herritan dago indarrean errekaru hau, Eibar edota Hondarribia kasu, eta uste dugu alokairua eta etxebizitzarako eskubidea ahalbidetzeko neurri proposa dela".

Baleikek ere errekarua mantentzearen alde egin zuen eta Udal gobernuaren proposamenari hainbat emendakin aurkeztu zizkion, tasa eta zerga batzuei aldatetarako proposatuz, baina emendakin horietako bat bera ere ez zen onartu. Hala ere, Baleikeko zinegotzi Igor Urizarrek aitortu zuen ez zutela sorpresa handirik eraman: "Hasieratik horrela kudeatu dute gobernuak, eta hala jarraitzeko asmoa dutela ikusten dugu, inori entzun barik eta euren jarrerak eta neurriak inposatuz". Irabazi koalizioko Juan Luis Merinok ere salatu zuen gobernuaren jarrera: "Ordenantza fiskalen bozketan argi ikusi da udalbatza bi zatitan banatuta dagoela, ia %50era. Tasa eta zerga nagusiak izoztearen alde geunden baina etxe hutsen errekarua ezabatzearen kontra; horri bi emendakin aurkeztu dizkiogu, eta guztira lau. Ez dute horietako bat bera ere aintzat hartu".

## Pintaden auzian ere polemika

Bestalde, osoko bilkuran eztaba-ida piztu zuen beste gaietako bat izan zen pintaden auzia. EAJren adierazpen instituzional proposamenak PSE-EEren babesa jaso zuen bakarrik. EAJren arabera, azken asteetan pintadak garbitzen 10.000 eurotik gora xahutu ditu Udalak, eta azpimarratu zuen adierazpen askatasunaren alde daudela, betiere, espazio publikoak errespetatzen badira: "Gastuari baino gehiago herria zaintzeari ematen diot garrantzia. Gure herria da, gure ondarea, eta zaindu egin behar dugu. Norberak etxean

## ESANAK

**"Alokairua positiboki sustatu behar da, ez zigorraren bidez eta zerga bat ekiditeko"**

MARIA UBARRETXENA | ALKATEA

**"Etxebizitzarako eskubiderako neurri aproposa da errekarua"**

ENKO BARBERENA | EH BILDU

**"Pintadak garbitzen gastatutako 10.000 euroekin hainbat lan gauza daitezke"**

OSCAR GARCIA | PSE-EE

**"Inori entzun barik eta euren neurriak inposatuz ari dira gobernuak kudeatzen"**

IGOR URIZAR | BALEIKE

**"Ordenantzetarako gure emendakin bat bera ere ez dute aintzat hartu"**

JUAN LUIS MERINO | IRABAZI

egiten ez duena ez luke bere herrian egin behar", uste du Ubarretxenak. EH Bildu, ordea, ez dago ados prozedurarekin eta eztabaidaren "kalitate zein sakonerarekin". Eztabaida "hobea" eskatu zuen Barberenak: "Ondarearen alde egon gara beti baina gai sakonak daude jokoan: ondarea bera, adierazpen askatasuna, baliabide eta espazio publikoen erabilera...". Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA) batzordeko buru Oscar Garciak (PSE-EE) "konpromisoa" hartu zuen pintada guztiak garbitzeko: "Minimoetan oinarritutako adierazpena onartu nahi genuen baina ez da posible izan. Arrasate pintadarik gabeko udal-territorioa lortu behar dugu eta horretarako dei egiten diet herritarrei horien berri emateko. Pintadak garbitzen gastatutako 10.000 euroekin hainbat gauza egin daitezke, sekulako dirutza da".

## Pasealekuaren egoeraz

Bilkuraren amaieran, galdera eta eskaeren tartean, Barberenak Arrasate pasealekuaren gainean galdetu zion alkateari: "Promesa elektoral bat betetzeko era arin eta txarrean ireki zen bide bat urriaren 5ean", esan zuen. Ubarretxenak erantzun zion argudiatuz urriaren 7an berriro itxi behar izan zela segurtasuna "%100ean" bermatzeko. Behin betiko irekiera datarik ez dagoela gaineratu zuen alkateak: "Hirigintza Saila obra gertutik ari da jarraitzen, eta gutxi gorabeherako epe bat badugu, baina guztiz ziurra izan arte ez dugu aditzera emango".

## OHARRAK

### 1942AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an egingo dute ospakizuna. Interesatuak, urtero moduan, Mari Karmenengana jo beharko dute.

### 1956AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an irteera egingo dute Villabuenara (Araba). Izena emateko, izen-abizenak jarri kontzeptu moduan kontu korronte zenbaki honetan: 30305 0202 77 202104550 (60 euro).

### 1958AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an Herriko Plazan (11:15) edo Harresi aretoan (11:30) elkartuko dira. Harresitik irtengo da bisita gidatua alde zaharrean zehar eta gero txikiteoa egingo dute. Erreka jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0001 59 0011144438.

### 1962AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an elkartuko dira. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korronte zenbaki honetan, izen-abizenak jarrita kontzeptu moduan: 3035 0001 51 0010123638. Harremanetarako: 647 67 55 01 ( Luis Mari), 620 73 95 51 (Jesus) edo [rebeca.garval@hotmail.com](mailto:rebeca.garval@hotmail.com).

### 1967AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an afaria egingo dute Aldape jatetxean (batzokia). Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korronte zenbaki honetan: 2100 1972 01 0200134059.

### 1969AN JAIOTAKOAK

Urriaren 31n Herriko Plazan elkartuko dira (12:30). Izena emateko, izen-abizenak jarri kontzeptu moduan honako kontu korronte zenbaki honetan, 50 euro ordainduta: 2100 1972 0002 00145316. Urriaren 25an itxiko da izen-ematea.

### 1973AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 21ean egingo dute bazkaria Bergarako Tartufo jatetxean. Izena emateko 50 euroko ordainketa egin honako kontu korronte zenbaki honetan, azaroaren 15a baino lehen: 3035 0001 54 0010131783. Izen-abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan.



Muxibar eta Arbolapeta arteko zatian hainbat lan aurreikusten dira. | J.B.

# Otalora berriro urbanizatu nahi dute

Arbolapeta eta Muxibar arteko tarterako proiektua idaztea esleitu du Udalak

J.B. | ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kaleko Arbolapeta eta Muxibarko birlilgune arteko zatia berriro urbanizatzeko proiektua martxan jarri du Udalak, proiektu hori idaztea esleitu dio eta Bidein enpresari. Ia 25.400 euroko aurrekontua du esleipen akordioak eta lan horren helburu nagusia da konponbide urbanistikoa ematea ibilgailuen

zein oinezkoen aldetik oso erabilia den zati horri. Udalak finkatu dituen oinarrien artean daude, besteak beste, oinezkoendako baldintzak hobetzea -bereziki Santa Barbara parkearen aldeko zatian-, Arimazubi-Maala arteko bidegorri zatia integratzea eta puntu batzuetan Aramaio erreka agerian uztea. Oraindik, baina, ez dago ezer zehaztuta.

## Eperik ez exekuziorako

Hasteko, Udalak espero du urtea amaitu aurretik aurkeztea zati horretarako aukera urbanistikoa. Gero, parte-hartze prozesu bat abiatuko du, eta, behin garatutako den proiektua zehaztuta, jendarean jarriko dute, alegazioetarako. Ez dago eperik eta ikusteko dago 2016ko aurrekontuetan gaia-ri emango zaion lehentasuna.







## Gaur hasi eta astelehenera bitartean 'Amama' filma ikusteko lau aukera izango dira Amaia antzokian

Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararraren *Amama* filma ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko. Lau txanda izango ditu Altunaren lan txalotuak Amaia antzokian: gaur -20:30ean-, bihar -19:30ean eta 22:00etan- eta astelehenean, hilak 19 -20:30ean-. Sarrerak Udalaren webgunean ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta Kutxa-banken erosi ahalko dira aurrez, bost eurotan; asteleheneko emanaldiaren prezioa lau euro izango da -prezio horietan ez dira kudeaketa gastuak sartzen-. Udaleko Kultura Sailak aditzera eman duenez, gaurko emanaldian Asier Altuna bera egongo da Amaia antzokian filmaren gainean berba egiteko, eta kazetari bat arituko da moderatzaile lanetan. Ikusleek zuzendariari galderak egiteko aukera izango dute.



*Amama* filmeko amama, Amparo Badiola. | GOIENA

## Dagoeneko eman daiteke izena Portaloi elkarteak antolatatu duen dantza-jauzien oinarritzko ikastaroan

Portaloi elkarteak dantza-jauzien oinarritzko ikastaroa antolatatu du. Azaroaren 2an hasi eta maiatza bitartean, jauziak dantzatzeko sistema eta urratsak erakutsiko dituzte. Eta, jauziekin batera, gaur egungo dantzaldietan ohikoak diren beste dantza batzuk ere irakatsiko dituzte. Astelehenean elkartuko dira, Zerrajerako erlojuaren eraikinean, 18:00etatik 19:30era. Izena eman daiteke AEDn edo 943 79 84 76 telefono zenbakira deituta.



Nola belztu behar zuria emanaldia; domekan, Jai Zalen (19:00). | AZKUE FUNDATZIOA

## Kultura barra-barra aste bukaeran Jai Zale tabernan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale tabernan ez da aspertzeko astirik izango, bereziki, aste bukaera honetan. Izan ere, urrirako antolatatu duten egitarauaren barruan, oraingoa izango da aste bukaerarik mugituena. Gaur, egubakoitza, Ermuko Puto Amoak Matematikan taldearen kontzertua ikusi ahal da (18:30). Bihar, zapatua, The Franky's Verrater taldeak giro-tuko du arratsaldea (17:30).

### Bide Ertzean, beste era batera

Etzi, domeka, egitarauko kartelean jasota ez badago ere, Bide Ertzean talde ezagunaz gozatzeko

aukera egongo da (19:00); hori bai, beste era batera. Joxan Artze-ren *Heriotzaren ataria dugu bizitza* eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* izeneko poesia liburuetako poemak oinarri hartuta, poesia eta musika emanaldia sortu dute Bide Ertzean taldekoek eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillan eta Asier Sarasola deklamatzailak: zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeit inguru errezitatuko dituzte.

Urriko ekintzak ez dira aste bukaerara mugatzen; hilaren 21ean, esaterako, *Zamorako Landan* liburuaren tertulia izango dute Jon Etxaberen eta Eneko Barberenaren eskutik (19:00).

## Euskarazko literatura solasaldietan parte hartzeko aukera dago

Udal Bibliotekak urtero antolatzen dituen literatura solasaldien barruan, aukera dago euskarazkoetan izena emateko; gaztelaniazkoetan kopurua beteta dago. Urtea amaitu aurretik euskarazko hiru saio egingo dituzte: Mo Yan idazlearen *Hori da umorea, maisu!* (urriak 28), Elena Ferranteren *Adiskide paregabea* (azaroak 18) eta Jule Goikoetxearen *Tractatus* (abenduak 17) obrak izango dituzte aztergai. Saioak 18:15etik 20:15era izango dira. Izena emateko: 943 25 20 28.

## Zaldibarko Areto Futbol Txapelketarako laguntza behar dute

Zaldibarko Areto Futbol Txapelketa beste urtebetez antolatzeko asmoa dute orain arte antolakuntzan aritu diren kideek. Hala ere, 54. ediziorako hiru edo lau pertsonaren laguntza behar dutela jakinarazi dute: "Batez ere, partiduak zaintzeko, goiz bat izango litzateke hilero". Interesatuak [zaldibarkofutboltxapelketa@gmail.com](mailto:zaldibarkofutboltxapelketa@gmail.com) helbidera idatzi beharko dute. "Laster" emango dute izen-ematerako epearen berri: "Animatu taldea sortu eta parte hartzeko", diote.

# III. BLOKEA DAGOENENKO SALGAI

## 24 ETXEBIZITZA

**GELMA**  
etxebizitzak

**70 M<sup>2</sup>**  
erabilgarri

**ETXEBIZITZA HANDIAK**

**95 M<sup>2</sup>**  
erabilgarri

**Lehenengo 12 etxebizitzek garajea barne**

Garaje itxi eta motordunak

**ETXEBIZITZAK NAHI ERAN**

Aukeratu etxearen distribuzioa\*

**2 logela 198.000 €-tik + BEZa**

**3 logela 254.000 €-tik + BEZa**

\*Aukeraturako distribuzioa indarrean dagoen araudia eta instalakuntza orokorren kokapena errespetatuz egingo da.



# Hondakinen bilketaren gainean galdeketa egitea erabaki du EAJk

Irabazi eta herrian Arrasateko eredia ezartzeko jeltzaleen proposamena baztertu zuen EH Bildu ados agertu dira; ez, ordea, Alderdi Sozialista

**JULEN IRIONDO | BERGARA**  
EAJko beste bost hautetsi aldamenen zituela iragarri zuen Juanje Alberdi alkateak urtea amaitu aurretik egin nahi dutela kontsulta, herrian hondakinak nola bildu erabakitzeko, herritarrek sistema aldatzea erabakiko balute, aldaketa 2016ko lehen hiru hilabeteetan gauzatzeko. Galdera zehazteko lanetan datozen egunetan hasiko direla iragarri zuen.

Alkateak baieztatu zuen hondakinen auzia konpontzeko Arrasateko eredian oinarritutako akordioa eskaini ziola EAJk EH Bilduri –Bergararen eta Arrasateren arteko aldea da, gaur egun, errefusa eta organikoa atez ate beharrean txipdun edukiontzietan jasotzen dituztela–. EH Bilduk, ordea, ezetz erantzun zion EAJren proposamenari, gaiak herrian eragindako "gatazka-maila" kontuan hartuta, alderdiek ez, erabakia herritarrek hartu beharko luketela iritzita.

Alkateak azaldu zuen euren nahia zela udalbatzako alderdiak ados jartzea, hala agertzea herritarren aurrean, eta hondakinen gaian "batera" aurrera egitea, eta ez, "berriz ere", eztabaida kalera eramatea. Baina, eta EH Bilduren erantzuna izan zena izanda, "betiko eztabaida" berriro kaleratuko dela adierazi zuen.

**EH Bilduri kritika**  
EH Bilduren adostasunerako borondaterik eza kritikatu, eta Alberdik baieztatu zuen EAJk koalizioari jakinarazi ziola akordiorik ezean galdeketa antolatuko zuela. "Sorpresa" agertu zuen



EAJko zinegotziek eguaztenean udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako agerraldia. | JULEN IRIONDO

"orain" EH Bildu azaltzeagatik galdeketa aldea: "Garbi dugu bergarar guztiek aurreko agintaldian zenbat aldiz, bai kalean bai areto honetan, eskatu zitzaion EH Bildukoei galdeketa bat egitea, eta inoiz ez dute erakutsi inongo asmorik gai horretan", zioen.

Galdeketa egitea erabaki du, beraz, EAJk, nahiz eta euren hauteskunde programan bosgarren edukiontzia aldea hau-tua jasoa eduki eta jakitun izan

beste galdeketa bat egin zela lehenago, Bergara Garbiak deitutakoa, eta bosgarren edukiontzia aldea emaitza atera zela: "Gure programan beti egon da bosgarren edukiontzia; inoiz ez dugu esan galdeketa ez genuenik egingo edo egingo genuenik. Zergatik? Horregatik, nahi genuelako adostasun batera heltzea. Zer gertatzen da? Egin ahalko litzatekeen irakurketa izango litzatekeela: 'EH Bildukoek jarri

zuten atez atekoa beraiek nahi zutelako, eta EAJkoek jarri dute bosgarren edukiontzia beraiek nahi dutelako'. Nahi duguna da eztabaida hori, behin betiko, alde batera uztea, eta argi gera dadila zer nahi duen herriak. Eta ez daitezela izan EH Bilduren eredia eta EAJren eredia, baizik eta herriak nahi duena. Eta ez, hemen-dik lau urtera Gobernuan beste batzuk badaude, berriz ere eztabaida berean hastea", zioen alka-

teak. Agerraldian argi utzi zuen EAJk, berriro, bere hautua bosgarren edukiontzia dela, herritarren heziketa eta kontzientzia-zioarekin "sistemarik eraginkorrena" delako, atez atekoak besteko emaitzak "edo hobeak" eman ditzakeena, "Elgetan eta Arrasaten ikusi den moduan". Horrez gain, Mankomunitatera iristearekin egiaztatu ahal izan ei dute "bosgarren edukiontzia merkeagoa" dela eta sistema aldataren inbertsioa urtebetean amortizatuko litzatekeela.

**Gainerako alderdien iritzia**  
EH Bilduk begi onez ikusten du galdeketa egitea. Eztabaida amaitzeko "modurik onena" dela zioen Agurne Barrusok: "Uste dugu bergararrek zigortu zutela egungo sistema ezartzeko modua, ez sistema bera". "Autokritika" egin zutela, baina, gainera, orain herritarrek ezagupen maila handiagoa dutela zioen, eta "galdeketa prozesua Gobernuarekin adosteko prest" daudela.

Irabazirentzat, "oso notizia ona da" erabakia; hori bai, eskatu du "galdera eta kontsulta hori den artean adostea, ez soilik alderdien artean"; eragileen parte-hartzerako aukera aldarrikatu du Aiert Lizarralde. EAJren Gobernu sozio den Alderdi Sozialistari, aldiz, ez zaio erabakia gustatu, Gobernu alderdiek euren programetan bosgarren edukiontzia jasota edukita eta aurrez galdeketa bat egin zela kontuan izanda: "Bilduk ez zuen nahi izan orduan; orain ez zegoen haien nahietara zertan makurtu", zioen PSE-EEko zinegotzi Mari Carmen Barrenetxeak.

## ESANAK

**"Nahi duguna da eztabaida hori behin betiko alboratzea"**

JUANJE ALBERDI | ALKATEA

**"Prozesua Gobernuarekin adosteko prest gaude"**

AGURNE BARRUSO | EH BILDU

**"Galdera den artean ados dadila, ez soilik alderdiek"**

AIERT LIZARRALDE | IRABAZI

**"Orain ez zegoen Bilduren nahietara zertan makurtu"**

M.C. BARRENETXEA | PSE-EE

## PSE-EE gustura Gobernuaren lehen 100 egunekin

**J.I. | BERGARA**  
Desadostasunak desadostasun –galdeketa gainea–, positiboki baloratu du PSE-EEk Udal Gobernuan duen parte-hartzea, eta baita Gobernuaren lana bera.

Mari Carmen Barrenetxea zinegotziak adierazi du gainerako alderdi guztiekin ari direla adostasunetara iristeko ahaleginetan, eta dagoeneko ez dagoela krispazio klimarik.

Gizarte Zerbitzuetako buru gisa, 100 egun hauetan gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntzeko egindako lana ere nabarmendu du Barrenetxeak.

## Alvarezek jaso du Eusko Ikaskuntza saria

**J.I. | BERGARA**  
Bergarako UNEDen zuzendari ohi Juanjo Alvarezek jaso zuen martitzenean Eusko Ikaskuntzaren Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien saria. Donostiako Miramar jauregian egin zen ekitaldia, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Ana Olló Nafarroako Gobernu bozeramailea bertan zirela. Laboral Kutxaren –babeslea– zuzendari Txomin Gartzia eman zion saria Alvarezri.

Juanjo Alvarez Rubio (Zumaia, 1964) legelari eta Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna 11 urtez izan zen UNEDen zuzendaria. Euskal Herriko unibertsitate guztiak batu eta *on line* bidezko euskal unibertsitate birtuala osatzea proposatu zuen Alvarezek saria jasotzerakoan.



Alvarez, erdian, Laboral Kutxako zuzendariarekin eta Urkullurekin. | IREKIA

**Bergaran, Goienagusirekin**  
Hain justu ere, Juanjo Alvarezek bi hitzaldi egingo ditu Bergaran Goienagusiren eskutik. Lehena astelehenean izango da: *El derecho*

*vasco*; bigarrena, hilaren 26an: *La familia y Europa*. Biak izango dira 10:00etan, udaletxean. Hitzaldiak irekiak dira, interesa duen edonorentzat.


## OHARRAK

**1959AN JAIOTAKOAK**  
1959an jaiotakoek urriaren 24an egingo dute afaria, Tartufon. Ordainketa Euskadiko Kutxan egin behar da–30 euro; azken eguna, urriaren 20a–: 30350189381891039704. Irteera 21:00etan izango da, azokako plazako geltokian.

**HITZALDIA: ANDROID**  
Android sistema eragileari buruzko hitzaldia egongo da hilaren 20an Irizar jauregian, 18:00etan. KZguneak antolatutakoa da.

**PRESOEN ALDEKO ELOSUKO ZOZKETA**  
Zenbaki saritua: 4.794. Ordezkoa: 2.285. Saridunak deitzeko zenbakia: 626 58 05 16. Hamabost eguneko epea dago.





# UDAZKEN-NEGUKO MODA ETA DISEINU BERRIEN DESFILEA

Urriaren 17an, 22:00etan, Bergarako Udal Pilotalekuan

## PARTE HARTZAILEAK:

**alga**

**ALGA**  
lurrindegia

Ibargarai hiribidea 10  
943 76 00 85

**AMPARO LARRAÑAGA**  
**MAIDER AZKARATE**

**AMPARO**  
Ile apaindegia

Boni Laskurain pasealekua  
943 76 56 05

**amua.**

**AMUA**  
Jantzi denda

Ibargarai 2  
943 54 00 68

**Anezka**

**ANEZKA**  
Jantzi denda

Espoloia 8  
943 76 59 25

**Annika**

**ANNIKA**  
Jantzi denda

Herrilagunak 6  
943 25 31 08

**BEGO & MARIJE**  
ileapaindegia

**BEGO & MARIJE**  
ile apaindegia

Telesforo Aranzadi z/g  
943 25 37 29

**BITAN**

**BITAN**  
Lentzeria / Mertzeria

Ibargarai 8  
943 76 54 73

**BOLINTXO**

**BOLINTXO**  
Kirol denda

Ibargarai 10  
943 76 38 32

**GALARRETA**

**GALARRETA**  
Oinetako denda

Irizar pasealekua 2  
943 76 12 39

**GIARTZU**

**GIARTZU**  
Estetika zentroa

Boni Laskurain pasealekua  
943763571

**Igaro**

**IGARO**  
Lurrindegia

Barrenkalea 35  
943 76 17 27

**IGARZA**

**IGARZA**  
Lentzeria

Domingo Irala 5  
943 76 24 88

**INSTITUTO OPTICO**  
optico auditivo

**INSTITUTO OPTICO**  
Optika / Entzumena

Bidekurutzeta kalea 10  
943 76 97 03

**JAUJA KIROLAK**

**JAUJA**  
Kirol denda

Irizar pasealekua 1 behe  
943 76 14 95

**Jean Louis David**

**JEAN LOUIS DAVID**  
ile apaindegia

Ibargarai hiribidea 43  
943 76 22 48

**Jo'Ka**

**JOKA**  
Jantzi denda

Domingo Irala kalea 5 behe  
943 53 46 16

**Jolas**  
Zorionak

**JOLAS**  
Jantzi denda

Barrenkalea 27  
943 76 46 48

**KB PHOTOESTUDIO**

**KB PHOTOESTUDIO**  
Argazki denda

Barrenkalea 35  
943 76 24 12

**keixa**  
ileapaindegia

**KEIXA**  
Ile apaindegia

San Lorentzo 21  
943 53 24 52

**KILIKA**

**KILIKA**  
Jantzi denda

Barrenkalea 18  
943 76 34 08

**Laket**  
Bergara

**LAKET**  
Jantzi denda

Domingo Irala 5  
943 76 32 20

**LONBIDE**  
OINETAKOAK

**LONBIDE**  
Oinetako denda

Bidekurutzeta kalea 5  
943 76 10 57

**MAKA**  
oinetakoak

**MAKA**  
Oinetako denda

Ibargarai hiribidea 8  
943 08 28 68

**Optica P. MANSO**  
OPTICOS OPTOMETRISTAS

**MANSO**  
Optika

Irizar pasealekua 2  
943 76 27 86

**Miluk**  
ile apaindegia

**MILUK**  
Ile apaindegia

Osintxu auzoa 13  
943 76 51 82

**Mirari**

**MIRARI**  
jantzi denda

Ibargarai 14  
943 76 23 93

**Sastreria**  
Mujika

**MUJIK SASTRERIA**  
Jantzi denda

Barrenkalea 1  
943 76 29 91

**NINIK**  
LORADENDA

**NINIK**  
Loradenda

Ramon Maria Lili kalea 8  
943 76 10 01

**Sanchez**  
ile apaindegia

**SANCHEZ**  
Ile apaindegia

Fraizkozuri 4, behe  
943 76 23 70

**SUBIJAI**  
2 eta 3. urte bitarteko neska-mutilentzat serbizi

**SUBIJAI**  
Umeendako jantzi denda

Irizar pasealekua 1  
943 76 42 41

**Sugoi**

**SUGOI**  
Bazarra

Fraizkozuri 6  
943 76 59 54

**XAMARTIN**  
KIROLAK

**XAMARTIN**  
Kirol denda

Ibargarai 20, behe  
943 76 59 29

**XUXU**

**XUXU**  
Jantzi denda

San Pedro 14 behe  
943 76 07 55

**ZubiKua**

**ZUBIKUA**  
Jantzi denda

Barrenkalea 24  
943 76 10 16

## ANTOLATZAILEAK:



**Bergara**  
Bizi



HERRIKO KOMERTZIOAK

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

## LAGUNTZAILEAK:

**PERTSONA HELBURU**

**EUSKO JAURLARITZA**  
EKONOMIAREN GARAPEN ETA  
LEHIAKORTASUN SAILA



**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



# Merkatarien eta diseinatzaileen produktuak eta lana, pasarelara

- Bihar gauean izango da Bergara Bizi ekimenaren desfilea, frontoian
- San Martin plazan egitekoa zen arren, aldatu egin dute, eguraldiagatik

JULEN IRIONDO | BERGARA

Iritsi da. Bihar –zapatua– gaueko hamarretan izango da Bedelkarrak eta Bergara Bizik –Udalaren, Jaurilaritzaren eta Goienaren laguntzarekin– antolatutako Udazken-neguko Moda eta Diseinu Berrien Desfilea. Azken prestakizunetan ibili dira aste osoan –zenbait, plazatik frontoirako aldaketak eragindako egokitzenak–, eta desfilean parte hartuko duten herriko 34 komertzioen eta haien produktuak eta lana erakutsiz aterako diren modeloen –116 denera– txanda da orain; baita desfilearen bigarren edizio honetan eurek egindako arropak aurkeztuko dituzten herriko hiru diseinatzaileena ere.

Hori da, hain justu, aurtengo nobedade nagusietakoa: Iraide Birumbrasek, Itziar Martinezek eta Eli Gallastegik lanean jardun dute hainbat astez Anezka akademian –bertako Ana Parrarekin–, eta lan horren emaitza ikusteko aukera ere izango da bihar. Ez bakarrik ikusi; epaimahai batek lanik gustukoena aukeratuko du, eta 200 euroko saria egongo da irabazlearentzat.

Bestela, aurtengo beste berrikuntza da komertzio bakoitzak, bakarka, bere tartea izango duela pasarelan. Iaz, modelo batek aldi berean denda bateko arropak eta beste bateko zapatak eraman zitzakeen, adibidez; oraingoan, berriz, aldiro gauza bakarrari jarri beharko zaio arreta. Ondorengoak dira desfilean parte hartuko duten komertzioak: Amua, Anezka, Annika, Jo'Ka, Jolas, Kilika, Laket, Mirari, Mujika Sastreria, Xuxu eta Zubikua jan-



Modeloak pasarelan eta herritarrak adi iazko moda desfilean, San Martin plazan. | IMANOL SORIANO

tzi dendak; Subijai, umeentzako jantzi denda; Alga eta Igaro lurrindegiak; Amparo, Bego & Marije, Jean Louis David, Keixa, Miluk eta Sanchez ile apaindegia; Bitan eta Igarza lentzeriak –iaz ez zen lentzeriarik egon–; Bolintxo, Jauja eta Xamartin kirol dendak; Galarreta, Lonbide eta Maka oinetako dendak; Giartzu estetikazentroat; Instituto Optico eta Manso optikak; KB Photoestudio argazki denda; Ninika loradenda; eta Sugoi bazarra.

Arropei eta aurtengo tendentziei buruz, desfilearen antolakuntzan ibili den Zubikua dendako Eurne Gallastegik dio aurtengo udazken eta neguko denboraldian kolore ilunak era-

mango direla: "Beltza, grisa, granatea asko dago, berdea ere piska bat bai... Neoprenoa sartu da asko, eta plumiferoak, berokiak, kapak, pontxoak...".

Desfileak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du, eta musika eta argiz girotutako modeloen joan-etorriei gain, Camden Town dantza akademiaren saio-txoa ere izango du.

## Argazki lehiaketa

Bestetik, argazki lehiaketa ere antolatu dute aurten: *#BergaraBizi* traola erabiliz Twitterrean eta Instagramera desfileko argazkiak igo ahal izango dira; argazkiak *Goiena.eus* atariko *Bergara bizi* blogean argitaratu-

ko dira, eta bertara sartzen direnek argazkirik gustukoena aukeratu ahal izango dute. 50 euroko saria izango du irabazleak, Udalak emandakoa. Lehiaketarako epeak dira urriaren 21a argazkiak sare sozialetara igotzeko eta urriaren 26a botoa emateko.

## Desfilea Goiena telebistan

Bergarako Udazken-neguko Moda eta Diseinu Berrien Desfilea datorren eguaztenean, hilak 21, emango du Goiena telebistak, oso-osorik, 22:00etan. Horrez gain, frontoian bertan kokatuko dituzten bi pantaila handitan zuzenean emango dute, ikusleak xehetasunez ere jabe daitezen lagungarri izan dadin.



EDURNE GALLASTEGI  
ZUBIKUA JANTZI DENDA

## "Entretenigarria izango da oso; azkenean, jende ezaguna aterako da"

Momentua iristeko deseatzten daude desfilearen antolaketan ibili diren denak, prestatutakoa gauzatuta ikusteko.

## Lan asko dago honen guztia atzean?

Bai; ikusten ez den lan asko: batzar pila bat, modeloen kontua ondo lotu, zalantzak argitu...; ordu asko, telefono dei asko. Baina dena lotu dugu, borondate onari esker.

## Orain, emaitza eman dezala egiten duzuen lanak...

Bai. Nik uste dut emaitzak badatozela. Detalle bat da, baina aurreko baten kalean entzun nion ama bati umeari esaten Eibarrera–edo joan beharko zutela zapatilak erostera; umeak erantzun zion lehenengo herrian begiratu behar zutela. Kostako da, ez da berehalako gauza ohitura horiek aldatzea, baina lan honek emango ditu fruituak.

## Moda, arropa kontuak... askorik jarraitzen ez dituen jendea ere espero duzue desfilean?

Bai. Oso entretenigarria izango da. Azkenean, jende ezaguna da, gertuko gauza bat da. Laguna, neskalaguna, semea edo kuadrillakoa... Gazte asko aterako dira.

## Hasi dira 'Bergara Chef' grabatzen

Astean egin dute Bergara Biziren barruan antolatutako sukaldaritza lehiaketaren aurreneko saioa. Goiena telebistak grabatu egingo ditu guztiak, eta azaroaren 18tik aurrera ikusi ahal izango dira. Lehiaketako finala azaroaren 14an jokatu da, Goriako elkartearen. Ikusleek botoa emanaz parte hartzeko aukera izango dute.



GOIENA

## Erreka garbitzeko deia hurrengo domekarako

KOMUNITATEA GOIENA | BERGARA  
ERREKA GARBITZEKO BATZORDEA

Hirugarren urtez jarraian egingo da ekimena, oraingoan hilaren 25ean, Udalaren laguntzarekin. Epeletik Osintxurainoko zatia garbitzea da asmoa. Gaztetxean, Udaltzaingoan eta Agorrosinen eman daiteke izena, edo posta elektronikoz *errekagarbitzeko@gmail.com* helbidera idatziz. 08:30etik 13:30era izango da garbiketara, eta ondoren jana eta edana egongo da. Deba ibaiaren ibilbidea kontuan hartuta, jende askoren beharra dago: animatu zaitezte.

## Sare sozialen gaineko hitzaldia, gurasoentzat

J.I. | BERGARA

Hilaren 22an izango da, egue-na, 18:00etan, Irizar jauregian, eta euskaraz. Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak antolatu du, eta *Sare sozialen erabileraren abantailak eta desabantailak* izango du izenburua. Etxadiko kideek emango dute, Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten profesionalek, alegia. Hain justu ere, Udalak gogorarazi nahi du zerbitzu hori martxan dagoela 0 eta 19 urte arteko kideak dituzten familientzako. Informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematen ditu.



# Bergarako kaleak kulturaz beteko dira domeka honetan

'Kultura kalean' ekimena egingo dute herriko elkarten eskaintza erakusteko

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Aurtengoa hirugarren edizioa izango du Bergarako *Kultura kalean* ekimenak. Udala da egitasmoaren antolatzailea, eta helburua herriko kultura elkarteak eta haien eskaintza kalera atera eta herritarrei erakustea da.

11:30ean hasiko dira ekintzak, Fraiskozuri plazan –egitaraua argazkiaren aspian ikusgai–, eta iluntzera arte hainbat kultura ekintza izango dira Fraiskozurin bertan zein Musika eskolan, San Martin plazan, Irala kalean edota Udal Pilotalekuan. 19:30eko kantu jira herrikoia erekin bukatuko da aurtengo *Kultura kalean* eguna.

Taila, marrazketa, musika, dantza... denetarik izango da domekan Bergarako erdigunean.

## Udal Bandaren kontzertua

Eguerdian, 12:30ean, Bergarako Udal Bandak kontzertua eskainiko du frontoian. Ordu bete iraungo du, eta sarrera doan da.

Kontzertu horretan, Udal Bandak Usandizaga, Schoonenbeek, Yeo eta De Haan konpositoreen obra bana eskainiko ditu, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean.



Erraldoi konpartsa gertutik ezagutzeko aukera izango da. | GOIENA

## EGITARAUA

### 11:30 Fraiskozurin:

- Taila eta zeramika tailerra
- Erraldoi konpartsaren ate irekiak, .

- Stoltz-Freres organoari buruzko informazio mahaia

- BEARTen Sketch saioa

**12:00** Instrumentuak ikusi eta probatzeko aukera (Musika eskola) eta Musioka jokoak.

### 12:00 Udal Bandaren kontzertua

**13:15** Bergarako Tronpa taldearen kontzertua Iralan

**13:30** Alai taldearen kalejira

**17:00** Bisita gidatua Bergaran

**18:30** Kontzertua San Martin plazan: San Joxepe, Aritzeta, Bergarako Orfeoia, Orfeoi Gaztea eta Orkestra Sinfonikoa

**19:00** Trikitilari eta dantzariak  
**19:30** Kantu jira herrikoia

## Gipuzkoako pilota txapelketako partidua gaur Udal Pilotalekuan

19:15ean hasiko dira partidua, gazteenetatik zaharretara. Alebin, infantil eta kadete mailetan binakako partidua izango dira, eta nagusietan, berriz, banakakoak. Alebinen kategorian Bergarako eta Aretxabaletako bikoteak arituko dira aurrez aurre, hiru partidua guztira. Infantilek legazpiarren kontra jokatu dute, eta kadeteek, berriz, Andoaingoen aurka. Azkenik, nagusietan Eneko Muguruza arituko da Oiartzunen aurka.

## Ipuin kontalaria izango dute gaur Angiozarko Arbiaskan

Amaia Arriaran ipuin kontalaria Arbiaska aretoan izango da gaur, 17:30ean. *DO-RE-MI, golkua bete ipuin* saioa eskainiko du lehenik, 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa; irudimenez jolasteko aukera izango dute bertan umeei. 19:30ean, berriz, 12 urtetik gorakoentzako beste saio bat egingo du, *Adimena zorrozteko ipuinak* izenekoak. Krisi egoeretatik ihes egiten saiatzen diren pertsonaien istorioak izango ditu hizpide.

## Stoltz-Freres Organoaren Lagunek Bergaratik kanpo ere antolatuko dituzte kontzertu eta ekimenak

San Pedro parrokiako instrumentuaren mantenua bermatzeko ahalik eta diru gehien lortu nahi dute

M.T. | BERGARA

2014an sortu zuten Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunak Elkarteak. Talde horren helburua nagusia da San Pedro parrokiaren dagoen organoari balioa aitortzea eta hura babestu eta ezagutzera ematea.

Hori lortzeko asmoz, urtean zehar dirua biltzeko hainbat kontzertu eta ekimen landu dituzte elkarteak kideek. Orain, berriz, egutegi berria kaleratuko dute aurki, kontzertu gehiagorekin, eta egitasmoa Bergaratik kanpora ere zabalduta. Hala azaldu du elkarteak kide Aitor Oleak.

Haren esanetan, orain arte kontzertuetatik lortu dute diru-sarreraren zati handiena, eta horretan zentratuko dira. Antolatzen dituzten kontzertuetan jendeak ordaintzen duen diru guztia bideratzen dute organoaren babesera.

Hilabete bukaera aldera emanago dituzte egutegi berriari buruzko xehetasun gehiago.

### Organoaren mantenua

Oleak azaldu duenez, elkartearen erronka Stoltz-Freres organoaren

berritzatze osoa egitea da, baina nabarmendu du gaur-gaurkoz "oso zaila" dela helburu hori betetzea, eta pixkanaka-pixkanaka egingo dute.

Hala, konponketa hori zazpi lanalditan banatuta, lanaldi bakoitzeko ehun mila euro beharko lituzketela kalkulatu dute. Beraz, orain, lehen konponketa horretarako dirua lortzeko lanean jarriko dira buru-belarri.

### Domekan, informazio mahaia

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunak Elkartearen ekimenen baitan, etzi, urriak 17, informazio mahaia bat jarriko dute kalean, Udalak antolatutako *Kultura kalean* egunaren baitan.

Bertan, ordenagailuko aurkezpen baten bidez San Pedroko organoaren argazkiak erakutsiko dituzte, kanpoaldekoak zein barrualdekoak.

Gainera, instrumentuaren detaileak ahalik eta ondoen ikus daitezkeen, hiru dimentsioko marrazkiak erakutsiko dituzte. Aitor Oleak berak egin ditu marrazki horiek.

## Juan Antonio Untzurruntzaga argazkilariaren erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan

Herriko hainbat pertsonaren erretratuak biltzen ditu 'Bergarako pertsonaiak' izeneko mostrak

M.T. | BERGARA

19:30ean inauguratuko dute ofizialki Juan Antonio Untzurruntzagaren erakusketa berria, eta azaroaren 1era bitartean izango da ikusgai Aroztegi aretoan *Bergarako pertsonaiak* argazki bilduma.

Jaiotzez oñatiarra den arren, 20 bat urte zituenetik Bergaran bizi da Untzurruntzaga. Egun, bertako Arizondo argazkizale elkartearen presidentea da, baita Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kide ere.

### Bergararrak protagonista


Herri mailan garrantzitsuak edo ezagunak diren pertsonen erretratuak dira erakusketaren protagonista. "Esate baterako, zapatari baten erretratua dago, edota Arantzabal aita-eme futbolariena".

Hain zuzen, argazki guztiak erretratuak dira kasu honetan; izan ere, oñatiarrak bere argazkietan pertsonak erakustea du gustuko.

Untzurruntzagak aipatu du garai desberdinetan ateratako argazkiak direla erakusketa osatzen dutenak. Hark nabarmendu duenez, apaiza konfektokian ageri dena da bere gustukoenetakoa –beheko argazkian ikusgai–.

### Ordutegia

Honako hau da Aroztegi aretoaren ordutegia: martitzenetik egubakoitzera 18:00-20:30; zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeka eta jaiegunetan 12:00-14:00. Astelehenetan itxita egoten da aretoa. Aipatu bezala, azaroaren 1era arte iraungo du erakusketak.



Erakusketan izango diren bi argazki. | J.A. UNTZURRUNTZAGA



## NIRE USTEZ

KARLOS ETXANIZ



## 'Kultura kalean'

gandean, hirugarren urtez, *Kultura kalean* eguna izango dugu Bergaran.

Goizean goizetik eta iluntzera arte, Bergarako duen kultura-ekintza oparoari esker, hainbat eta hainbat kultura-jardura ikusteko, entzuteko eta sentitzeko aukera izango dugu: Taila eta zeramika tailerrak, Erraldoi taldearen ate irekien jardunaldia, Bergarako Stoltz-Freres Organoaren inguruko informazioa ematea, Beartek gidatutako Sketch marrazte saioa, musika tailerrak eta jokoak Musika Eskolaren antolatuta, Musika Banda, Orkestraren atal batzuk, Alai Taldea, San Joxepe, Aritzeta, Orfeoia eta Orfeoi Gaztearen kontzertuak, dantza saioak... Eta, bukatzeko, kantu-jira herrikoia.

Kultura-ekintza horiek Bergarako Udalak antolatzen ditu herriko elkarten laguntzarekin. Aipatu egin behar da urtez urte hobetzen doala egun berezi horren antolaketa, erraza ez den arren.

Hainbat helburu uztartzen ditu egun horrek. Horien artean bi nabarmenduko nuke: batetik, Bergarako herrian egiten diren gauzak jendeak gertutik ikustea. Bestetik, nire ustez helburu nagusia, jendearen parte-hartzea lortzea.

Partaidetza hau modu desberdinetan gauzatu daiteke. Modu errazena ikustera edo entzuterako joatea izango litzateke. Beste modu bat da egun horretan dauden tailerretan edo kantu-jiran, adibidez, parte hartzea. Hirugarren modua elkarteetan sartzea izango litzateke, elkarte gehienak jendearen premia daukagu eta eskatzen duguna zaletasuna eta gogoia edukitzea da, beste guztia etorriko da jarraian.

Anima zaitez, bada, *Kultura kalean* egunean parte hartzera eta jarraitu nahi baduzu urtean zehar, denontzat hobe!





Errekan hondakinak batzen, joan den urtean, Elorregi parean. | GOIENA

# Santxolopetegi eta Zubillagako erreka tartea garbituko dute etzi

Ibai Lagun egitasmoaren barruan, Urkulura irteera egingo dute bihar

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI  
Hirugarren urtez antolatu du Ibai Lagun egitasmoa Natur eskolak, eta aurtengoa asteburu hone-tan egingo dute. Zaturako irteera antolatu dute Urkulu

aldera, eta domekarako, erreka garbiketa.  
Aurreko bi urteetan herrigune-ko erreka zatia garbitu dute eta aurten erabaki dute Santxolopetegi eta Zubillaga aldeko

erreka zatia garbitzea. "Batzen garen jende kopuruaren arabera egingo ditugu taldeak, eta domeka goizean bertan antolatuko gara. Asko elkartuz gero, herri barruko beste zati batzuk ere

garbituko ditugu, baina aurten, auzo bi horietaraino joan eta gune horietan pilatu diren hondakinak errekatik atera gura ditugu", azaldu du Natur Eskolako Imanol Biainek.

Azken urteetatik hona erre-karen egoera asko hobetu dela ikusten den arren, oraindik ere zikin asko pilatzen dela aipatu du Biainek: "Egun, ez dira zabor-poltsak erre kara botatzen, baina oraindik ere bizikletak, enkar-guak egiteko karroak eta beste-lakoak ere ikusten dira. Uste dut ari garela sentsibilizatzen eta gero eta hobeto zaintzen ditugula erreka, eta badut esperantza egunen batean berriz ere aisial-dirako gune moduan berresku-ratuko ditugula, baina oraindik badago lana".

Erreka garbitzera joateko, 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan, eta han egingo dituzte taldeak. Bazkalordura arte jar-dungo dute erreka garbitzen, eta jasotako hondakinak Foruen pla-zan egongo dira ikusgai astebetez.

Zapatuko irteera ere egun erdikoa izango da, eta, Urrexo-lako uretzak ezagutuz, Urkuluko kontsumorako ur araztegaraino joango dira. 08:30ean abiatuko dira Foruen plazatik.

## Erakusketa

Bestalde, Udaleko Nekazaritza Sailak antolatuta, urari buruzko informazioa duten bederatzi pane-lez osatutako Ibaialde erakuske-ta dago ikusgai kultura etxean hilaren 22ra arte.

## Txanda Eguna herritarrekin ospatuko dugu gaur eta bihar

**KOMUNITATEA GOIENA** |  
**TXANDA ELKARTEA** | OÑATI

Txanda Eguna ospatuko dugu gaur eta bihar Oñatin. Txan-da elkarteko 33 komertziok egin dugu bat egun hau ospa-tzeko eta bakoitzak ekintza bat egingo du. Adibidez, den-da batzuetan deskontuak egin-go dituzte, beste batzuetan zozketak, pintxoak ere egongo dira komertzio batzuetan edo zerbitzua doan eskainiko dute beste batzuk. Horrez gain, herrian zehar zabaldu ditugun ekintza hauek ere egingo ditu-gu: gaur, egubakoitza, umeen-dako tailerrak egingo ditugu Etzaluzen 18:00etan; 19:00etan, Aitor Osuna abeslariak zuzen-ean kantatuko du Bideba-rrietan eta ordu berean arro-pa eta osagaien desfilea egin-go dute Mendiko kalen. Modeloak 2 eta 80 urte arteko hainbat herritar izango dira eta alfonbra gorria, musika, aurkezleak eta fokuak izango ditu desfile horrek.


Bihar goizean Kale Zaha-rraren hasieran umeendako tailerrak egingo dira eta pai-lazo batek globoak egiten era-kutsiko die gaztetxoei.

## Leihatilan ere eros daitezke trikiti jaialdiko sarrerak

**O.E.** | OÑATI  
Zazpigarren aldia izango du trikiti jaialdiak aurten, Lizar-garate elkartek antolatuta, eta, aurrekoetan bezala, helbu-rua da trikitia herrian zabaltzea. Sarrerak aurrez jarri zituzten salgai, baina bihar ere egongo da aukera erosteko. Santa Ana-ko leihatilan erosi ahal izango dira, 12 eurotan. Jaialdia 17:30ean hasiko da eta zazpi taldek hiruna pieza joko dituz-te. Jaialdiaren ostean, afaria eta erromeria egingo dituzte gaztelekuan. Elustondo anaia-a-rrebek alaituko dute gaua.

## Arrikrutzeko lehoiak bufanda zurigorria du

Athleticeko presidente Josu Urrutia, Gorka Elustondo eta Mikel Balentziaga jokariak, Ritxi Mendiguren taldeko jokari ohi oñatiarra eta Athleticeko beste hainbat ordezkari eta zale elkartu dira Arrikrutz kobetan, herriko zurigorrien lagunarteak gonbidatuta. Athleticeko bufanda eta bandera jarri zioten lehoiari.



XABIER URTZELAI

## Ume hasiberriendako bilera egingo du gaur arratsaldean Oñatzek

Dantzan ikasten hasi gura duten haurrendako bilera egingo du Oñatz dantza taldeak gaur. Oña-tzek ikasturte berria hasiko du datorren astean, 2008an eta 2009an urtean jaio ziren umeekin, eta 17:00etan bilera egingo du urte horietan jaio eta dantzan ikasten hasi gura duten ume berrie-kin. Bilera Oñatzen lokalean izango da, Errekaldeko sotoan.

## 'Iparragirre Oñatin' abenduan ikusteko sarrerak salgai daude

Olaittturri kultura elkartearen eskutik, *Iparragirre Oñatin* herri antzerkia egingo dute berriz abenduaren 5ean. Joan den urtean bi saio egin zituz-ten eta Santa Ana lepo bete-zen bietan. Jendea ikusteko gogoz gelditu zen eta beste bi saio egingo dituzte abenduan: 19:30ean eta 22:30ean. Sarrerak Txokolateixian daude salgai.

## Ziklo-kros taldeak denboraldi berria aurkeztuko du bihar

Arrikrutz Oñatiko Kobak ziklo-kros taldeak denboraldi berri-rako dituen asmoak, egutegia eta txirrindulariak aurkeztu-ko ditu bihar, zapatua. Kul-tura etxean egingo dute aur-kezpena, 12:00etan, eta, txi-rrindulariak ez ezik, eurekin batera ibiltzen diren presta-tzaileak eta mekanikariak ere egongo dira.

## Asier Altunaren 'Amama' filma emango dute asteburuan

Asier Altuna *Kixi* bergararrak zuzendutako *Amama* filma emango dute asteburu hone-tan zinema aretoan. Norma-lean baino saio gehiago egon-go dira, gainera. Egubakoi-tzean 22:30ean emango dute eta zapatuan, domekan eta astelehenean, 19:30ean eta 22:30ean. Umeendako, *La casa mágica* filma emango dute.

## Adimen osasuntsua izateko aholkuak dituzte Pake Lekun

Adimena ez galtzeko eta osa-suntsu mantentzeko aholkuak emango dituzte Pake Leku erretiratuen elkartearen mar-titzenean, urriak 20. Gai horri buruzko hitzaldia antolatu dute, eta gai horixe izango dute mintzagai, 17:00etan. Bes-talde, zapatuan Pasaian egin-go den nagusien martxara joatekoak dira Pake Lekutik.





Arantzazu Maiz, Rakugolaria, ipuin kontaketa bat egiten. | HIOMIREN RAKUGOLARIAK

## Literaturaz gozatzeko: marrazkiak, solasaldia eta ipuin kontaketa japoniarra

Eibar ilustratzailea, Morano, Espejo, Etxarte eta Sarriugarte idazleak eta Eskalada, Maiz eta Ibarguren aktoreak datoz Bibliotekaren Eguna ospatzera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

1992an Sarajevoko liburutegiari su eman zioten. Urriaren 24a zen. Hondatuta gelditu zen, eta erabaki zuten egun hura Bibliotekaren Eguna izatea. "Izendapen hori berria da, oraindik ez dago egutegian ondo finkatuta, Liburuaren Eguna dagoen moduan, adibidez. Eta gura dugu egun horrek indarra hartzea. Helburu horrekin antolatu dugu aurten, adibidez, Oñatiko lehen literatura topaketa", azaldu du Arantzazu Ibarrondok, Udal Liburutegi-ko arduradunak.

### Lau idazle

Urriaren 24an egingo dute topaketa hori kultura etxean dagoen zinema aretoan, eta lau idazle hartuko dute parte: Kristina Morano, Jose Daniel Espejok, Hedoi Etxartek eta Danele Sarriugartek.

Azkena izan ezik, beste hirurak poetak dira. Izan ere, literaturaz jardungo duten arren, poesiak duen "fama desmitifikatu" gura dute antolatzaileek. "Poesia ezin duela edonork egin, irakurle batzuek bakarrik dela eta ulertzeko zaila dela askotan esan ohi da. Eta hori gezurtatu eta desmitifikatu gura dugu solasaldi honetan", dio Ibarrondok.

**Interneterako sarrera, musika, liburuak eta aldizkariak biltzen ditu bibliotekak**

Topaketak harrera ona izanez gero gehiago ere antolatuko dituztela aurreratu du Ibarrondok. "Biblioteka liburu, aldizkari, Internet edo musika biltzen dituen bilduma da, eta hori gerturatu gura diogu herritarrari".

### Rakugoa euskaraz

Literatura topaketaz gain, ilustrazio tailerra ere antolatu dute urriaren 24rako. 5 eta 10 urteko umeei zuzenduta dago eta Eider Eibar ilustratzailea izango da tailer horren gidaria. Santa Marina plazan izango da, kultura etxearen aurrean, 12:30ean.

Urriaren 21ean, eguaztena, Japonian egiten dituzten moduko ipuin kontaketa, Rakugoa, egingo dute helduen liburutegian, 19:00etan. Gaurko PUNTUA aldizkariak jaso ditu genero literario horren ezaugarriak, zabal.

## Gipuzkoako bertsolari txapelketako final-laurdenetan sartu da Maider Arregi

Azaroaren 1ean Ormaiztegiko Zubipe kiroldegian egingo den saioan lehiatuko da

O.E. | OÑATI

Gipuzkoako bertsolari txapelketako final-laurdenetarako txartela eskuratu du Maider Arregi oñatiarrak. Lasarte-Oriako saioan bigarren sailkatu zen, Beñat Lizasoren atzetik, eta hurrengo saioetako emaitzek erabaki behar zuten final-laurdenetan sartzen zen edo ez. Joan den astean Andoinen izandako saioko puntuazioak eman zion final-laurdenetarako txartela Maider Arregiri.

Final-laurdenak bost egunean izango dira eta Arregik azaroaren 1ean Ormaiztegiko Zubipe kiroldegiko saioan egingo du bertsotan. Ander Lizarralde, Arkaitz Oiartzabal, Felix



Maider Arregi. | GBT 15

Zubia, Iñaki Apalategi eta Unai Gaztelumendi izango ditu lehiakide. Saiotarako sarrerak [bertsozale.eus](mailto:bertsozale.eus) helbidean eros daitezke.

## Liburu berriarekin dator bihar gaztetxera Patxi Irurtzun idazlea

O.E. | OÑATI

Patxi Irurtzun idazle nafarra azken liburua eskuan duela etorriko da bihar, zapatua, Oñatiko Antixena gaztetxera, 18:00etan. *Pan duro* du izena liburuak. Eleberria da eta gazteei zuzenduta dago.

Saltzaile ibiltari bat eta 15 urteko haren alaba Zarraluki herrira heltzen direnean hasten da istorioa. Mapetan ez ageri arren, herri berezia da Zarraluki: mendialdean egon arren, itsasargia eta arraun taldea ditu eta oliba-hezurren jaurtiketa txapelketa antolatzen dute urtero. Tabernak ere baditu, eta bereziak dira horiek ere.

Liburu aurkezpen horrekin emango dio hasiera, hain zuzen ere, Antixena gaztetxeak ikasurte berriari.



Patxi Irurtzun. | PATXIURZUN.COM

## NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA



## Badator negua

raileko ekinozioekin, sartu gara udazkenean, ahaztu gara hondartzekin eta udako oporrek, hasi gara berriro laneko eguneroko zereginekin, berriro ikastolara goiz eta arratsalde eta eskola kurtso berri baten aurrean gaude.

Laster usoak pasatzen hasiko dira, negua badatorrela esanaz eta behin sanmigelak atzera utzita, sartzen joango gara

pausoka-pausoka udazkenean eta urriaren 28an egutegiak iragarriko digu abestuz *San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da*.

Gaztaina garaia ere heldu da, baina pena da *Kastañeroak* edo gaztaina saltzaileak herri gehienetan ezkutatu egin direla.

Herri baten eta bestean, hasiko dira udazkeneko azokak bertako barazki eta beste hainbeste

**"Orain aste bat aurretik alarma oihuak entzuten hasten gara"**

produktuekin, azkenik Gabon bezperatan Santo Tomas azokarekin batera neguan sartuko gara.

Baina lehengo bezalakoa ahal da oraingo neguak?

Nire ustez, eguraldiko andre-gizonak, eurak ematen duten eguraldiaren iragarpenekin, negua apur bat aldatu egin dute. Lehen ziklogenesiak agertzen ziren gaue- tik goizera ezertxo ere jakin barik, elurteak ere berdin, abisatu barik etortzen ziren, goizean leihotik begiratu eta.... Ai ba!!, kalea zurituta dago!!

Baina orain aste bat aurretik alarma oihuak entzuten hasten gara eta alerta egoeran harra- patzen gaitu, nahiz eta gero batzuetan alarma faltsua izan.

Negu haiek zirrara handi- goa zuten.

## Zubikoako fitness gelan ekintza osagarriak antolatu dituzte

Zubikoa kiroldegiko fitness gelan adin askotariko herritarrei zuzendutako ekintza osagarriak egingo dituzte urritik abendu- ra bitartean.

Luzaketa-programak, hiru- garren adinekoendako progra- mak eta TRX programak anto- latu dituzte, hain zuzen ere, urrirako eta azarorako. Aben- duan, berriz, bosua zer den azaltzeko saioak egingo dituzte.

Urriko saioei begira, gaur, egubakoitza, adibidez, luzake- tei buruzko azalpenak emango dituzte eta hilaren 18an, dome- kan, hirugarren adinekoei eskainitako saioak egingo dituzte. Aurrez izena ematea komeni da.

## Eskola kirolari buruzko bilera egingo dute bihar

Eskola kirolaren barruan, aste barruko jardunaldiak martitzenean hasi zituzten, eta bihar, zapatua, hasiko dituzte zapatuetakoak. Guraso asko aritzen dira laguntzaile lanetan, eta, laguntza hori ondo antola- tzeko, bilera egingo dute bihar, zapatua, 12:15ean, Zubikoa kiroldegian.

Bihar 09:15etik 11:45ak arte iraungo dute jardunaldi- diek. LH-3ko eta LH-4ko ikasleek jolasak egingo dituzte eta LH-5ekoak eta LH-6-koak, berriz, saskibaloian arituko dira. Azken horiek eta DBHko ikasleek mendi irteera egingo dute domekan.



## Basotxokoak 'La corte del faraón' ikustera abenduan

M.A. | ARETXABALETAK

Basotxo erretiratuen elkar-teko kideek *La corte del faraón* zarzuela ikustera joan gura dute Bilboko Arriaga antzokira. Abenduaren 17an izango da, eguena. "17:00etan irtengo gara autobusean Azbe-ko geltokitik, eta, iritsitakoan, Bilboko alde zaharrean bueltatxo bat emango dugu, Gabon bezperatan izango gara eta", jakinarazi du Jose Inazio Isasmendik, elkarteko presidentea. 22:00 aldera itzuliko dira gero.

Sarrerak lortu ahal izateko, lehenbailehen jakin gura dute zenbat izango diren; horregatik, interesatuak hurre-ra daitezela Basotxoko bulegora izena ematera –baita argibideak eskatzera ere–, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 12:00etara. Irteeraren prezioa 40 euro da –sarrerak 30 euro eta autobusak 10–.

## 'Fausto, herritar eredugarri' antzezlan elektronikoa gaur

La Noruega taldeak *Fausto, herritar eredugarri* lana eskainiko du gaur, urriak 16 (22:00), Arkupen –sarrera, 4 euro–. Galder Perezek zuzenduta, Mikel Losada, Miriam K. Martxante, Lander Otaola eta Diego Perez aktore ezagunek Faustoren kondaira dakarte. Kartzelan preso dago Fausto, eta indultua lortuko du Madame Demokraziarekin ezkontuta.

## Maialen Errotabehere lapurtarraren kontzertua eguenean

Iaz udazkenean kaleratutako *Biluzik* lana aurkeztera etorriko da Arrosako kantari Maialen Errotabehere urriaren 22an, eguena. Arkupen izango da, 19:00etan. Sarrera lau euro da.

Kanta akustikoak eskainiko ditu; lasaiak batzuk, dantzagarriak beste batzuk. Izan ere, pop, rock eta blues doinuz beteta etorriko da.

## 1940an jaiotakoak afaltzeko elkartuko dira urriaren 31n

*Elkartasun Eguna* izena jarritako, 1940an jaiotako kintoak afaltzera joango dira urriaren 31n. 19:00etan meza izango dute, parrokian. "Utzi gaituzten lagunak gogoratuko ditugu", jakinarazi dute. Afaria Taberna Berri jatetxean egingo dute, 20:30ean. Hortaz, izena emateko, hara jo dezakete interesatuak (943-79 20 67).

# Gastronomiaren eta folklореaren topalekua izango da plaza etzi

Gura beste jateko eta edateko egongo da 10:00etan hasi eta ilundu artean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAK

Hemeretzigarrenez egingo dute gastronomia eta folklore jaia domekan, Aretxabaletako Udalak antolatuta, eta Zاراia mendizale taldearen laguntzarekin. Eta beste behin elkartuko dira Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskal Herria ordezkatzan dituzten taldeak. 10:00etan hasita, eta ilundu bitartean, gastronomiak Herriko Plazan izango du lekua, eta dantza eta kantu emanaldiak ere han egingo dituzte.

**Euskal Herriaren ordezkari Aratz** Errioxako Voces del Ebro taldeak jota doinuekin girotuko du plaza. Donostiatik etorriko diren Galizia etxekoek eta Laudiotik hurreratuko diren Gaztela eta Leongo San Fernando taldeak, ostera, dantza emanaldiak eskainiko dizkiete elkartutakoei.



Txitxi-burruntziak gertatzen Herriko Plazan iazko jaian. | AMAIA TXINTXURRETA

Extremaduraren ordezkari izango da Arrasateko Corazon de Encina elkarte eta Euskal Herriarena, Aretxabaletako Aratz –adimen urritasuna dutenen aldeko taldea–. Guztien artean

eskainiko dituzte urdaiazpikoa, olagarroa, txitxi-burruntziak, hestebeteak, gazta eta beste hainbat jateko, betiere, edateko goxoak lagun eginda: finoa, Errioxako ardoa, sagardoa...

## Proiektu berritzaileen erakusketa Arkupen

M.A. | ARETXABALETAK

Kimu Berri VI. ekitaldiko proiektu berritzaileen erakusketa dago Arkupen gaurtik hilabetea bukatu bitartean. Mondragon Goi Eskola Politeknikoko eta Huhe-

ziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek egindako hainbat lan daude ikusteko. Pertsonen eguneroko bizitza errazteko proposamenak eta bideoklipen eta animazioekin egindako aur-

kezpenak dira aurtengo erakusketan jasotakoak; hain zuzen, proiektuen panelak, prototipoak eta ikus-entzunezko erreportajeak. Guztira, 52. Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduiko ikasleek, esaterako, 2020an gizarteak izango dituen ezaugarriak identifikatu eta horien beharrak asetzeko produktuak proposatu dituzte.

### Ekintzailletza bultzatzea

Kimu Berri ekimena 2010ean eratu zuten Debagoienean ekintzailletza sustatzen duten hainbat eragilek elkarlanean. Eta horren helburua da, batez ere, tekniko-ki ondo gertatutako gazteen artean ekintzailletza bultzatzea.



Kimu Berri erakusketako prototipo bat. | MAIALEN TORRES

## Avila aldien ibilli gare abesbatzako kidiok

KOMUNITATEA GOIENA | N. FDEZ. DE ARROIA BE  
ARETXABALETAK ABESBATZA | ARETXABALETAK

Pilarearen zubixa Avilan pasau dogu Aretxabaleta Abesbatzako kidiok, eta egualdixa bera be lagun izen dogu, nahiz eta euri-xa eta hotza espero gittuen.

Urteixeriarene asmo nagusixa zan, Avilako Santa Teresa jaixo zala 500 urte bete diela eta, haren jaixotetxeko elixan mezia kante-tia. Egilleorreko Damaso Zuazuak egin dittu hanguen eta gure arteko zubi-lanak.

Gure urteixerak, baiña, eukitten daue beste helburu bat be: abesbatzakidion arteko harremanak estuketia, talde bat garenez,

giro ona oiñarrizkua da eta. Esan bihera dau, senitarteko edo lagun bat eta abesbatzaren jarraitzaille banaka bat be bidelagun izen dittuagula kantoriok.

Fan-etorrixa ez da kontzertura mugatu, hirixa eta hango gastronomixia ezaguketako aukeria be euki dogu. Zapatuen, esate baterako, osteratxo bat egin gauen Los Cuatro Postes guruztokiraiño, Avilaren gabeko ikuspegi edarra miresketako. Domekan, kantau eta bapo bazkaldu ostien, galtzad-harrizko kalietan ziher ibilli gitzen eta bertako eraikin dotoriak ezagutu gittuen. Astelehenien, barrez, Valladolidedeko Urueña



Santa Teresaren jaixotetxeko elixan, Aita Madinaren Aita Gurea kantuen. | A.A.

herrixen, La Anunciada baselixa eta munduko musika-tresnen museua bisittau gittuen. Bitxikerixa bat: 180 bizilagun inguru euki arren, Liburuaren Hiri izen-dauta dau Urueña, eta bospasei

## 21. Patxaran Lehiaketa domekan

Patxaran Lehiaketari ere egingo diote lekua, azken urteotan legez. Herriko Plazan jarritako mahaira eroan beharko dira horiek 11:00etatik 14:00etara bitartean. Norberak egindakoa izan beharko du patxaranak, eta kristalezko edo beira gardenezko botilan aurkeztu beharko da –gehienez bi–; botilen originaltasuna ere hartuko dute kontuan.

Epaimahaiak hiru onenak sarituko ditu; garaikurra eta diru–saria emango diete horien egileei. Ondoren, hiru patxaranak enkantean jarriko dituzte sorta bakar batean, eta eskaintzarik onena egiten duenari emango dizkiote. Gainerakoak plazako gunean izango dituzte, jendeak proba ditzan.

## Argazki lehiaketa deitu du Murrukixok

M.A. | ARETXABALETAK

2016ko egutegia egiteko argazkia gura du Murrukixok, eta aurtun ere lehiaketa bidez hautatuko du. Formatu digitalen aurkeztu behar dira, gehienez lau. Eta azken eguna urriaren 20a da. Hona, horretarako bideak: *murrukixo@outlook.com* helbidera idatzi; lokalera eraman martitzenetan (19:00-20:00); edo Aretxabaletako 34. posta-kutxara idatzi. Argazki bakoitzairen deskribapena zehaztu behar da, baita norberaren datuak ere. Saria 100 euro da.



# Hiri-berritze plana egingo du Udalak herritarrekin

Herrian hobekuntza txikiak egitea da Eskoriatzako Udalaren asmoa, bilera orientatzaileen bidez

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Herriko auzo eta elizateetako hiri-altzari, zerbitzu eta azpiegiturak hobetzeko, herriko irisgarritasun eta mugikortasun arazoak konpontzeko eta eremu atseginagoak sortzeko asmoarekin, ekimena jarri gura du abian Eskoriatzako Udalak. Horren berri eman du etxe guztietara banatutako eskuorrietan, eta datozen asteotan bi bilera ireki egingo ditu herritarrekin.

Bileretan batutako behar eta proposamenekin zerrenda luze bat egingo dute, eta, erabakiak hartu baino lehen, Hirigintza eta Zerbitzu batzordera eroan, eta han baloratuko direla azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak. "Zailtasunen arabera sailkatuko dira proposamenak; eragin potentzialak direnak, dakartzaten gastu ekonomikoen arabera, eta beharren arabera proposamen bereziak aztertuko ditugu, obra handiak beste era batera tratatuz, hauek baztertu gabe".

Bileren funtzionamendua, berriz, orientatzailea izango da,

eta, herritarrek bi multzotan batuko diren arren, parte hartzeko hainbat aukera egongo dira.

Lehenengo bilera urriaren 19an, astelehena, 19:00etan izango da Ibarraundi museoa. Gellao, Mendiola, Apotzaga, Bolibar eta Lete elizateetako eta Intxaurtxueta, San Pedro, Gaztañadi, Gorosarri plaza eta Santa Ana auzoko biztanleak elkartuko dira.

Bigarren bilera, ostera, urriaren 21ean izango da, eguaztena, 19:00etan, Huhezin. Eta elkartuko dira Olaeta plaza, Hidalgo, Arana, San Juan, Aranburuzabala eta Aingeru Guardako bizilagunak eta Mazmela, Marin, Zarimutz, Elorreta, Olazar eta Dorletakoak.

Multzo horiez gain, herrian ibiltzen den lekuen arabera, jendea bilera batera edo bestera joan daiteke. "Izan ere, herritar batek hobeto ezagutzen du egunerokotasunean ibiltzen den toki edo auzoa ibiltzen ez denak baino". Parte hartzeko beste bide

batzuk ere zabalduko ditu Udalak. Posta elektronikoz honako helbide honetara idatzita: [hiri-berritzeplana@eskoriatza.eus](mailto:hiri-berritzeplana@eskoriatza.eus). Hala, eskoriatzar guztiak animatu dituzte "gogotsu" parte har dezaten: "Denon artean etorkizuneko Eskoriatza hobea eraikiko dugulako".

Bestalde, Udalak gura du erretiratu elkarteak modu aktiboan parte har dezan ekimen horretan: "Zahartze aktiborako programaren ildotik, haien ekarpenak oso baliagarriak izan daitezkeelako".

## Elizateekin batzartuta

Eskoriatzako alkatea elizateetako bizilagunekin izan da, eta hiri-berritze bileretarako aurre-lana egin du Udalak. Egin dituzten bileretan, komunak diren gaiak azaldu dira. Esaterako; Bidegiko gorabeherak, ur sarbideak, wifi eta telebista konexioak, ibilgailuen abiadura handiengatik hartu beharreko neurriak...

Elizateetako auzokideen harrera ona aipatu du Joserra Zubizarretak: "Elizateetako auzokideen partaidetza oso handia izan da, eta herri mailan ere halakoa izatea espero dugu".

## Jose Arana kaleko pasabidean hainbat istripu gertatu dira

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Jose Arana kalea oinezkoentzat jarri zenean, pibote automatikoa jarri zuten errepidea ixteko behearantzko norabidean. Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 21:00etara itxita egoten da ibilgailuendako, eta zapatuetako 13:30etik domekako 00:00ak arte itxen dute. Jai bezperetan ere itxita egoten da, 17:00etatik hurrengo eguneko gauerdia arte. Ordu-tegia hori izanik, hainbat ezbehar gertatu dira jarri zenetik gaur egunera arte.

Pasabideko piboteak zeresan handia izan du azkenaldian; izan ere, leku horretan hainbat istripu gertatu dira. Azkena, pasa den egubakoitzean, hilak 9an,

izan zen. Auto bat, behearantz zihoala, pibote gainetik pasatzean pibotea igotzen hasi, eta istripua izan zuen; matxuratu egin zen autoa. Ez zitzaien ezer larririk gertatu autoan zihoazenei, baina horren ostean hesi bat jarri zuen Udalak, pibotearen funtzionamendua argitu arte.

## Teknologia probak

Pibotea modu automatikoa aktibatzen da, eta, gertatu direnak ikusita, teknologia probak egin nahi ditu Udalak, funtzionamendua ona edo txarra den ikusteko. Hala, semaforoa gorri jartzean piboteak igotzen ematen duen denbora, eta abar aztertu nahi dituzte istripuen zergatia argitzeko.



Jose Arana pasabidea, arratsaldean, itxita. | IMANOL BELOKI

## Eskoriatza ezagutzeko Ezkurtxorekin jolasean ibiliko dira gaztetxoak

Herria ezagutzeko ibilalditxoak egingo dute herrian zehar. Herriko plazan hasita; kanposantuko bidea, tren geltoki zaharra, Olaeta plaza, Santa Marina, bolatoki zaharra, kiroldegi aurreko plaza eta berriro herriko plazaraino. Ondoren izango dira: ipuin kontaketa, pinak egitea, joko eta jolasak eta txokolate-jana.

## 'Barbantxo 3D' eta 'Mr. Kebab' antzerkiak Zaldibar antzokian

Kultur Mahaia ikuskizun antolatu ditu urrirako Zaldibar antzokian. Batetik, umeentzako *Barbantxo 3D* ikuskizuna egongo da domekan, 17:00etan. Bestetik, hilaren amaieran, urriaren 30ean, *Mr. Kebab* antzerkia izango da, 22:30ean. Sarrerak aldez aurretik egongo dira salgai.

## Udako argazki lehiaketan botoa emateko azken eguna

Aste osoan zehar Udako Argazkien IV. Lehiaketako erakusketa izan da Ibarraundin. Gaur itxiko da argazki gustukoenari botoa emateko epea, eta hilaren 21an emango dituzte sariak. Hiru kategoriatan banatuko dituzte sariak; beraz, kategoria bakoitzeko boto bana eman daiteke.

## Patxi Luque kontzertua emango du Benta Motz Berrin

Patxi Luque gitarristak kontzertua eskainiko du Eskoriatzako Benta Motz Berri tabernan. Emanaldia zapatuan izango da, 20:30ean, eta rock-and-rollaz eta heavyaz disfrutatzeke aukera izango da. Sarrera doan izango da, eta nahi duenak taula gainera abestera igotzeko aukera izango du.

## Ekintzak antolatzeke, Kultur Mahaira batzeko gonbidapena

Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak gonbidapena egin die herritarrei datorren egunean, urriaren 22an, 18:00etan kultura etxera joan daitezen, Kultur Mahaian parte hartzeko. Herriko ekintzak kudeatzeko, parte-hartzea sustatzeko eta herritar guztien artean ideia berriak partekatzeke asmoz.

## NIRE USTEZ

DORLETA KORTAZAR



## Ipuin tradizionalak

Maitte dittut ipuinak, tradizionalak be bai. Eta azken aldixen somatzen dot han eta hemen ipuin honeik alde batera utzi edo aldatzeko joera, sexistak eta baztertzailak dielakuen. Noski, ipuin honeik garai jakin bateko errealitatea eta kontextua jasotzen daue bere baitan, eta hau kontuen euki beharra dau.

## "Sinbolismoz betetako altxorak die ipuin tradizionalak"

Baina behin galdetzen hasita, zergatik irauten daue ipuinok belaunaldiz belaunaldi? Zergatik aurkitzen die ipuin beraren hainbeste aldaera kultura hain ezberdinetan? Ba, oso botereitsuak dielako, herriarentzat esanguratsuak dien ikasgaiak jasotzen ditzutzelako bere baitan. Esaterako, neskak jakin beharra daukagu badazela basuen jango (erahiltzen) gait-

tuzten otsuak, eta biziraun gura badogu, horri aurre eitteko trebatu beharko garela, ehiztari, egurgile edo printzearen zain egon barik.

Kutsu baztertzaila edo sexisten gainetik, sinbolismoz betetako altxorak die ipuin tradizionalak. Tartien denetarik dau, noski, baina gure ardura da bilatzen jakin, aztertu eta hauek transmititzia, bidaian lagungarri eta gozagarri izan daitezen; gure (bizitzaren) ipuinaren errege/erreginak izan gaitezen, ipuinetako printzesa eta erreginek ez daukielako zer ikusirik estatu ereduarekin, norbere buruaren jabe izatearekin bai-zik. Eta hala bazan edo ez bazan...



TXOMIN MADINA

## Bizitzeko herrien gainera saioa

Eskola Agenda 21 barruan, aurtengo programan, *Bizitzeko herriak* gaia landuko dute ikastetxeetan, eta, hain zuzen, lehen prestakuntza saioa izan zuten martitzenean Ibarraundi museoa Koldo Telleria arkitektoarekin. Adibidez, hirigintzan orain arte nagusi izan den ikuspegia zabaldu beharra azaldu zuen bertan.



# Dena prest Artekale Eguna ospatzeko

Hamabost konpainiatako 45 lagunek hartuko dute parte kale ikuskizunetan domekan

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Artekale Egunaren laugarren edizioa Antzuolan ospatuko da urriaren 18an, domekan. Bertan hamabost konpainiako 45 lagun inguruk hartuko du parte.

Asteon egindako aurkezpenean, ilusioz hartu dutela festa hori antolatzeko ardura azaldu zuen Oihulari Clown taldeko kide Virginia Imazek. "Antzuolaren dako luxua da horrelako jai bat izatea. Herriko taldeek, gainera, izango dute protagonismoa", azpimarratu zuen Kultura teknikari

Usoa Agirrek. Hala, Antzuolako erretiratuen abesbatzari, trikitalariei eta txistulariei esker, izango da zerekin gozatu domekan. Baita *breakdance*-a egiten duten herriko gazteen saioaz ere.

"Berezia da Euskal Herriko kale arteen elkarte. Sektore guztiek, artistek, banatzaileek eta instituzioek elkarlanean lan egiten dutelako. Helburua da kalitatezko lanak ikusaraztea eta kale artearen duintasuna bultzatzea", zioen Artekaleko Amagoia Garaizabalek.



Martitzenean egindako aurkezpenean udal ordezkariak Artekale elkarteko kideekin. | MAIDER ARREGI

**Goizean eta arratsaldean**

Egun osorako egitarau zabala prestatu dute. Hala, zirku saioak, antzezlanak, dantzak, pailazo ikuskizunak, musikak eta beste askok jantziko dituzte Antzuolako kaleak Artekale Egunean.

Goizeko ikuskizuna ibiltaria izango da. Beheko auzoan hasiko da, eguerdiko hamabietan. Zurra-

tegi, Kalebarren... artea eta musika izango dira protagonista herriko kaleetan. Kiroldegian, aldiz, eskujoko ikuskizuna izango da. Eta ikuskizun ibiltaria kiroldegitik Herriko Plazaraino joango da. Udaletxeko balkoian, txistulariekin batera, Oihulari Klowneko bi pailazok kaleko arteen aldeko pregoia egingo dute. Arra-

tsaldean jarraipena izango du kaleko arteak. Hala, lehena 17:00etan plazan izango da. Zurragin, aldiz, Oihularikoen eskutik azken kale antzerkiaz gozatzeko aukera izango da, 18:15ean. Familia osoarendako ikuskizunak eta euskarazkoak izango direla azpimarratu gura izan dute antolatzailleek.

## Hausnarketa interesgarriak jaso dituzte

Kultura batzordea abian da Antzuolan. Egindako lehen batzarrean "hausnarketa interesgarriak" batu dituztela azaldu du Kultura zinegotzi Usoa Agirrek. Bigarren batzar irekia hilabete barru egingo dute.



MAITE TXINTXURRETA



Antzuolako GED taldeak martitzenean egindako aurkezpena Olaranen. | A.T.

## 'Eskura' hausnarketa txostena aurkeztu dute

Bigarren bilera urriaren 20an izango da Olaranen

**A.T./M.A** | ANTZUOLA

Gure Esku Dago ekimenaren jarduera, antolamendua eta finantzamendua zehazteko, zortzi orriko *Eskura* izeneko hausnarketa txostena aurkeztu zuten martitzen arratsaldean Olaranen. Herriarrei azaldu zieten zer jasotzen

den bertan eta zer egin behar duten txostenean jasotako ideiak baloratzeko eta gero ekarpenak egiteko.

Orain, herritarrek bertan jasotakoa baloratu beharko dute bi modutara: puntu bakoitzari puntuazioa emanda eta ekarpenak

eginda. Eta balorazio horiek egiteko bi modu izango dituzte: herrietan egingo diren bileretan parte hartuta edo sarean sortuko den eztabaida foroan idatzita. "Euskal Herri mailan egindako txostena da eta orain guk herriz herri hausnartuko dugu. Egituraz gain, datozen hiru-lau urteetan egin daitezkeen ekintza posibleak ere hausnartzeko aukera izango da egingo ditugun batzar irekietan", azaldu du Antzuolako Gure Esku Dago taldeko ordezkari Jon Ugarteburuk.

### Bilerak

Antzuolan, esaterako, balorazioa eta ekarpenak egiteko bilera bi egingo dituzte: bata, datorren martitzenean, urriaren 20an; eta bestea, azaroaren 3an. Biak 19:00etan Olaranen izango dira.

Pixkanaka-pixkanaka Debagoieneko gainontzeko herrietan ere iragarriko dituzte bilera horiek, eta azaroaren 9ra arte egin ahal izango dira ekarpenak.

Azkenik, azaroaren 21ean, ezohiko batzar nagusian hartuko dituzte erabakiak. Bitartean, *Eskura* hausnarketan parte hartzeko gonbidapena egin dute.

## Mikel Lizarralde: "Herritar guztiak daude gonbidatuta 'Atzegi jolasean' ekimenera"

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Bihar, zapatua, *Atzegi jolasean* ekimena egingo dute lehenengoz Antzuolan. Hala, eskolako patioa jolasez beteko dute Atzegi-zaleek bihar goizeko hamaiketan hasita. Eta helburua da adimen urritasuna duten pertsonen bizimoduaren gainean dagoen ezjakintasunean eragitea. Izan ere, gaitasun propioak dituztela erakutsi gura du Atzegik, eta, era berean, denak ez direla berdinak aldarrikatu.

"Askotan pentsatzen dugu ezintasun psikikoak dituzten denak berdinak direla eta askotan uste dugu dena mundu berdin bat dela. Baina nork bere afizioak eta gustuak ditu. Aurreiritzi asko dago eta mundu honetan denak ez direla berdinak ikusarazi gura dugu. Esan bezala, nork bere gaitasunak dituela erakutsi nahi diogu gizarteari", azaldu du Antzuolako Atzegiko kide Mikel Lizarralde.

**'Atzegi jolasean'**

*Ezetz asmatu nolakoa den nire bizitza* kanpaina aurkeztu berri du Atzegik. Honen baitan antolatu dutela *Atzegi jolasean* ekimena azaldu dute. "Orain arte, bazkari baten bidez ospatu dugu Atzegi eguna. Baina beste zerbait egin nahi genuen aurten. Hala, Antzuolan eskolako patioa leku egokia dela ikusita, aurten, *Atzegi jolasean* ekimena egitea erabaki dugu. Hamaiketan elkartuko gara eta jolasak egingo ditugu. Baloiarekin jokoak, lasterketak... pintxoak ere izango dira jolasen tartean etortzen direndako", dio Lizarralde.

Atzegi elkartetik herritarrek animatu gura dituzte biharko festan parte har dezaten eta normalizazioaren bidean urratsa egin dezaten. "Herriaren parte direla kontziente izan daitezen gura dugu. Antzuolar guztiak daude gonbidatuta zapatuko festara".

### OHARRAK

**PILOTA PARTIDUAK**

Gaur, egubakoitza, gazteen eskuz banakako pilota partidua izango da, 12:00etan, Antzuolako pilotalekuan. Hala, Olalde taldeko Manex Balerdi eta Intxurre aurrez aurre ariko dira. Urriaren 23an, aldiz, Balerdiren eta Oiarperen eskuz banakako partidua ikusteko aukera izango da. Bestalde, asteburuan hasiko dute Olaldeko infantilek Gipuzkoako txapelketa.

**ERRETIRATUEN MERIENDA**

Urriaren 28an egingo dute merienda. Izena eman daiteke hilaren 22an edo 23an, 16:00etatik 18:00etara. Egun berean Gabonetako Loteria banatuko dutela diote Landatxopetik.

**AUZOKO**

Auzoko ekimenak emakumeekin saioa egingo du urriaren 19an, astelehena, 10:30ean, Oларan etxean.



# Konpost-gunerako 35 familiak eman dute izena

## Prestakuntza saioak egingo dituzte azaroaren 3an hasita: Vermican enpresa arduratuko da horietaz

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Udalak Osteta kalean jarri behar duen konpost-gunearen lanak martxa onean doaz. Vermican enpresa dabil gunea muntatzen; asteen ipini dituzte konpostagailuak.

Tokiko Agenda 21eko teknikari Jon Toña pozik dago herriarren erantzunarekin: "Uste baino jende gehiagok eman du izena". 35 familia unitatek eman dute izena konpost-gunean parte hartzeko; eta uste dute behin martxan jartzen denean familia gehiago animatuko direla. "Konpost-gunea jarri behar dugun lekuan badago aukera konpostagailu gehiago jartzeko", dio Toñak.

### Azaroan jarriko dute martxan

Azaro erdialderako gertu egongo da gunea. Ikastaroa egiten dutenean, konpostagailuko giltza eta etxean hondakin organikoa batzeko kubotxoa jasoko du familia bakoitzak. Konpost-gunean lau konpostagailu jarriko dituzte, eta, horiez gain, egituratzailea –materiala sikua– egongo den edukiontzia.

### Bi eskaera mota

Bi eskaera mota izan dituzte Udalean: "Ibarran bizi direnak eta konpost-gunea erabiltzeko izena eman dutenak daude, batetik; eta, bestetik, baserrietan bizi direnak, eta dagoeneko konposta egiten



Asteen ipini dituzte konpostagailuak Osteta kalean. | UDALA

### PRESTAKUNTZA SAIOAK

#### Asteen zehar, arratsaldeak:

Azaroaren 3an, 5ean eta 6an, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**Zapatuan, goizez:** Azaroaren 7an, 10:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Lau saio horiez gain, beste bi saio ere egingo dituzte, baina oraindik adostu barik dute eguna.

dabiltzanak baina gehiago jakin nahi dutenak daude", azaldu du. Interesa duen edonork du aukera ikastaroan parte hartzeko.

Vermicanek emango ditu ikastaroak: guztira, sei saio egingo dituzte, baina oraindik lau saio bakarrik zehaztu dituzte.

### Jasangarritasunaren alde

"Konturatu ginen herrian baze-goela hondar organikoa modu jasangarrian jasotzeko behar bat", dio Toñak. "Errefusera botatzen dugun ehuneko handi bat hondakin organikoa dela kontuan hartuta, zentzua dauka proiektu honek", gaineratu du Toñak.

## Negozio ideia garatu edo aurrera eramateko laguntzak onartu dituzte

A.E. | ARAMAIO

Ekintzaileei laguntzeko programa abian jarri du Lanbidek. Lanik ez duten eta euren negozioa jarri nahi duten pertsonen zuzendutako laguntzak onartu dituzte. Eskaerak urriaren 27ra arte egin daitezke Zuiako Kuadrillan.

*Ez duzu lanik? Negozio ideiat duzu? Laguntza behar duzu ideia hori garatzeko edo abian jartzeko?* Horrela aurkeztu du Lanbidek ekintzaileei zuzendutako programa.

### Erakundea, Zuiako Kuadrilla

Lanbidek eskualde horretan deialdia luzatzeko daukan erakunde laguntzailea Zuiako Kuadrilla da. Hala, informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko bide hauek jarraitu beharko dira: 945 430 167 telefonora deitu edo [ekonomia@cuadrillazuia.com](mailto:ekonomia@cuadrillazuia.com) helbidera idatzi –Oihanagatik galdetu.

Bestalde, Zuiako Kuadrillaren egoitza Murgiako udaletxe plazan dago.

### Plaza mugatuak daude

Laguntzak bi eratakoak izan daitezke, eta kasu bakoitzean plaza mugatuak egongo dira.

Alde batetik, laguntza ekintzaileak izan daitezkeen pertsonen zuzenduta daude, haien enpresa-idea garatzen laguntzeko (lau plaza). Bestetik, Bidegararritasun plana eginda eta negozio-idea definituta duten ekintzaileei zuzenduta dago, hurrengo hilabetean martxan jartzeko eta JEZn alta emateko (bi plaza).

### Proiektua non garatu

Zuiako Kuadrillako herriren batean bizi diren edo proiektua aipatutako Kuadrillan garatu nahi dutenei zuzenduta daude Lanbidek onartu berri dituen laguntzak.

## Errigora ekimeneko ekoizleekin bat egin du Aramailurrek

A.E. | ARAMAIO

Aurten ere Errigora ekimenak udazkeneko kanpaina martxan jarri du. Aramaioeko ekonomatuak bat egin du ekimenarekin: euskara, elikadura burujabetza, auzolana eta Nafarroako hegoaldearekin bat egiteko gonbita egin dute. Errigorak 50 euroko saskiak jarri ditu salgai.

### Aramailurren bete fitxa

Saski horiek Aramaion eskura daitezke, azaroaren 8a baino lehen eskaera eginez gero Aramailurren: izen-emate fitxa bete eta 50 euro ordaindu beharko dira ekonomatutan. Banaketak azaroaren 16tik 29ra bitartean egingo dituzte.

### Produktuak eta ekoizleak

Saskia osatzen duten produktuak eta ekoizleak dira: ardo beltz botila (Azpea, Lezaun edo Mendiko), litro erdiko oliba-olio birjina estra (Bardea, Castillo de Ablitas, Ekolo edo La Casa Del Aceite), melokotoia almirabarrean (Almanaque), orburuak (Ebron edo Maria Jesus), potxak (La Churta edo Maria Jesus), kardua (Maria Jesus edo Pedro Luis), mahats-zukua (Ekolo), almendrak (Nstra. Sra. Del Rosario), pikillo piper ontzi txikia (Iturri), pikillo piper ontzi handia (El Escolar edo Meleta), esparragoak (Iturri), melokotoi-marmelada (Pedro Luis) eta pikillo piper untapana (Almanaque).

## Aramaio eta inguruak ezin hobeto irudikatu dituzte margolanetan

Lanak Sastiñan daude ikusgai: gaur arratsaldeak eta bihar eta etzi goizez

KOMUNITATEA GOIENA | ITUR-ZURI  
ITUR-ZURI EMAKUMEEN TALDEA | ARAMAIO

Itur-Zuri emakumeen taldeak antolatutako pintura lehiaketako sari nagusia Leticia Gasparrek irabazi du.

Astelehenean egin genuen kaleko margo lehiaketa. 33 margolarik parte hartu zuten nagusien saillean eta 28 lagunek gaztetxoaren taldean. Teknika librean lan egin zuten parte-hartzaileek. Zehaztuta zuten bakarra gaia zen: *Aramaio eta ingurua*. Nagusien saillean Leticia Gasparrek irabazi zuen lehenengo saria –700 euro–; bigarren saria Jokin Telleriak eroan zuen –500 euro–; eta hirugarrena Jon Idigorasek –400 euro–. Aramaioar onena Edurne Uribarren-Iturrieta izan zen.

### Gaztetxoaren saila

16 urtetik beherakoen saillean, lehenengo saria Leire Arrizaba-



Saritutako koadroak Sastiñan daude ikusgai. | IGONE OSINAGA

lagak irabazi zuen; bigarren saria Eider Vazquezek; eta hirugarren saria Izaro Herbosok.

### Lanak ikusteko aukera dago

Gaspar plentziarraren lanak eta gainerakoak Sastiñan daude ikus-

gai. Gaur, barikua, 18:00etatik 20:00etara ikusteko aukera egongo da; zapatuan eta domekan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik Sastiña. Margolanak jasotzeko ordutegia ere hori izan da.

## Bihar eta datorren zapatuan auzolanean egingo dituzte indusketak Murugaingo gune arkeologikoan

Murugaingo indusketa arkeologikoetan auzolanak egingo dituzte datozen bi zapatuetan: urriaren 17an –bihar– eta 24an. Parte hartzeko, izena eman beharko da Arrasateko edo Aramaioko udaletxera deituta (945 44 50 16). Ondare Babesa elkarteak, Arrasateko Udalak eta Aramaioko Udalak antolatu dituzte auzolanak. Eguraldi txarra egiten badu, bertan behera geratuko da auzolana. Horrez gain, urriaren 25ean bisita gidatua egingo dute.

## Araba Kantan musika koraleko jardunaldiaren barruan, Manuel Iradierren emanaldia bihar

Arabako Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Araba Kantan jaialdiak geldialdia egingo du Aramaion. Gasteizko Manuel Iradier abesbatzak kontzertua eskainiko du kultura etxean bihar, zapatua, 19:30ean. Musika korala Araban zehar zabaltea da jardunaldion helburua. Urriaren 25ean, domeka, Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzaren txanda izango da. Emanaldia egingo dute Duranako Sologana gizarte etxean, 13:00etan.



# Erabiltzen ez diren espazio publikoen gaineko hausnarketa

Udalak 'Ateak irekiz' ekimena deitu du hilaren 20rako, eta herritarren parte hartzea eskatu du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Erabilerarik ez duten espazio publikoak bisitatzea da asmoa", aurreratu dute udal arduradunek, eta kultura etxea, buztin gela... aipatu dituzte adibide gisa. Eki-menak *Ateak irekiz* du izena, eta martitzenerako, hilak 20, deitu du Udalak. Taldea 19:00etan abiatuko da, plazatik. Helburua da herritarrekin batera espazio horiek zein egoeratan daude ikustea. Zein material dagoen, material horrek zein erabilgarritasun duen... Azken finean, hausnartzea gaur egun erabiltzen ez diren espazio publiko horien gainean. "Herritarrekin gauzagarriak diren eta auzolanaren bidez egin daitezkeen proiektuak bilatuko ditugu", esan dute Udaletik. "Herrian identifikatutako beharrak espaziook egokituz betetzen saiatuko gara", gaineratu dute.

## Proposamenen kutxa

Herritarren proposamenak jasotzeko beste bide bat ere zabaldu

du Udalak. Herri lanetarako proposamenen kutxa ipini dute udaletxean. Kutxa horretan, hobetu beharreko espazioen gaineko proposamenak egin ditzakete herritarrek. Hala, Udalak honako dei hau egiten die herritarrei: ikusten badute egoera arriskutsuan dagoen edozein espazio edo aldatu beharrean dagoen edozein gauza, eskaera kutxa horretara bidera deza-tela. "Edozein hobekuntza, ideia... bururatuz gero, kutxa horretara bideratu", azaltzen dute. "Astean behin kutxa begiratzeko konpromisoa hartzen dugu", gaineratu dute. Proposamenen kutxa *dano-nartian@elgeta.net* helbide elektronikoaren funtzioa osatzera dator. Helbide elektronikoak erabilgarri segitzen du.

Eta 2016ko aurrekontuari begira, Udalak eginda dauka herritarren proposamenak jasotzeko deialdia. "Ideiarik izanez gero edo zerbait proposatu nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan", adierazi dute.

Etor Garate Elkoro | Udaleko Kirol teknikaria

## "Nire asmoa da ikasturtean zehar hainbat ikastaro egitea"

L.Z. | ELGETA

Ikasturte berriaren atarian, harrera ona izan dute edade-tuendako gimnasia saioek, eskola kirol taldeek eta spinning saioek. Batez ere, GAP eta tonifikazio saioetara animatu gura ditu elgetarrak Kirol teknikari berriak.

### Jendeak gutxien ezagutzen dituen jarduerak gelditu dira zalantzan?

Baietz esango nuke. Ez ditugu ezagutzen edo uste okerra dugu. Tonifikazioan gorputz atal guztiak lantzen dira, bolumena hartu barik tonu muskularra hobetzeko. Elastikotasuna eta arnas aparatua ere lantzen dira. GAP saioetan, berriz, gluteoak, abdominalak eta izterrak lantzen dira. Hasiera batean, ariketa gogorrak izan daitezke, baina gorputza laster ohitzen da eta emaitzak berehala ikusten dira. Emakumezkoendako eta gizonezkoendako jarduerak dira biak.

### Materialean ere badaude berrikuntzak, ezta?

Garbitu bat eman diogu gimnasioari. Material zaharra erretiratu egin dugu, eta dagoena txukun ipini. Gainera, korrika egiteko zinta, ergometroa eta atzera botatzeko aulkia ekarriko ditugu. Eliptikoa ere martxan



Etor Garate. | L.Z.

jarriko dugu. Kontuan hartuta entrenamendu-plan pertsonalizatuak ere eskaintzen ditugula, ondo etorriko dira.

### Eskaeraren arabera ordutegi eta jarduera berriak aztertzeke prest zaudete, ezta?

Talde bat sortzen bada goizez etorri nahi duena, edo beste jarduera bat egin nahi duena... ba, prest gaude aukera horiek ere aztertzeke. Gainera, nire asmoa da ikasturtean zehar hainbat ikastaro egitea. Urtea amaitu aurretik mendiko bizikleta sartu nahi dut. Buruan dut edadetuendako bizikleta ikastaroa egitea eta adin guztietako herritarrendako patinaje saioak antolatzea.

## OHARRAK

### PILOTA TXAPELKETA

Hamahiru bikotek eman dute izena herri mailako pilota txapelketarako: 40 urtetik gorakoetan jokatzeko lau bikotek eta 40 urtetik beherakoe-tan jokatzeko bederatzi bikotek. Arduradunek egutegia prestatzen dihardute, eta asmoa da lehenengo norgehiagokak hilaren 23an jokatzea.

### MENDI IRTEERA DOMEKAN

Arantzazutik abiatu eta Iturrigorriko bidetik Urbiara egingo dute mendizaleek. Jarraian, Peruaitz, Urkitza eta Zurkurutz tontorrak etorriko dira. Hitzordua: 08:00etan, plazan. Antolatzailea: Kantsatzeke mendi taldea.

### HIRU IKUSKIZUN ESPALOIAN

Umorearen aste bukaera egingo dute kafe antzokian. Gaur, barikua, Xabier Deltell entzutetsuak egingo du bakarrizketa, 22:30ean. Zapatuan, *Purgatorio* antzezlanaren txanda izango da, 22:30ean. Eta domekan, 19:00etan, *Colon...izando* antzezlanga eskainiko dute.

### 1965EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an bazkaria egingo dute Elorrioko Narru jate-txean. Izena emateko, idatzi *kintada65elgeta@gmail.com* helbide elektronikora.



ELGETAKO UDALA

## Egoarbitzan auzolanean

Elgetako Udalak deituta, astelehenean, urriak 12, hamalau lagun elkartu ziren Egoarbitzako herri saila auzolanean garbitzeko. "Hazitako zuhaitzen babeserako itxiturak kendu eta inguru guztia garbitu genuen", adierazi dute Udaletik. "Mila esker lanerako prest agertu zinetenoi!".

## Nagusien Martxa eta Gernikako azoka prestatzen

L.Z. | ELGETA

Elgetako zortzi erretiratu izango dira zapatuan Pasai Donibanen egingo duten Nagusien Martxan. Lau laguneko bi taldetan banatuta, bederatzi kilometro inguruko ibilbidea egingo dute. Egun-pasa joango dira Pasai Donibanera.

### Irteera Gernikara

Urriaren 26an, berriz, erretiratuek irteera egingo dute Gernikako azokara. Interesatuek domekan, hilak 18, eman behar dute izena, Ozkarbin, 11:00etatik 12:00etara.



MIRIAN IBARBIA IRIONDO

## Aitzol Jimenez sasoi bikainean

Asteburuan Salas de los Infantes-en (Burgos) jokatu den hiru etapako Tierra de Dinosaurios trail lasterketa irabazi du Aitzol Jimenez elgetarrak, senior mailan. "Fruitua ematen dute eguneroko lanak eta entrenamenduek", adierazi du. Eskerrak eman dizkie neskagun Miren Ibarbiari, Igor Fernandezi, Santi Santamariari eta Jose Luis Romanelliri.

## LEINTZ GATZAGA

# Berritasunekin dator aurten ludoteka zerbitzua

Begirale bakarra barik, bi izango ditu: Garazi Orobengoa eta Ander Larrañaga

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Egunero 17:00etatik 19:00etara zabalduko ditu ateak herriko ludotekak, kultura etxean. Eskolako egutegiarekin bat eginda funtzionatuko du; bestela esanda,

eskolan jaieguna dutenean, ludotekan ere izango dute jaieguna.

Joan den astean ate irekien ekitaldia egin zuten, eta 12-15 bat neska-mutiko azaldu ziren ludotekan izena emateko asmoarekin.

Oraingo astean egin dute, berriz, ludotekaren funtzionamendua, ume kopurua eta kuota zehazteko batzarra. "Edozein modutan, orain izena eman ez duen umeren bat balego, urtean nahi duenean du hori egiteko aukera", esplikatu dute ludotekaren antolatzaileek, Gurel elkarteko ordezkariak.

### 3 urtetik aurrera

Bestalde, ludotekak aurten berritasunak izango dituela aurreratu dute Gurelekoek. Hasteko, bi begirale izango ditu, biak ala

biak udalerrikoak: Garazi Orobengoa eta Ander Larrañaga, hain zuzen ere.

Bestetik, begiraleek ludotekaren gainean Gurel elkarteari aurkeztutako proposamenaren arabera, astero gai jakin bat landuko dute neska-mutikoek: ipuinak, marrazketa, argazkigintza, jaiak, eta abar.

Eta azkenik, aurten 3 urteko umeak ere joan ahal izango dira ludotekara. Hori horrela, 3 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoen-dako zerbitzua izango da.

### Ekimen berriak

Gureli dagokionez, kide berriek osatu dute elkarte aurtien: Joanes Mendizabal, Aitziber Goro-sabel, Aitor Mendibil eta Myriam Toapantak. Otsailera arte bere horretan segituko dute, baina otsailean Mendizabalek elkarte aurti egingo du eta haren partez beste kideren bat sartu beharko da. Ludoteka zerbitzua, Gabonetako ekitaldiak... urterokoak direnak antolatzeaz gainera, talde berriak ekimen bereziak egin gura dituela iragarri du.



## ZIKLO-KROSA

# Ziklo-krosa bueltatuko da Arrasatera, 54 urteren ostean

Abenduaren 13an izango da, baina oraindik erabakitzeke dago lekua

Urteak dira –bost hamarkada– Arrasaten ziklo-kros lasterketa-rik ez dagoena, baina aurtengo denboraldia hasi berri den hone-tan, Arrasatek Euskadiko Txapelketa barruan lasterketa izan-go du, eta abenduaren 13an izan-go da. Duela urte gutxi Oñatik hartu zion erreleboa Bergarari, eta orain, Arrasate ere batuko da ziklo-krosara.

Dorletako Amako lagunak dabilta lasterketa antolatze-ko lanetan, eta, eguna zehaztuta badute ere, lekua erabakitzeke dago oraindik: "Gure asmoa Gara-gartzan antolatzea zen, eta ideia horrekin hasi ginen abuztuan lanean", adierazi du Iñigo Azka-reak: "Garagartzan zirkuitu aparta egiteko aukera geneukan, plazan bertan hasita, baina hain-bat baserritarren lursailak era-biltzea ezinbestekoa zen, eta ez dugu denen oniritzia jaso. Pena da, uste dugulako auzoarendako berarendako ere ona izango litza-tekeela, baina dagoeneko hasi gara alternatibak bilatzen".

**Markulete edo Garaia**

Hala, aste barruan Dorletako Amako lagunak Markuleteko eta Garaia Berrikuntza Gune-ko lursailak aztertzen ibili dira: "Garagartzan egitea ezinezkoa bada, Markuleten ahaleginduko gara zirkuitua egiten. Ez da aurrekoa bezain leku aproposa, baina zirkuitu txukuna egin daiteke: herritik gertu dago, aparkalekuak ditugu, Iturripeko instalazioak ere gertu... Eta kan-potik datozenak Olandixoko tunelari esker berehala iritsiko dira zirkuitura. GPSarekin neur-tzen ibili ginen martitzenean, eta 2.400 metro inguruko zirkui-tua izango litzateke. Hori bai, orain lursail baten edo besteren jabearekin egin beharko dugu

## ESANAK

**"Oso gogotsu gaude herrian ziklo-krosa erreku-peratzeko"**

IÑIGO AZKARATE | DORLETAKO AMA

## DATUA

**2,4**

KILOMETRO  
Markuleten neurtu duten zirkuituak 2.400 metro izango lituzke.

**1961ean Espainiako Txapelketa jokoan**

Hamarkada asko egin behar dira atzera Arrasaten ziklo-krosaz berba egiteko. 1961ean, Uribarri inguruko lurretan Espainiako Txapelketa egon zen jokoan (25. edizioa). Antolatzaileek oso ibilbide gogorra prestatu zuten, %23 zeukaten maldekin, eta, egun hartan hotz galanta egin bazuen ere, irteeran batu ziren 38 ziklisten artean lehia ederra izan zen. Uribarriko eliza paretik pasatu ziren ziklistak, handik Iturripera, eta Olandixoko malda gogorrei ere aurre egin behar izan zieten txirrindulariek, egun lkerlan enpresa dagoen inguruetan ibili ziren.

Garaipenerako faborito nagusiak Anton Barrutia eta Jose Luis Talamillo ziren. Baina Barrutiak erakutsi zuen sasoi ederrean zegoela, eta hark gurutzatu zuen Iturripeko helmuga lehenengo postuan. Miguel Urkizarrek hirugarren postuan egin zuen ia lasterketa osoa, baina aldagailua hautsi zuen, eta Alfredo Irusta izan zen podiumera igo zen hirugarrena.

berba, eta ea arazorik ez diguten jartzen". Antolatzaileek beste aukera bat ere badute esku artean, Garaia Berrikuntza Gune-ko lurretan egitea, baina, auke-ran, Markulete aukeratuko luke-te, baldin eta Garagartzako aukera erabat baztertzen baldin badute.

**Urriaren 20an Oñatin**

Arrasatekoaz batera, Oñatin ere ziklo-kros lasterketa izango da abenduan, hain zuzen, Arrasate-koa egin eta astebete geroago. Oñatin Aloña Mendiko ziklismo saileko lagunak hainbat urte dara-

mate lasterketa antolatzen, eta, horrekin batera, herrian hainbat txirrindulari dituzte, Arrikruz Oñatiko Kobak taldean lehian. Bada, bihar, zapatua, egingo dute taldearen aurkezpena, 12:00etan, kultura etxean.

**Aurten hamazortzi lasterketa**

Joan den astean hasi zuten (Orduñan) hamazortzi lasterketa izango dituen Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa. Tartean egon-go diren lau proba Espainiako Koparako puntuagarriak izango dira, eta Euskadiko Txapelketa Legazpin izango da.

## MENDIKO BIZIKLETA

## Mondranbike martxa egingo dute bihar, zapatua, 34 kilometroko ibilbidearekin


Ibilbide luzean hainbat jaitsiera 'endurero' aurreikusi dituzte antolatzaileek

X.U. | ARRASATE

Joan den domekan Oñatin egin-dako Iban Altuberen martxari erreleboa hartuko diote Besai-deko lagunak bihar, zapatua, Mondranbike martxa antolatu-ta –09:00etan, Musakolako kirol-degian–.

Antolatzaileak denon neu-rrirako martxa antolatzen saia-tu dira. Sasoian daudenendako eta jaitsiera teknikoak atsegin dituztenendako tramu ederrak aurreikusi dituzte –Murun eta Anporretan, esaterako–, endu-ro ukituarekin. Baina jakinda denek ez dutela bizikleta gainean maila bera, eta lasaia ibili gura dutenendako ere aukera polita eskainita –25 kilometro, 800 metroko desnibelarekin–.

Bizikleta martxa 09:00etan hasiko dute, eta ordubete lehe-nagotik egongo da izena ema-teko aukera, kiroldegian bertan –federatuek 5 euro; federatuta ez daudenek 10 euro–.



Iaz, Udalara bidean. | IMANOL SORIANO

## FUTBOLA

## Debagoienean ere salduko ditu sarrerak Eibarrek

Talde armaginak debalde jarriko ditu autobusak, sarrera erosi dutenendako

X.U. | ARRASATE

Eibar Kirol Elkartek beste eki-men bat abiatu du asteon: eskual-deko hainbat tabernatan sarre-rak salduko ditu talde nagusiak Ipuruan jokatzeko dituen parti-duetarako. Gainera, autobusak jarriko ditu joan-etorria egiteko. Doan izango da autobusa, sarre-ra erosiz gero. Eibarko bazkideek, oster, euro bat ordainduta egin ahal izango dute autobusean joan-etorria. Hain zuzen ere,

*Ipurua gainezka izena jarri dio-te ekimenari.*

**Oraingo asteburutik hasita**

Sevillaren aurka bihar (18:15, Ipurua) jokatu duen partiduan jarriko du abian ekimena Eiba-rrek. Oraingo, Debagoieneko taberna hauetan salduko dituz-te: Arrasateko Kajoin eta Ber-garako Bulen. Gaur, egubakoi-tza, azalduko dute webgunean non hartu daitezkeen autobusak.

## ESKUBALOIA

## Izarraitz Taberna Aloña Mendi eta Ford Mugarri Arrasate, Euskadiko Txapelketako lehen postuetan

Euskadiko Txapelketan lehian dabilta ibarreko bi ordezkari-ek oso ondo hasi dute liga, eta dagoeneko lehenengo postuetan dau-de, mailan agintzen. Oraingo asteburuan Arrasateko taldeak Ereintza hartuko du (zapatuan, 18:00etan, Musakolan), eta Oña-tiko taldeak Txikipolit taldearen kontra jokatu du (domekan, 12:00etan, Zubikoan). Datorren astean, berriz, bi taldeen arteko lehen derbia izango da, eta bolada onean iritsi gura dute biek.

## FUTBOLA

## Erregional Preferenteko Antzuolak, Aretxabaletak eta Bergarak jokatu dute asteburuan etxean

Antzuolak eta Bergarak zapatuan jokatu dute (16:30) eta Aretxa-baletako bigarren taldeak domekan (16:30). Hala, hirurek ere sail-kapenaren erdian dauden taldeak izango dituzte aurrean. Hiruga-rren Mailan, UDak puntu bakarra batu duen Ondarroako Aurre-raren kontra jokatu du zapatuan (17:00, Ondarroa). Ohorezko Erregionalean, seigarren dagoen Aloñak ere kanpoan jokatu du (domeka, 12:00, Martutene). Eta Erregional Preferentean bigarren dago Mondra, eta hirugarren Amaikak Bat (zapatua, 16:30, Deba).



1961ean Arrasaten egin zuten lasterketako bideotik hartutako hainbat irudi. | YOUTUBE/RETROCLIPS



SASKIBALOIA



Iazko taldeari eutsi dio MUK, oso aldaketa gutxiarekin. | OINTXE

# MUK zapatuan hasiko du EBA mailako liga, La Flecharen kontra jokatuta

**XABIER URZELAI** | ARRASATE  
Denboraldiaurre luze baten ostean, MUko jokalariei iritsi zaie kan- txara salto egiteko ordua (zapatua, 18:00, Iturripe). Eta ligako lehe- nengo partiduan Valladolideko La Flecha izango dute aurrean. Iaz mailari eusteko helburua lor- tuta –nahiz eta azken jardunal- dietan gura baino gehiago sufritu zuten–, zuri-moreek beste aurre- rapauso bat emateko egingo dute lan, eta albiste ona da Josu Larrea- tegik iazko jokalarari gehienak izango dituela eskura.

Barrena eta Atxa dira salbues- penak: lehenengoak saskibaloia uztea erabaki du eta Atxa aben- dura arte kanpoan egongo da ikasten. Jokalarari berri bakarra

fitxatu dute zuri-moreek, Berga- ratik datorren Jon Ugarteburu. Baina, seguruenik, fitxaketa one- na Beñat Barberena izango da; iaz min hartuta egon zen arrasa- tearra errekuiperatuta dago.

**Helburua: 300 bazkide**  
Bestalde, klubak bazkide kanpai- na jarri du abian –30 euro–, bideo eta guzti –behean QR kodea–. Hala, helburua da 300 bazkide lortzea, eta hainbat ekimen egin- go dituzte horretarako.

**Bideoa ikusteko:**  
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



MENDIA

## Finalisten Eguna egingo dute domekan Bergaran

**X.U.** | BERGARA  
Gipuzkoa osoan eskola kirol- lean dabilen –mendizaleta- sun modalitatean– neska-mu- tiko kuadrilla galanta –800 gaztetxo eta 300 heldu ingu- ru– batuko da domekan Ber- garan, Finalisten Egunean.

Aldundiak, Mendi Fede- razioak eta Gorla Alpino elkar- teak antolatu dute ekimena, Udalaren laguntzarekin. Hala, domekan gaztetxoak semina- rioko patioan elkartuko dira (09:00), eta haiendako bi ordu- ko ibilbidea prestatu dute –hamaiketakoa barne–, eta helduak ordu erdi geroago abiatuko dira, ibilbide luzea- goa egiteko asmoz. Ondoren, denak batuko dira, eta, diplo- ma banaketa egiteaz batera, sariak banatu eta zozketak egingo dituzte.

Bi orduko ibilbide hori egiteko, antolatzaileek San Martzial inguruko parajeak aukeratu dituzte: plazatik Gabiriarako bidea hartu, eta Agarre Garaitik Landeta gai- nera, eta handik San Martzia- lera jaitsi eta plazan amaitu- ko dute.

### ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**  
Ondarroako Aurrera-UDA  
Zapatua, 17:00. Zaldupe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Martutene-Aloña Mendi  
Domeka, 12:00. Donostia.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Bergara-Ilintxa  
Zapatua, 16:30. Agorrosin.  
Antzuola-Beasain  
Zapatua, 16:30. Estala.  
Amaikak Bat-Mondra  
Zapatua, 16:30. Errotazar

**LEHEN ERREGIONALA**  
Aloña Mendi-Soraluze  
Domeka, 16:30. Azkoagain.  
Eibartarrak-Bergara  
Domeka, 13:30. Unbe.  
Arizmendi-Mondra  
Zapatua, 16:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Eibar-Aretxabaleta  
Domeka, 15:30. Unbe.  
Mondra-Burumendi  
Domeka, 12:00. Mojategi.  
Ilintxa-Aloña Mendi  
Zapatua, 16:30. Bikuña.  
Urola-Bergara  
Domeka, 11:30. Argixao.

**GAZTEAK**  
Urki B-Arizmendi  
Zapatua, 16:00. Unbe.  
Bergara-Eibartarrak  
Zapatua, 18:30. Ipintza.  
Aloña Mendi-Mondra  
Zapatua, 16:30. Azkoagain.  
Antzuola-Urki  
Domeka, 11:30. Estala.

**EMAKUMEZKOAK ERREGIO.**  
Mondra-Eibar  
Zapatua, 16:00. Mojategi.  
Arizmendi-Ilintxa  
Zapatua, 18:00. Ibarra.

**EMAKUMEZKO GAZTEAK**  
Oartzun-Bergara  
Zapatua, 15:30. Karla Lekuona.

SASKIBALOIA

**EBA**  
Mondragon Unib.-La Flecha  
Zapatua, 18:00. Iturripe.

**BIGARREN MAILA**  
Natra Oñati-Salleko  
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO SENIORRAK**  
Zast zarautz-MU  
Zapatua, 18:00. Zarautz.  
Errotaundi-Soraluze  
Zapatua, 16:00. Azpettia.

**SENIOR 3. MAILA**  
Aloña Mendi-Bosteko B  
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**  
Murkil Zast-Eskoriatza  
Domeka, 16:30. Aritzabalde.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDU**  
Soraluze BKE-Easo98  
Zapatua, 16:30. Labegaraleta.  
Añorga-Aloña Mendi  
Zapatua, 16:00. Donostia.

ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**  
Ford Mugarri-Ereintza Aguap.  
Zapatua, 18:00. Musakola.  
Izarraitz Aloña-Txikiopolit  
Domeka, 12:00. Zubikoa.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**  
Egia Arrano-Aloña Mendi  
Zapatua, 20:00. Donostia.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**  
Zuauto-Bergara  
Zapatua, 19:15. Legazpi.

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**  
Tolosa-Aloña Mendi

Domeka, 10:30. Tolosa.  
Urola Aranzadi-Bergara  
Zapatua, 16:15. Zumarraga.  
Arrasate-Zarautz  
Zapatua, 16:00. Musakola

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**  
Aloña Mendi-Ereintza  
Zapatua, 17:30. Zubikoa.

ERRUGBIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Babyauto-Kanpanzar ART  
Zapatua, Ordura zehazteke.

MENDI BIZIKLETA

**MONDRANBIKE MARTXA**  
Zapatua, 09:00. Musakolan  
Ibilbide luzeak 34km (1.400m),  
motzak 25km (800m).  
Izenematea ordu bete lehenago.

ZIKLO-KROSA

**OÑATIKO TALDEAREN**  
**AURKEZPENA**  
Zapatua, 12:00. Kultura  
Etxean.

PILOTA

**EZKER HORMA FEDERATUA**  
Oñatin, gaur, 19:00etan:  
Aloña Mendi1-Arrasate (kadet.)  
Aloña Mendi2-Tolosa2 (kadet.)  
Aloña Mendi2-Intza (gazteak)  
Aloña Mendi-Gazteleku (gazteak)  
Bergaran, gaur, 19:15ean:  
Bergara-Gazteleku1 (kadeteak)  
Bergara-Oiarpe (Seniorrak).  
Eskoriatzan, gaur, 19:30ean:  
Eskoriatza-Aurrera Saiatz (Senior).  
Arrasaten, gaur, 20:15ean:  
Arrasate-Azkoitia (kadeteak)  
Arrasate-Eibar (Seniorrak).  
Antzuolan,  
zapatuan, 12:00etan  
Olalde-Intxurre (Gazteak).

AZKENEKO ERAIKINA

ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak

943 31 68 68

www.sukia.com

2x  
3x

Logelak

Garaje itxiak

Espazio osagarri batekin

Bista irekiak

Hornitutako sukaldeak

Armairuak

FINANTZAKETA:

kutxabank

GEDI



# Amaia antzokia

Urria-abendua 2015

Umorea  
Bertsoak  
Flamenkoa  
Opera  
Haur antzerkia  
Antzerkia  
Zarzuela  
Musika



Urriak 18

'Kreditua'

Antzerkia



Urriak 24

'Debla'

Flamenkoa



Urriak 31

'Marina'

Opera



Azaroak 7

'Txanogorritxo'

Haur antzerkia



Azaroak 15

'Gau arabiarra'

Antzerkia



Azaroak 21/22 - 27/28

'La alegría de la huerta'

Zarzuela



Abenduak 4/7

XXIII. Nazioarteko akordeoi lehiaketa

Musika



Abenduak 19

'Pintto, pintto'

Haur antzerkia



Abenduak 23

'Golden Apple Quartet'

Musika / Umorea




Abenduak 31

'Arrasate Musikaleko Banda'

Musika

2016  
Datozenak



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Kultura Saila



# Unai Gaztelumendirekin eta Julio Sotorekin bertso saioa gaur Sastiñan

Aramaioko bertso eskolak ikasturtea aurkezteko herritar guztiendako emanaldia antolatu du

**A. ARANBURUZABALA | ARAMAIO**  
Bertso eskolaren ikasturte berria aurkeztuko dute gaur, egubakoi-tza, Sastiñan, 19:30ean. Iaz egin zuten moduan, eliteko bi bertso-lari datoz; oraingoan, Julio Soto eta Unai Gaztelumendi aukeratu dituzte. "Herritar guztientzat zabalik dago; izan ere, bertso eskolan argi daukagu herriari zerbait eskaini behar diogula, eta plan-teamendua da hiru hilean behin herrian ekitaldi bat antolatzea. Udazkenekoa, bada, gaurko saioa izango da. Formatu familiarra da, gertukoa, librean jardungo dute biek ala biek elkarrekin bertsoan berbetan", dio Xabi Igoak.

Bertso eskolako ikasleei goreneko mailan ari diren bertsolariak gertutik ezagutzeko aukera ematea ere helburu dutela gaineratu du Igoak: "Gonbidatuak aukeraketa egiteko orduan, ahalegintzen gara, alde batetik, gazteak izatea, bertso eskolekin *feeling*-a bermatze aldera, eta, era berean, beste irizpide bat izaten da kanpotik ekartzea, Arabako bertsolariekin badugu-eta bestela ere harreman zuzena".



Unai Gaztelumendi eta Julio Soto. | BERTSOZALE ELKARTEA

**40 minututako saio librea**  
Iaz, Miren Amuriza eta Agin Laburu etorri ziren. "Saio polita egin zuten, eta gaurkoa halaxe izango da. Biak ala biak bertso eskoletatik pasatutako gazteak dira, freskoak eta umoretsuak. Unai Gaztelumendi Gipuzkoako



Txapelketan ari da; final-laurdenetan abesteko du. Soto, berriz, Nafarroako txapelduna da; horrekin dena esanda dago".

Gai-jartzaile bako saio librea izango da: "Euren bizipenak kontatzeko eskatu diegu; adibidez, bertso eskolakoak. Gure ikaslee-

kin horiek partekatzeko proposatu diegu".

**Eskolako ateak zabalik**  
Datorren astean hasiko dituzte eskolak, baina zale berrientzako ateak urte osoan zabalik daudela adierazi du Igoak.

## 'Loreak' filma AEBetako areto komertzialetan erakutsiko dute

**A. A. | OÑATI**  
Aitor Arregi oñatiarrak idatzi eta ekoiztutako *Loreak* (Moriarti Produksioak) film luzearen ibilbidea geldiezin da; horren erakusle, hilaren 30ean New Yorken estreinatuko dutela eta azaroaren 27an, berriz, Los Angelesen. Orain dela hilabete batzuk AEBetako zinema areto batzuetan erakutsi zuten *Loreak*; astean iragarri dute, baina, zinema komertzialetarako saltoa egitea lortu dutela Music Box Films banatzailearen eskutik. Moriartikoen esanetan, garai egokia da AEBetan filma erakusteko, kontuan hartuta filma Oscar sarietarako bidean dela, eta, duda barik, lagungarria izango da, filma eza-gutzero emanez Oscarretarako kanpaina indartzeko. Lanak ondo bideratuta dituzte, hango enpresa batekin egutegia eta aurrekontua lotzen ari dira. Hango kazetariei eta Hollywoodeko Akademiako kideei filma ikusteko aukera eman gura diete, eta helburu horrekin ari dira antolatzen dira *Loreak*-en proiektzio pribatuak.

## Urriaren 31n egingo dute Oñatiko film laburren VI. rallya

**MAITE TXINTXURRETA | OÑATI**  
Izen-emate epea astelehenean hasiko da, urriaren 19an, eta hilaren 28ra arte egongo da zabalik. Antolakuntzak hogeitaldetara mugatu du izen-ematea, Santa Ana aretoan egingo den lanen proiektzioan kanpoko ikusleentzat ere tokia uzteko. Hala azaldu du antolatzaille lanetan dabilen Aitor Perosterenak. Film laburren rallya urriaren 31n egingo dute, zapatuan. Beti bezala, taldeak goizean goiz hasi eta egun osoan zehar arituko dira film laburra ekoizteko lanean. Ekimenaren seigarren edizio honetan, Perosterenak aurreratu duenez, "sorpresak" ez dira falta izango.

### OINARRIAK

- Hamar pertsona taldeko, gehienez
- 15 urtetik gorako parte hartzaileak
- Lanak euskara hutsean
- Antolakuntzak emandako objektua eta generoa landu
- Ezinbestekoa da emandako objektua eta hamar tokietako bi irudietan azaltzea
- Lanen iraupena: gutxienez minutu bat, gehienez hiru
- Parte-hartzaileek eroan beharko dute materiala
- .avi eta .mov formatuetan
- Creative Commons lizentziapean



LPM Productions taldea izan zen iazko irabazlea. | IMANOL SORIANO

## Julio Galartaren hainbat obra salgai jarri dituzte

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartearen jarduerak finantzatzeko dirua lortzea da helburua

**M.T. | ARRASATE**  
Julio Galarta margolari arrasatearraren koadroak erosteko aukera izango du hala nahi duenak, Iñigo Arregi artistak Maa-lako Errebalean daukan Arregi Arte dendan. Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartearen eskutik dator ekimena, eta, hain zuzen, elkarte horren bildumako obrak dira salgai daudenak. Obra horien katalogoa erosteko aukera ere badago toki berean.

Taldeak urtean zehar izaten dituen gastuetarako erabiliko dute salerosketetatik ateratako dirua: "Urtero aseguru bat ordaindu behar dugu, eta, horretaz gain, erakusketak jartzeak ere gastuak dakartza". Hala azaldu du Eneritz Tiradosek, elkarteko idazkariak.

**Guztiak ez daude salgai**  
500 koadrotik gorako bilduma dauka egun Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak. Guztiak ez daude salgai, baina. Eneritz Tirados idazkariak azaldu duenez, "erdiak baino zertxobait gutxiago" dira katalogoan eskuragarri daudenak. Leku bera erakusten duten koadro bat baino gehiago daude-

nen obrak soilik salduko ditu elkarteak. Esate baterako, Udala auzoaren hiru koadro desberdin baldin badaude, horietako bi salgai izango dira; aldiz, ale bakarra balego, ez da aukera hori izango. Bestalde, balio sentimental berezia edota interes historikoa dutenak ere ez dituzte eskuraga-

rriri jarri. "Koadro batzuek jada aldatuta dauden Arrasateko txo-koak erakusten dituzte, eta horiek gorde egingo ditugu", azaldu du Tiradosek.

**Arrakasta Gasteizen**  
Maiatzaren 28tik urriaren 4ra arte Gasteizko Caja Vital aretoan margolariaren erakusketa izan da ikusgai, 100 koadro baino gehiagoz osatua, gehienak Arabako paisaienak. Tiradosek adierazi duenez, Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak horren gainean balorazio "oso ona" egin du, eta koadroek beste balio bat irabazi dutela aipatu du.



Arregiren dendan dagoen Udala auzoaren koadroa. | MAITE TXINTXURRETA



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Bergara.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 943 76 93 85

**Bergara.** Aukera ona. 65 metro koadroko etxebizitza salgai prezio onean. Zabalotegi kalean. Bigarren solairua. Hiru logela eta egongela. 605 72 38 97

**Oñati.** Ugarkalde auzoan babes ofizialeko etxebizitza salgai garaje eta trastelekua rekin. Sukaldea, hiru logela, bi komun eta egongela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666 79 06 93

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribe auzoan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 680 58 01 27

**Bergara.** Martokua 14an, beheko solairuan, etxebizitza ematen da errentan. Hilean 450 euro. Derrigorrezkoa danominaizatea. 675 70 68 07

**Leintz Gatzaga.** 99 metro koadroko duplex xarmagarria salgai edo errentan Leintz Gatzagan. Distribuzio irekia. Bi komun eta hiru logela. Beheko sua eta trastelekua. 615 00 67 21 (Alberto)

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke Arrasaten, jantzia eta ekonomikoa. Kontratua ezinbestekoa. 606 66 80 21

**Baserribila.** Baserria errentan hartuko genuke urtariletik aurrera. Bailaran edota Durangaldean izan daiteke. 653 71 78 82 (Amaia)

**Bergara.** Erretiratu bikote batek etxebizitza behar du errentan, elbarriendako egokitutako bainugelarekin eta igogailuarekin. 632 77 35 38

**Bikote gaztea errenta bila.** Bergarako bikote bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. Deitu arratsaldeaz. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97

## 105. ETXEA OSATU

**Pixukide bila.** Epa! Logela bat libre daukagu. Errenta 185 euro da. Zubietza kalean, terraza eta guzti. Animatu! 605 74 78 29

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. 943 76 93 85

**Saltzeko premia.** Aparkalekua salgai Bergarako Ibargarai kalean. Ikusi eta proba egin konpromiso gabe. 5.000 euro. 659 77 02 62

## 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia alokatzen da Santa Kurtz 24an, Lezaman. Hilean 60 euro. Harremanetarako deitu zerbaki honetara: 647 08 00 16 edo 666 20 19 92

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan. 669 90 95 95

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Umeak zaintzeko.** Neska euskaldun bat behar dugubi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Lanaldi erdia eta goizez. 652 71 74 49

## 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Arratsaldetan, orduka, nagusiak zainduko nituzke. 622 24 86 64

**Arrasate.** Emakume ardurasua gertu nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia dut laguntza lanetan. Orduka, astelehenetik ostiralera lan egingo nuke. 607 72 75 61 (Bego)

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta hiru urtez nagusiak zaintzen aritu izanaren egiaztagiri eta erreferentzia onak. Bestela, erakuntzan erlan egingo nuke. 678 25 95 46

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest arratsaldeaz eta asteburuetan. 645 70 23 37

**Bergara.** Emakume ardurasua, informe onak dituen, gertu garbiketala lanetan aritzeko. Inte-

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

## PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu. - Profesionalen moduluak.



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokokorosti.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA:

- Aranerrek 79m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Aranerrek 87m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Aranerrek 90m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteroa. PREZIO JAITSIERA. 129.000 €
- Koldo Eleizalde, 76m<sup>2</sup>, 3 logela. Terrazarekin. 115.000 € NEGOZIABLEA.
- Bolun 129 m<sup>2</sup>ko Elkartea salgai. Hornitua. 95.000 €. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 87m<sup>2</sup>, 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berri zututa. 210.000 €
- San Antón Abad 71 m<sup>2</sup>, 3 logela. 2 apartakaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m<sup>2</sup>, 3 logela, garajea eta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espolito 95 m<sup>2</sup>, 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000 € PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m<sup>2</sup>, 2 logela, 80 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m<sup>2</sup>, 3 logela. 20 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 107.100 €
- Zubietza 110 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oritua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- San Pedro 73 m<sup>2</sup>, 3 logela. 13 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m<sup>2</sup>, 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Artelake 47 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berri zututa. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Masterrek 72 m<sup>2</sup>, 2 logela, duplexa. Trastelekua. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Erabat berri zututa 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Zubiaurre 104 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerrek 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Burdinate, 93m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, igogailua. Garajea barne. 276.000 €

## ANGIOZAR:

- Duplexa 170 m<sup>2</sup>, Garajea, txakoa eta 180 m<sup>2</sup>ko lur sailarekin.
- Etxebizitza 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berri zututa. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Baserría 233m<sup>2</sup>. Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €
- Errelegi alogogai. Errelegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

## OSINTXU:

- Osintxu 85m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailua. Berri zututa. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m<sup>2</sup>. 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA
- Osintxu 70m<sup>2</sup>. 2 logela eta igogailua. 62.000 € AUKERA BIKAINA

## ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m<sup>2</sup>, duplexa. 250.000 €
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050 €
- Behetxo Auzoa 57 m<sup>2</sup>. 2 logela. Oso ondo. 97.000 €
- Errekalde 94 m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.

## ELGETA:

- Torrealdene 77 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.

## SORALUZE:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

resatuok deitu zerbaki honetara: 696 27 25 34

**Bergara.** Irakasle ikasketak burutzen ari naiz eta umeak zaindu edo goizetan eskolara eramateko gertu nago. 636 46 76 33

**Debagoiena.** Antzuolan bizi den emakumea, etxeko lanak egiten edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 672 29 74 58

**Debagoiena.** Arrasaten bizi eta pertsona nagusien eta umeen zaintzan esperientzia duen emakumea naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Umeei ingeleza ere irakatsi diezaikeet. Orduetegi aldetik inongo arazorik gabe. 602 16 00 28

**Debagoiena.** Asteazken zehar, 10:00etatik 16:00etara bitartean, nagusi edo umeak zaindu eta enkarguak egin, jatekoak prestatu, garbiketak egin eta abarrak egingo nituzke. Esperientziaduna. 634 26 10 92

**Debagoiena.** Bertako mutila gertu margotzen, tabernari edo nagusiak zaintzen jarduteko. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea naiz eta zaintza lanak eta garbiketak egiteko gertu nago. 656 70 29 29

**Debagoiena.** Garbiketala lanak egingo nituzke. 695 73 28 96

umeak zaintzeko, nagusiekin egon eta paseoa laguntzeko edo orduka garbiketala lanak egiteko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska ardurasua, esperientzia eta erreferentzia onak dituen, lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaintzen edota etxeko lanak egiten arituko nintzateke. 688 85 44 78 edo 631 49 94 96

**Debagoiena.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituladuna, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko. 632 83 51 04

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko zein sukaldean laguntzeko. Erreferentzia onak ditut. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak, sukaldean zein tabernari. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska lan bila. Esperientzia dut jangelako zerbitzari moduan, etxe, atari eta abarren garbiketala eta tailerlean. 616 09 37 90 (Eva)

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izanda zein orduka. 697 86 49 00

**Emakume euskalduna.** Emakume euskalduna garbiketak egiteko prest: atariak, tabernak, etxe partikularrak eta abar. Eskarmentua nekazaritza turismo lanetan: logelak atondu, gosariak zerbitzatu eta bestelakoak. 690 86 46 80

**Gidari lanak.** Bergarako mutila gidari moduan lan egiteko gertu. Gidabaimen guztiak daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665 73 90 98

**Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzaile eta estetizista lanerako prest Debagoiengan. 605 72 64 43

**Lan bila.** Zerbitzari moduan lan egingo nuke. Hiru urteko esperientzia dut. Ume eta nagusiak zaindu edo etxe eta abarren garbiketala ere egingo nituzke. Orduetegi zabal. Debagoiengan edo baita Eibarren ere. Eskerrik asko. 676 44 85 58

**Neska euskalduna umeak zaintzeko prest.** 24 urteko neska euskalduna, Arrasate eta inguruetan haurrak zaintzeko prest, goizez edo arratsaldeaz.

Haur Hezkuntzako titulua eta eta esperientzia handia. 638 71 50 66 edo 943 79 88 58

**Oñati.** 29 urteko neska, Haur Hezkuntzako ikasketekin, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldeaz edo orduka. Autoa daukat. 664 53 28 56

**Zaintza eta garbiketala.** Arrasateko emakumea, etxeetan zein egoitzatan nagusien zaintzan 9 urte baino gehiagoko lan esperientziarekin, gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxe garbiketala lanak egiteko. 696 04 67 20 (Mirian)

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko bigarren mailako gaztelerako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Esperientziaduna. 669 87 24 54

**Frantsesa.** Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke Oñatin. 635 71 29 77

## 502. EMAN

**Eskola partikularrak.** 23 urteko gazte bergararra eskola partikularrak emateko prest. Kazetaritza graduatua eta euskara, ingeleza eta frantses tituladuna. DBH 4. mailara arte emango nituzke klaseak. 628 52 43 72

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Autoa.** Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. 645 00 56 81

## 8. DENETARIK

## 802. EROSI

**Lingoteak.** Urrezko eta zilarrezko lingoteak erosiko nituzke. 656 75 76 98

**Lursaila.** Debagoiengan lursaila erosiko nuke bertan borda eta ortua jartzeko. Ahal bada, sarbidearekin eta urarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 646 36 68 02

## 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Urrezko eraztuna topatu zen lralabarri plaza-ko garajeen inguruan irail bukaran. 659 35 89 92

BARRUAK  
ASTINTZEN

GOIENA TELEBISTA | DOKUMENTALA

Buruko gaixotasuna duten hamabost lagun eta bederatzi ikasle elkarrekin bizi izaten

URRIAK 22, 22:00 | URRIAK 23, 19:00



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Markel Caballero Agra**  
Urriaren 22an, urtebete.  
Zorionak eta muxu handi bat familia guztia-  
ren eta, batez ere, Ainhoaren  
partetik.



ARRASATE  
**Alazne Sandoval**  
Urriaren 21ean, 13 urte. Zorionak, Alazne! Musu handi bat aitaren, amaren eta Eiderren partetik. Denok elkarrekin ospatuko dugu zure eguna. Jarraitu horrela. Maite zaitugu.



OÑATI  
**Malen Osinaga Osinaga**  
Urriaren 20an, 10 urte. Zorionak, artista! Ondo pasatu. Besarkada handi bat etxekuen partetik!



OÑATI  
**Sara Aberasturi Galdos**  
Urriaren 18an, 4 urte. Zorionak eta ondo pasatu, polit hori! Patxo pillia danon partetik. Muak!



OÑATI  
**Oier Zubizarreta Iñarra**  
Urriaren 17an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! 8 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo pila bat etxeko danon partetik.



OÑATI  
**Malen Laka Fernandez**  
Urriaren 16an, urtebete. Zorionak, Malen! Aittaren, amaren eta familia danaren partetik. Jarraitu poz-pozik handitzen. Patxo potolo bat!



BERGARA  
**Mark Gallastegi Majda**  
Urriaren 15ean, 2 urte. Zorionak, maitxia! Zu laster ikusteko gogurekin gare. Ondo-ondo pasatu! Asko maite zaitxugu, txapeldun!



ARETXABALETA  
**Paula Luri Vazquez**  
Urriaren 14an, 4 urte. Zorionak, Paula! Ondo-ondo pasatu eta ea eskatu dituzun opari guztiak jasotzen dituzun! Patxoak amaxuren, aitatxoren eta Andertxoren partetik!



BERGARA  
**Uxue Garitano**  
Urriaren 13an, 10 urte. Zorionak, maitxia! Egun politxa pasatzia espero dogu. Muxu potolo pila bat Kenarren eta Alainen partetik. Asko maitxe zaitxugu.



ARRASATE  
**Damary Moreno Osorto**  
Urriaren 12an, 10 urte. Zorionak, Damary! 10 urte betetzen dituzu urriaren 12an. Gurasoen eta nebaren partetik, ondo ibili zure egunean. Asko maite zaitugu. Muxu bat!



BERGARA  
**Nahikari Lopez Manterola**  
Urriaren 12an, 8 urte. Egun zoragarria pasatu ezazu familiakoekin, printzesa, eta muxu handi bat aitaren, amaren eta anaia Iñakiren partetik.



BERGARA  
**Miren Moñux Garcia**  
Urriaren 12an, 10 urte. Zorionak, pitxin! Andoni, June eta Aitor.



BERGARA  
**Koldo Etxaniz Santiago**  
Urriaren 11n, 6 urte. Zorionak, Koldo! Muxu handi bat etxekoen partetik, bereziki Mikel eta Maite.



ARAMAIO  
**Hegoi Azkarate Arriolabengoa**  
Urriaren 10ean, 7 urte. Zorionak, lastana! Amandrea, amama, aitaia, amatxo, aitatxo eta Oihan. Ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzea!



ESKORIATZA  
**Iraitz Lazpita**  
Urriaren 10ean, 11 urte. Asko maite zaitut. Zure amama.



ESKORIATZA  
**Oinatz Gonzalez Idigoras**  
Urriaren 10ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasatu eguna eta muxu erraldoi bat etxekoen partetik!



OÑATI  
**Gerardo Urkia Goitia**  
Urriaren 10ean, 60 urte. Zorionak eta urte askotarako, Gerardo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian, familia danaren partetik!



OÑATI  
**Jone, Maialen eta Ainhoa Anduaga Elorza**  
Maialenek eta Ainhoak 9 urte, urriaren 6an eta Jonek 13, urriaren 8an. Zorionak hiruroi eta pa handi bana etxekoen partetik.

ZORION AGURRAK TELEBISTAN

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO  
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 | MADDIK AURKEZTUA





ASTEA GOIENAN



IMANOL SORIANO

Bergarako moda eta diseinu berrien desfilea osorik

Bihar, zapatua, Bergarako San Martin plazan gauz egingo den moda desfilea osorik ikusi ahal izango da eguaztenean Goiena telebistan. Herriko modeloak izango dira pasarelako protagonista, eta bertan erakutsitako jantziak ikusi ahal izango dira.

'Moda desfilea'  
Eguaztena, 22:00



JAGOBA DOMINGO

Gaixoen eta ikasleen elkarbizitzaz dokumentala

San Juan de Dios ospitaleko hamabost gaixo eta Arizmen-di-Almen ikastolako bederatzi ikasle elkarrekin bizi izaten egon dira Arespalditzan (Araba), lau egunez, buruko gaixotasuna duten pertsonekiko aurreiritziak bukatzeko helburuarekin.

'Barruak astintzen'  
Eguena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

| EGUBAKOITZA, 16                     | ZAPATUA, 17                   | DOMEKA, 18                    | ASTELEHENA, 19            | MARTITZENA, 20            | EGUAZTENA, 21             | EGUENA, 22                |
|-------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|
| 12:00 Debagoiena zuzenean           | 10:00 Korapilo                | 10:00 Korapilo                | 12:00 Debagoiena zuzenean | 12:00 Debagoiena zuzenean | 12:00 Debagoiena zuzenean | 12:00 Debagoiena zuzenean |
| 12:30 EKT                           | 10:30 Zaindu zaitez           | 10:30 Osoko bilkura: Arrasate | 13:00 Korapilo            | 12:30 Harmailatik         | 12:30 Muga barik          | 12:30 Moda desfilea       |
| 13:00 Lurrean bizi                  | 11:00 Debagoiena zuzenean     | 11:15 Astea iruditán          | 13:30 Debagoiena zuzenean | 13:00 Ikusmira            | 13:00 Korapilo            | 14:00 Debagoiena zuzenean |
| 13:30 Onein                         | 12:00 Astea iruditán          | 11:30 Amaia DJ                | 14:30 Berriak             | 13:30 Zaindu zaitez       | 13:30 Zaindu zaitez       | 14:30 Berriak             |
| 14:00 Debagoiena zuzenean           | 12:05 EKT                     | 12:00 Ertzak                  | 15:00 Amaia DJ            | 14:00 Debagoiena zuzenean | 14:00 Debagoiena zuzenean | 15:00 Moda desfilea       |
| 14:30 Berriak                       | 12:30 Osoko bilkura: Arrasate | 12:45 Ikusmira                | 15:30 Onein               | 14:30 Berriak             | 14:30 Berriak             | 16:30 Berriak             |
| 15:00 Amaia DJ                      | 13:15 Onein                   | 13:00 Debagoiena zuzenean     | 16:00 Debagoiena zuzenean | 15:00 Harmailatik         | 15:00 Muga barik          | 17:00 Arte kale           |
| 15:30 Hurbilean                     | 13:45 Ikusmira                | 14:00 Astea iruditán          | 16:30 Berriak             | 15:30 Onein               | 15:30 Onein               | 18:05 Ur eta lur          |
| 16:00 Debagoiena zuzenean           | 14:00 Amaia DJ                | 14:05 EKT                     | 17:00 Hurbilean           | 16:00 Debagoiena zuzenean | 16:00 Debagoiena zuzenean | 18:30 Berriak             |
| 16:30 Berriak                       | 14:30 Muga barik              | 14:30 Onein                   | 17:30 Ur eta lur          | 16:30 Berriak             | 16:30 Berriak             | 19:00 Korapilo            |
| 17:00 Josetxo Imaz memoriale        | 15:00 Debagoiena zuzenean     | 15:00 Lurrean bizi            | 18:00 Lurrean bizi        | 17:00 Hurbilean           | 17:00 Ertzak              | 19:30 Lurrean bizi        |
| 17:30 Erreportajea: Iraila, piperra | 16:05 EKT                     | 16:00 Debagoiena zuzenean     | 18:30 Berriak             | 17:30 Ur eta lur          | 17:45 Ikusmira            | 20:00 Debagoiena zuzenean |
| 18:30 Berriak                       | 16:35 Lurrean bizi            | 17:00 Korapilo                | 19:00 EKT                 | 18:00 Lurrean bizi        | 18:00 Zaindu zaitez       | 20:30 Berriak             |
| 19:00 Ikusmira                      | 17:00 Korapilo                | 17:30 Zaindu zaitez           | 19:30 Amaia DJ            | 18:30 Berriak             | 18:20 Zorion Agurrak      | 21:00 Debagoiena zuzenean |
| 19:30 EKT                           | 18:00 Osoko bilkura: Arrasate | 18:00 Hurbilean               | 20:00 Debagoiena zuzenean | 19:00 Korapilo            | 18:30 Berriak             | 21:30 Berriak             |
| 20:00 Debagoiena zuzenean           | 18:45 Ikusmira                | 18:30 Muga barik              | 20:30 Berriak             | 19:30 Hurbilean           | 19:00 Harmailatik         | 22:00 Barruak astintzen   |
| 20:30 Berriak                       | 19:00 Debagoiena zuzenean     | 19:00 Arte kale               | 21:00 Debagoiena zuzenean | 20:00 Debagoiena zuzenean | 19:30 Muga barik          | 23:00 Debagoiena zuzenean |
| 21:00 Debagoiena zuzenean           | 20:05 Muga barik              | 20:00 Osoko bilkura: Arrasate | 21:30 Berriak             | 20:30 Berriak             | 20:00 Debagoiena zuzenean | 23:30 Berriak             |
| 21:30 Berriak                       | 20:30 Amaia DJ                | 20:45 Debagoiena zuzenean     | 22:00 Harmailatik         | 21:00 Debagoiena zuzenean | 20:30 Berriak             | 00:00 Moda desfilea       |
| 22:00 Amaia DJ                      | 21:00 EKT                     | 21:45 Astea iruditán          | 22:30 Debagoiena zuzenean | 21:30 Berriak             | 21:00 Debagoiena zuzenean | 01:30 Debagoiena zuzenean |
| 22:30 Debagoiena zuzenean           | 22:00 Astea iruditán          | 22:00 Amaia DJ                | 23:00 Berriak             | 22:00 Muga barik          | 21:30 Berriak             | 02:00 Berriak             |
| 23:00 Berriak                       | 23:05 Muga barik              | 22:30 EKT                     | 23:30 Amaia DJ            | 22:30 Debagoiena zuzenean | 22:00 Moda desfilea       |                           |
| 23:30 EKT                           | 23:30 Amaia DJ                | 23:00 Debagoiena zuzenean     | 00:00 Debagoiena zuzenean | 23:00 Berriak             | 23:30 Debagoiena zuzenean |                           |
| 00:30 Debagoiena zuzenean           | 00:00 Debagoiena zuzenean     | 00:00 Astea iruditán          | 00:30 Berriak             | 23:30 Harmailatik         | 00:00 Berriak             |                           |
| 01:00 Berriak                       | 01:05 Arte kale               | 00:30 Osoko bilkura: Arrasate | 01:00 Harmailatik         | 00:00 Debagoiena zuzenean | 00:30 Muga barik          |                           |
|                                     | 02:00 Amaia DJ                |                               |                           | 00:30 Berriak             | 01:00 Debagoiena zuzenean |                           |
|                                     | 02:30 Astea iruditán          |                               |                           | 01:00 Muga barik          | 01:30 Berriak             |                           |

ARRASATE IRRATIA

'Debla' izeneko ikuskizunerako sarrerak zozketan

Hilaren 24an, 19:30ean, Amaia antzokian askotariko arte diziplinak jasoko dituen *Debla* emanaldia eskainiko dute, patologia mitokondrialak dituzten gaixoen elkartek antolatuta. Sarreraren zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera.

Zuhaitz Gurrutxaga aktoreari egindako elkarrizketa



Zapatuan eta domekan 10:00etan Arrasate Irratian eskainiko den asteko gain-begiratuan, etzi, domeka, Amaia antzokian izango den *Kreditua* antzezlaneko aktore Zuhaitz Gurrutxagari egindako elkarrizketa entzun ahal izango da. Ikus-kizunaren xehetasunak azalduko ditu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE        |                 |                     |              |
|-----------------|-----------------|---------------------|--------------|
| Egubakoitza, 16 | IRIZAR          | Erguin, 11          | 943 79 12 39 |
| Zapatua, 17     | AMEZUA          | Sta. Marina, 32     | 943 79 09 74 |
| Domeka, 18      | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14    | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 19  | RUIZ            | Nafarroa Etorb., 1  | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 20  | ETXEBERRIA      | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 21   | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1  | 943 79 15 15 |
| Eguena, 22      | M.FCA. AZKOAGA  | Iturriotz 17        | 943 79 79 99 |
| BERGARA         |                 |                     |              |
| Egubakoitza, 16 | ESTELLA         | Matxiategi 5        | 943 76 19 63 |
| Zapatua, 17     | ALVAREZ MOZOS   | Iparragirre, 2      | 943 76 12 15 |
| Domeka, 18      | ALVAREZ MOZOS   | Iparragirre, 2      | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 19  | URRUTIKOETXEA   | Orixondo plaza 4    | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 20  | ZABALA          | Barrenkale, 25      | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 21   | GUALLAR         | San Antonio, 5      | 943 76 11 05 |
| Eguena, 22      | ESTELLA         | Matxiategi 5        | 943 76 19 63 |
| OÑATI           |                 |                     |              |
| Egubakoitza, 16 | GARATE          | Kale Barria, 42     | 943 78 05 58 |
| Zapatua, 17     | GARATE          | Kale Barria, 42     | 943 78 05 58 |
| Domeka, 18      | GARATE          | Kale Barria, 42     | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 19  | JULDAIN         | Kale Barria, 6      | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 20  | JULDAIN         | Kale Barria, 6      | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 21   | ANDUAGA         | San Lorentzo 3      | 943 78 21 16 |
| Eguena, 22      | ANDUAGA         | San Lorentzo 3      | 943 78 21 16 |

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoz izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofigipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

| DEBAGOIENA  |          |  |          |
|---|----------|--|----------|
|    | Max. 20° |                                     | Max. 22° |
|   | Min. 5°  |  | Min. 6°  |
| ZAPATUA, 17   |          | DOMEKA, 18   |          |
| Goizean ostarte politik izango dira eta epeltzeko joerari eutsiko dio. Arratsaldean lainotuago egongo da eta euria egin dezake. |          | Egun nahasia espero da. Ostarteak zabalduko dira, baina euria egiteko arriskua ere egongo da, nahiz eta tenperatura igo. |          |

EUSKAL HERRIA



Batez ere barnealdean hodeiak sartuko dira zapatuan, arratsalde partetik aurrera.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

**Hainbat lanpostu.** Arrasateko Udala. 15 langabe kontratatu gura dira. Prozesuan parte hartzeko, aurrez Lanbiden izena emanda egon behar da. Postuak: basolangileen taldeburua, 2 basolangile, katalogatzailea, informatika laguntzailea, arkitekto edo arkitekto teknikoa, kirol aholkularia, dokumentalista, digitalizazio teknikaria, Zuzenbidean lizentziaduna.

**Giza baliabide eta kalitate burua.** Tuvisa-Gasteizko Hiri Garraioak. Baldintzak: lanpostuarekin zerikusia duten arloetakoren batean unibertsitate lizentzia edo gradu titulua, B motako gidatzeko baimena. Epea: urriak 21.

**Finantza Administrazioan diplomatutako erdi mailako**

**teknikaria.** Gordexolako Udala. Baldintzak ondorengoak dira: Zuzenbideko, Zientzia Politikotako, Soziologiako, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako Unibertsitate diplomadun titulua edo baliokidea, Euskara: 3. HE. Azken eguna hau izango da: urriak 22.

**Euskara eta euskal kulturako irakurle 1 Parisen.** Etxepare Euskal Institutua. Baldintzak: gradu unibertsitate-titulua izatea, edo baliokidea; euskarako C1; frantseseko B1. Azken eguna haxe izango da: urriak 23.

BEKAK

**Praktikak enpresetan.** Arrasateko Udala. Tituludun berriei (Arrasateko) enpresetan praktikak egiteko deialdia zabaldu dute. Azken eguna izango da: urriak 30.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus  
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



**Amaia eta Iñaki**  
Amaia eta Iñaki urriaren 13an ezkondu ziren. "Zorionak, Iña eta Amaia! Familia osoaren partetik, oso zoriontsu izan!".



**Iker eta Carla**  
Iker Pablo eta Carla Cardenas zapatuan, urriaren 17an, ezkonduko dira Gasteizko San Pedro elizan. Ondoren, Olarizu jatetxean ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu eguna eta eztei-bidaian! Zuen familiaren eta lagunen partetik, muxu asko eta oso zoriontsu izan!".



**Iñaki eta Mari Carmen**  
Iñaki Berasaluzek eta Mari Carmen San Pablok urriaren 18an ospatuko dute orain dela 45 urte ezkondu zirela. "Zorionik beroena eta muxu handi bat, bikote! Familia osoaren partetik, besarkada handi bat, bihotz-bihotzez".



URTEURRENA



**Joxe Mari Lenisoro Lete**

2014ko urriaren 23an hil zen, 58 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko urriaren 16an.

URTEURRENA

**Felisa Elkorobarrutia Lazkano**

2014ko urriaren 13an hil zen, 76 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko urriaren 16an.

URTEURRENA



**Angela Lezeta Letamendi**

2014ko urriaren 2an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 18an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2015eko urriaren 16an.

ESKER ONA

**Juanito Elempuru Untzueta**

2015eko urriaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, urriaren 18an, 11:00etan, Garagartzako San Migel elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2015eko urriaren 16an.

HILDAKOAK

- Juanito Elempuru Untzueta.** Arrasaten, urriaren 9an. 83 urte.
- Manuel Godoy Romero.** Arrasaten, urriaren 9an. 79 urte.
- Alejandro Zubizarreta Garai.** Aretxabaletan, urriaren 10ean. 91 urte.
- Jose Inazio Galarraga Larrañaga.** Bergaran, urriaren 11n. 84 urte.
- Juan Antonio Horrillo Hidalgo.** Bergaran, urriaren 14an. 88 urte.
- Sabin Iturriagagoitia Zubero.** Bergaran, urriaren 14an. 70 urte.

URTEURRENA



**Jorge Ilzarbe Lombide**

2014ko urriaren 30ean hil zen, 55 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Baita urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi ere. Bergaran, 2015eko urriaren 16an.

URTEURRENA

**Felisa Kortabarria Kortabarria**

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko urriaren 16an.

OROIGARRIA



**Mikel Odriozola Igartua**

Hil zeneko 10. urteurrena





2005eko urriaren 17an hil zen, 50 urte zituela.

Nun hago, zein larretan, Aloña Mendiko artzaina.

Gogoan zaitugu.

Etxekoak. Oñatin, 2015eko urriaren 16an.

ESKER ONA

**Jose Ignacio Galarraga Larrañaga**

2015eko urriaren 11n hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko urriaren 16an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55  
BERGARA



ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**Amama (euskaraz)**  
Egubakoitza: 20:30.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:30.

**Magiaren etxea (euskaraz)**  
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

**Amama (euskaraz)**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua, domeka eta  
astelehena: 19:30,  
22:30.

**La casa magica**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

EIBAR

COLISEO

**La cumbre escarlata**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

**La playa de los ahogados**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Amama**  
Zapatua: 17:00, 19:45.  
Domeka: 17:00.

**Amama (jatorrizko bertsioan)**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Pinocho y su amiga Coco**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

**La cumbre escarlata**  
Zapatua: 17:00, 19:45.  
Domeka: 17:00.  
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

**Marte**  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:00.  
Egubakoitzetik domekara:  
19:00, 20:00, 22:00.  
Zapatua eta domeka:  
16:00, 17:00.  
Astelehenetik eguenera:  
17:30, 19:00, 20:30,  
22:00.

**Marte 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:00.  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:00, 21:00.

**La cumbre escarlata**  
Egubakoitza: 18:00,  
20:30, 23:00.  
Zapatua: 17:30, 20:00,  
23:00.

Domeka: 17:30, 20:00,  
22:30.  
Zapatua eta domeka:  
15:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:30, 20:00, 22:30.

**Los miercoles no existen**  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:45.  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:45, 21:15,  
Zapatua eta domeka:  
16:15.

**Pan. Viaje a Nunca Jamas**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:30.  
Egubakoitzetik eguenera:  
17:45, 20:00, 22:15.  
Zapatua eta domeka:  
15:30.

**Pan. Viaje a Nunca Jamas 3D**  
Zapatua eta domeka:  
15:45.

**Golpe de estado**  
Egubakoitzetik domekara:  
18:00, 20:10.  
Astelehena, martitzena  
eta eguaztena: 20:10.  
Eguena: 22:30.

**Regresion**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:45.  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:00, 20:15, 22:30.  
Zapatua eta domeka:  
15:45.

Egubakoitza eta domeka:  
19:30, 21:45, 00:00.  
Zapatua: 23:15.

**Hitman**  
Egubakoitza: 17:45.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.

**El corredor del laberinto**  
Egubakoitza, domeka eta  
astelehenetik  
eguaztenera: 19:40,  
22:15.  
Zapatua: 20:00, 22:40.  
Eguena: 19:40.

**Everest**  
Egubakoitzetik eguenera:  
17:30, 20:00, 22:30.

**La visita**  
Zapatua, domeka,  
astelehena, martitzena  
eta eguena: 15:30.

**El desconocido**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:35.  
Egubakoitzetik  
eguaztenera: 22:30.  
Eguena: 18:00.

**Atrapa la bandera**  
Egubakoitzetik domekara,  
eta eguaztena: 17:30.  
Zapatua eta domeka:  
15:30.

**Los Minions**  
Zapatua eta domeka:  
15:30.

**Del reves**  
Egubakoitza, domeka eta  
eguaztena: 17:30.

**Irrational man**  
Astelehena, martitzena  
eta eguaztena: 18:00.

NON-ZER

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**  
Tel.: 943 25 05 05 | [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus) | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

ARRASATE Pam taldea

Ermuko laukoteak *Hurrengoan bai* diskoa aurkeztuko du.  
Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 18:30ean.

ARRASATE Toby Connor

The Paris Riot taldearen lider izandakoaren kontzertua.  
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 23:00etan.

BERGARA Bergarako eta Azpeitiko organo ikasleak

Nazioarteko Organo Zikloaren barruan, emanaldia egingo dute.  
Bihar, zapatua, Santa Marinan, 11:00etan.

ARRASATE The Franki's eta Verrater

Idiazabalgo eta Azpeitiko taldeen punk-rock doinuak. Doan.  
Bihar, zapatua, Jai Zale tabernan, 17:30ean

ARAMAIO Manuel Iradier Abesbatza

*Araba kantan* jaialdiko emanaldia, musika korala zabaltzeko helburuarekin.  
Bihar, zapatua, kultura etxean, 19:30ean.

BERGARA Aritzeta Abesbatza eta Aitor Olea organista

Nazioarteko Organo Zikloa ixteko emanaldia egingo dute.  
Bihar, zapatua, Santa Marinan, 20:00etan.

BERGARA Udal Musika Banda

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako emanaldia.  
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

ARRASATE Bide Ertzean & Oier Guillan eta Asier Sarasola

*Nola belztu behar zuria* egitasmoa taularatuko dute, Joxan Artzeren poemarik berrienak oinarri hartuta. Doan.  
Etzi, domeka, Jai Zale tabernan, 19:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Fausto, herritar eredugarri' antzezlan

La Noruega antzerki taldearen lana, Galder Perezek zuzendutakoa. Faustoren mitoa gaur egunera ekarriko dute. Sarrerak, lau euro.  
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 22:00etan.

ELGETA 'Colon...izando'

Kristobal Kolon dibertigarriena ezagutaraziko dute. Aurretik musika emanaldia egingo dute Eibarko Nuriak eta Sofiak.  
Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

GAZTELEKUAK

ARRASATE 'Musatxef'

Musakolako Gazte Eguneko sukaldaritza lehiaketa. Egunean bertan eman behar da izena.  
Bihar, zapatua, gazte txokoaren parkean, 11:00etan.

ARRASATE 'Bat irabazteko'

Musakolako Gazte Eguneko abilezia eta erronka jolasen lehiaketa. Ostein, ping-pong eta mahai-futbol txapelketak.  
Bihar, zapatua, gazte txokoaren parkean, 16:00etan.

BERGARA Pareta margotzea

Gaztelekuan dagoen horma zaharra eta iluna kolorez beteko dute aste bukaeran. Guztion artean diseinatu eta margotuko dute.  
Aipatutako egunetan, Xabaloten, 17:30ean.



Aretxabaletako Udalari esker

Maialen Errotabehereren emanaldia ikusteko sarrerak ditugu.  
Zaraia aretoa. Aretxabaleta.  
Urriaren 22an, 19:00etan.

PARTE HARTZEKO (URRIAREN 19A BAINO LEHENAGO)

**SMS:** KLUBA [Maialen] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA Maialen [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba



AEPMI elkarteari esker

'Debla' flamenko emanaldia ikusteko sarrerak ditugu.  
Amaia antzokia, Arrasate.  
Urriaren 24an, 19:30ean.

PARTE HARTZEKO (URRIAREN 22A BAINO LEHENAGO)

**SMS:** KLUBA [Debla] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA Debla [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba



Espaloia Kafe antzokiari esker

'Mejor viuda que mal casada' bakarriketa komikoa ikusteko sarrerak ditugu.  
Espaloia Kafe antzokia. Elgeta.  
Urriaren 23an, 22:30ean.



Espaloia Kafe antzokiari esker

Jorge Astyaro hipnotizatzailearen 'Alucina' ikuskizuna sarrerak ditugu.  
Espaloia Kafe antzokia. Elgeta.  
Urriaren 24an, 22:30ean.



Espaloia Kafe antzokiari esker

Sara Escuderoren umorezko bakarriketa ikusteko sarrerak ditugu.  
Espaloia Kafe antzokia. Elgeta.  
Urriaren 25ean, 19:00ean.

PARTE HARTZEKO (URRIAREN 20A BAINO LEHENAGO)

**SMS:** KLUBA [Espaloia] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA Espaloia [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba

KRITIKA



Aurrera egiteko zalantzak

tsasoak inguratzen duen herri baztertu baten gertatzen da *El Club* filma. Ez dakigu, zehatz-mehatz, zer garaitan kokatzen den.

Zuzendariak giro eta istorio abstraktu batean murgildu nahi gaitu. Istorioa etxe baten gertatzen da. Etxe horretan lau gizon eta emakume bat bizi dira. Poliki-poliki, informazio gehiago heltzen zaigu: lau gizonak Elizatik baztertutako apaizak dira, eta horien zaindari emakume bat daukagu. Kalera irteteko eta herriko pertsonekin harremanak izateko mugaketak dituzte. Etxeko apaizak –batzuk pedofilia arazoengatik, beste batzuk umeak amari kendu eta gero beste bikote bati eman diotelako ...– mundutik bazterturik bizi dira. Gizartetik kanpo eta komunikabideek duten arriskutik ihes egiten. Eguneroko erritmoa jarraituz, egin dutena ahaztu edo ezkutatu egin dute.

Dena bere lekuan dagoela dirudienean, apaiz berri bat heltzen da, eta, hari jarraituz, baztertuta dauden apaizengandik tratatu txarrak jasandako gizon bat. Gizon

EL CLUB ★★☆☆

**Zuzendaria:** Pablo Larraín.

**Herrialdea:** Txile.

**Aktoreak:** Roberto Fariás, Alfredo Castro, Antonia Zegers,

honek kontzientziaren lana egingo du. Berriz gogora ekarriko die ahaztu nahi izan duten iragana. Era berean, beste elizgizon bat helduko da bizi diren etxea itxi nahian.

Istorio honekin, horren boteretsua den instituzio baten azpijokoak kaleratzen dira. Pelikulan ez da jarrera bakarrik hori azaltzen, instituzio horrek beti aurrera jarraitzeko duen ahalmena ere agertzen da. Baina, tamalez, hori azaltzeko modua ez da oso egokia. Zuzendariak lente berezi batzuk erabiltzen ditu: lehen plano ugari pertsonaiek berba egiten dutenean, momentu askotan planoaren zati batzuk lauso ikusten dira. Pertsonaia batzuek zer esaten duten ulertzea zail egiten da. Eta urritasun hori estilo astunean erortzen da azkenean. Eta kaltegarri eta itogarri egin gura izan duen giroak larritu baino gehiago urrundu egiten gaitu.

ANTONIO ZABALA



**ARRASATE** Larrugintza tailerra  
Zapatuan eta domekan egingo dute gaztetxoek.  
Aipatutako egunetan, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

OSPAKIZUNAK

**ANTZUOLA** 'Atzegi jolasean'  
Aurreiritziak apurtzeko Atzegik atera duen kanpainaren harira egingo dute ekimena.  
Bihar, zapatua, eskolako patioan, 10:00etan.

**ARRASATE** Musakolako Gazte Eguna  
Egun osorako askotariko ekintzak iragarri dituzte: puzgarriak, sukaldaritza lehiaketa, herri bazkaria, karaokea... Herri bazkarirako leku mugatuak daude. Egunean bertan eman behar da izena: 10:00etatik 12:30era arte.  
Bihar, zapatua, Musakolako eskola inguruetan, 11:00etan.

**OÑATI** Txanda Eguna  
Dendarien elkarteke 31 dendak parte hartuko dute. Norberak ekintza ezberdinak egingo ditu: haurrendako jolasak, kale animazioa, globoflexia, musika...  
Bihar, egubakoitza, eta, bihar, zapatua, egun osoan.

**OÑATI VII. trikiti jaialdia**  
Euskal Herriko trikitilari onenen bilgune izango da. Sarrerak, hama-bi eurotan, Izarraitz eta Arrano tabernetan.  
Bihar, zapatua, Santa Anan, 17:30ean.

**ANTZUOLA** Artekale jaia  
Euskal Herri mailako artistak protagonista: zirku saio motzak, antzezlanak, clown-a, breakdance dantzari gazteak, magia eta txotxongilo emanaldiak.  
Bihar, zapatua, kaleetan, egun osoan.

BERTSOLARITZA

**ARAMAIO** Bertso eskolaren jaia  
Ikasturte berriko taldeen aurkezpena egingo dute; eta, ostean, Julio Sotok eta Unai Gaztelumendik saioa egingo dute.  
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

**OÑATI** 'Ibaialde'  
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren



erakusketa didaktikoa. Bederatzi paneletan banatuta.  
Kultura etxean, urriaren 22ra arte.

**BERGARA** Untzurruntzagaren erakusketa  
45 argazki zintzilikatu ditu Jose Antonio Untzurruntzaga oñatiarrak. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa.  
Azaroaren 1era arte, Aroztegin.

**OÑATI** Alvarez de Eulateren omenezko lehiaketako erakusketa  
Arantzazu eta hango inguruak irudikatzen dituzten askotariko estiloetako 33 lanek osatzen dute erakusketa.  
Azaroaren 1era arte, Gandiaga Topagunean.

**ANTZUOLA** Iker Aizkorbe  
*Zazpi kolore* delako argazki erakusketa ipini du.  
Urrian ikusgai, Aitz Garbi tabernan.

**ARRASATE** 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'  
Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina.  
Harresi aretoan ikusgai.

LITERATURA

**ANGIOZAR** Amaia Arriaran  
Ipuin kontaketa saio bi egingo ditu: 17:30ean, *Do, re mi, kolkua bete ipuin*, 3-10 urte artekoendako; eta 19:00etan, *Adimena zorroteko ipuinak* nagusiendako.  
Gaur, egubakoitza, Arbiaska aretoan.

**OÑATI** Japoniar Rakugoa euskaraz  
Japoniako ahozko literaturan tradizioa duen generoa da Raku-

goa; Axun Eskaladaren, Arantzazu Maizen eta Maider Ibargurenaren eskutik.  
Hilaren 21ean, liburutegian, 19:00etan.

**ARRASATE** Maite Franco  
5 urtetik aurrerakoendako ipuin kontaketa egingo du Bibliotekaren Egunaren harira.  
Hilaren 22an, Kulturete, 18:00etan.

BESTELAKOAK

**ELGETA** Xabier Deltell  
*Deja vi deja va cada día te quiero más revolution* izeneko bakarriketa saioa.  
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

**BERGARA** Moda desfilea  
*Bergaran bizi* izeneko desfilea, herriko merkatarien eskaintza ezagutzera emateko.  
Bihar, zapatua, San Martin plazan, 22:00etan.

**OÑATI** Erreka garbiketa  
Torreauzotik Elorregirainoko erreka garbituko dute. Oinetako egokiak eta eskularruak eramatea aholkatzen dute. Batutako hondakinak Foruen plazan ipiniko dituzte ikusgai.  
Etzi, domeka, Foruen plazan, 09:00etan.

IRTEERA

**ARRASATE** Auzolanak  
Murugainen indusketak egingo dituzte bihar, zapatua. Eguraldi txarra egiten badu, bertan behera geratuko da. Hurrengoa hilaren 24an egingo dute.  
Bihar, zapatua, Murugainen, 09:00etan.

**OÑATI** Urrexolako urertzak eta Urkuluko arroa  
Natur Eskolakoekin egun erdiko mendi ibilaldia. Urkuluko kontsumorako ur araztegia bisitatuko dute.  
Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

**ELGETA** Peruaitzera  
Kantsatzeke taldearekin Arantzazu-Peruaitz-Arantzazu mendi ibilaldia egingo dute.  
Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

**OÑATI** Urkilla-Elgea  
2015eko azken irteera parketxearen eta Arantzazuko Adiskideak Elkartearen eskutik.  
Etzi, domeka, parketxetik, 09:00etan.

HITZALDIAK

**OÑATI** 'Yoga y emociones'  
Javier Aizpiriren hitzaldia, Oñatiko Yoga Eskolaren 25. urteurrenoko ekitaldien barruan. Azkeneko hitzaldia izango da. Irekia herritar guztiendako.  
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI** Burua ondo nola mantendu  
Erretiratuendako berbaldia.  
Urriaren 20an, Pake Lekun, 17:00etan.

**BERGARA** Android sistema eragilea  
Mugikorretako sistema eragilea izango dute hizpide KZgunearen eskutik.  
Urriaren 20an, Irizarren, 18:00etan.

**BERGARA** Sare sozialak  
Sare sozialen abantailak eta desabantailak izango dituzte hizpide Etxadiko kideek. Euskaraz.  
Urriaren 22an, Irizarren, 18:00etan.

TURISMOA

**ESKORIATZA** Bolibarko San Migel parrokia  
*Ezkutuko altxorrak* egitasmoaren bisita gidatua egingo dute. Aldez aurretik izena eman behar da 943- 79 64 53 telefonoan edo *info@ignaziotarlurraldea.com*-en.  
Etzi, domeka, Bolibarren.

DEIA

**ARETXABALETA** Odol ateratzea  
Arabako odol bankuko kideek odol ateratzeak egingo dituzte.  
Urriaren 19an, osasun etxean, 16:30ean.

IKASTAROAK

**ARETXABALETA** Zirku tailerra  
Gaztetxoendako hileroko tailerra egingo dute.  
Bihar, zapatua, Arkupen, 11:00etan.

**BERGARA** Keinu hizkuntza ikastaroa  
Bergarako Udalaren Gizarte Ongizate Sailaren laguntzarekin, Aransgik keinu hizkuntza lantzen hasteko ikastaroak egingo ditu. Izena emateko epea zabalik dago.  
Izen-ematea, Aransgiren bulegoan.

**ELGETA** 'Nordic walking' -a  
Bost orduko hastapen eta hobe-kuntza ikastaroa, Alfa teknikan oinarritua. Izena emateko: 943-76 66 61 telefonoa edo *antzuolakou-dalgimnasioa@gmail.com* helbidea.  
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

**BERGARA** Dantza tradizionalak  
Plazako dantza tradizionalak landuko dituen ikastaroa. Hasi-berrien eta sakontze taldeak. Ikastaroa azaroaren 3an hasiko da eta izena emateko azken eguna urriaren 23a da.  
Izen-ematea, musika eta dantza eskolan.

AURKEZPENA

**ARRASATE** 'Marina' opera  
Ibon Robles operan adituak obra-  
ren ezaugarriak azalduko ditu, eta gero, operako hainbat pieza interpretatuko dituzte Marije Ugalde sopranoak, Karlos Etxaniz baxu-joleak eta Isabella Blezien piano-joleak.  
Urriaren 21ean, Kultureten, 19:30ean.

ARRASATEKOBASERRIKO  
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2015

urriak 17

azaroak 21

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
merkatariek konfiantza,  
hurbitasuna eta kalitatea  
eskaintzen dizkizute.





Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Etxe Aundi jatetxeko  
goxua azukreztatuta



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:  
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-10-16

BUKATZEKO

# Gurasoen komunitatea indartzen

- 'Guraso.com' ataria 'Guraso.eus' izatera pasatuko da datorren martitzenean, urriak 20
- Txatxilipurdik eta Goienak lankidetzan kudeatzen duten plataformak aukera berriak eskainiko ditu

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Gurasotasuna eta euskara. Horiek izan dira *Guraso.com* proiektuaren ardatzak 2009an sortu zenean, eta horiekin jarraituko dute aurrerantzean ere. Proiektua, baina, hazi egin da, hobetu egin dute, eta aukera berriei dator orain. Horren guztiaren berri emango dute Txatxilipurdi elkarteko kideek eta Goiena Komunikazio Taldekoek datorren martitzenean, hilak 20, 11:00etan, Arrasaten, Kulturaten.

## Saltoa blogera

"Gutxi ziren bi ardatz horiek, gurasotasuna eta euskara, kontuan hartuta orain dela sei urte martxan ziren antzerako proiektuak. Zorionez, kontuak asko aldatu dira. Eta gure proiektuak, gainera, bere bidea egin du", jakinarazi dute sortzaileek, Txatxilipurdiko Lander Juaristik eta Goienako Larraitx Zeberio.

Bidelagun garrantzitsuak izan dituzte zeregin horretan. Sostengu ekonomikoa eskaini diete Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. "Eta sostengu garrantzitsua izan da urteen poderioz saretzen eta egonkortzen joan den kolaboratzaile



Goienako Larraitx Zeberio eta Txatxilipurdiko Lander Juaristi. | MIRARI ALTUBE

talde anitza, guztiak ere askotariko ikuspuntuetatik elikatzen eta aberasten joan direnak ataria", diote.

Proiektuak, baina, hazten jarraitu gura du, eta, sei urte pasatxoko ibilbidearen ostean, gauza gehiago eta hainbat for-

matutan eskaintzeko bokazioarekin dator.

Batetik, *Guraso.com* ataritik *Guraso.eus*-era egingo du salto. Eta bestetik, plataforma digital berriak ekarriko ditu aukera berriak gaiak lantzeko: "Txiki geratu zaigu orain arte erabili

dugun plataforma, eta blog batera egin dugu salto. Audioak, bideoak, kolaboratzaileen zutabeak, gaika landutako estekak eta beste hainbat kontu eskainiko ditugu", argitu dute, eta gaineratu: "Beste modu batera esanda, orain arte pilatutako materiala berrantolatu eta leihor berriak zabaldu ditugu".

Sare sozialetan duten presentzia indartu egingo dute, eta, hala, Facebook eta Twitter bidez jarraitu ahal izango da horren jarduna.

## Makilatxo magikorik ez

Guraso izateak mila ertz ditu eta familia bakoitzak bere izaera, bizi izateko era, estiloa. Jakinakoa da sorpresaz betetako abentura dela gurasotasuna. Ardura handikoa ere bai. Eta horregatik, galdera eta zalantza mordoak sortzen dira, uneak uneak. "*Guraso.eus* atarian jarduten dugunok ere galdera eta zalantza asko ditugu guraso moduan. Eta ez dugu makilatxo magikorik. Baina badugu kolaboratzaile eta aditu sare egonkor bat, eta gurasotasunaren gainean sortzen diren gaien jarraipena egiten dugu", diote Juaristik eta Zeberio.

## AZKEN BERBA

MIKEL  
IRIZAR



## Berdintasunari bai

Kargu berria hartu dudanetik interesa piztu du zuzendaritzari egin diodan izen aldaketak. GOIENA honetan eta beste hainbat kanaletan azaldu ditut aldaketaren helburua eta edukia, euskaraz zein gaztelaniaz. Ondoren, jasotako erreakzio pare bat

Neska batek, gaztelaniaz: "Lehen aldia da esaten didatena nik ere, erdi maketona naizen arren, zerbait egin dezakedala, barne senti naitenkeela". Poz berezia hartu nuen hori entzunda; hain zuzen, diskurtso berriaren helburua horixe baita, alegia, diskurtso euskaltzaleak itzalean uzten duen jendeak erantzukizuna sentitzea hizkuntzen esparruan zerbait egiteko, ardura horren baitan kokatzea bere burua.

Politikari euskaldun ez abertzale baten komentarioa: "Flipatu egin dut ikuspegi horrekin, oso berritzailea iruditzen zait. Politika progresisten helburua izanik gizartean dauden desorekak berdintzea, oso logikoa da desoreka sozial eta ekonomikoekin batera txertatzea genero edo hizkuntza desorekak, horrela denak bihurtzen baitira borroka bakarraren parte". Hau ere bereziki pozgarria da euskaltzaletasun zeharkakoa aldarrikatzen dugunontzat, abertzaletasuna baino zabalagoa izango dena.

 **EROSKI**  
ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarriak  
urriaren 28ra arte



Produktu  
onena,  
bertakoa

